

# Goienkaria

2006ko ekainaren 16a > Egubakoitza > VI. urtea > 248. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Euriborrak gora egin du, baina ez da etxebizitzaren arazoaren errudun bakarra"

**Urko Lopez**  
Ekonomia irakaslea > 09



**G2a**

'Danbaca.com' webgunea egin du Goienak > 43

**BERGARA**

Debarroa ezagutzeko aukera izango dute herritar sektore askok > 24

**HEZKUNTZA**

Atxaga, Lertxundi eta Olasagasti irakasle izango dira HUHEZIn > 59

**KIROLA**

Munduko errekorra jokoan izango da Oñatiko Herri Lasterketan > 40

**OÑATI** > ALKATEA GOITB-N

## Autobusak indartuko ditu Udalak

Autobus zerbitzua indartuko duela agindu du alkateak 'Debarri' saioan > 06

**ARAMAIO** > GAZTE LEKUA

## Jai ostean, gazte lekua zalantzan

Jaiak pasata, udalak aztertu egingo du gazte lekua berriro zabaldu edo ez > 34

**ESKORIATZA** > UDALA

## Aurrekontu moduan, sei milioi

Udalak astelehenean onartuko ditu aurrekontuak, eta udalaren proposamena da 6.007.650 eurokoa. Horren zati handiena auzoetako lanek hartuko dute.

Kontzejupek eta Ezker Batuak kezka azaldu dituzte: besteak beste, euskara eta Haurreskola izan dituzte hizpide. > 34

**ARRASATE** > UDAL POLITIKA

# Arrasateko Udala apurto egin da Gelmako auziaren eraginez

**DIMISIOA** Aralarrek Tokiko Gobernu Batzarra utzi egin du eta gobernua gutxiengo da orain udalbatzarrean

**AKORDIOAK** Hemendik aurrera gobernatzeko bidea gainerako indar politikoekin negoziatzea izango dela dio alkateak

**HAUSNARKETA** Indar politikoei hausnarketa egin behar dutela uste du EBk, herritarren konfiantza berreskuratzeko

## Javier Madrazo sailburuak lehen harria ipini du Torrealdean

Javier Madrazo, Eusko Jaur-laritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua, Elgetan izan zen atzo. Bizigune programa sinatu ostean, Torrealdean, babes ofizialeko etxebizitzak egingo dituzten lekuan, lehen harria ipini zuten.

Babes ofizialeko 20 etxebizitza egongo dira guztira bi eraikinetan banatuta: 12 etxebizitza batean eta zortzi besteetan. Aurreikuspenen arabera etxe hauen giltzak 2007ko azaroan emango dizkiete dagoeneko izendatuta dauden jabeek. > 37



EKITALDIA Lehen harria jartzeko ekitaldia egin zuten Javier Madrazok eta Patxi Basaurik.

AMAGOIA LASAGABASTER

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-42  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55



**SUPER AMARA**

**DENA GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

**Audi A3 Sportback**  
Automobil hutsa baino gehiago.



**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



AZPIEGITURAK &gt; URKULUKO URTEGIA ETA IBARREKO UR HORNIKUNTZA SAREA

# Lehorteak jo arren, Urkulu %86,54ko mailan dago

**LASAITASUNA** Ur Partzuergoak dioenez, Urkuluk ohiko ur maila du sasoi honetarako, eta ez dago larritzeko arrazoirik

**SAREA EZAGUTU** Udalek ur hornikuntza sarea gutxi ezagutzen dutela eta, Urkulu bisitatu dute asteen

**BERRITASUNA** Gaur egun, 66.000 biztanle asetzen ditu, baina laster Eibar ere hornituko du Urkuluko urtegiak

**LEIRE KORTABARRIA** > ARETXABALETA  
Lehortea dugu, ekain osoan ez du euririk egin, baina Urkuluko maila ona da: aste hasieran, edukieraren %86,54a zuen beteta. Hala egiaztatu dute joan den astelehenan Debagoieneko 22 zinegotzi, teknikari eta herri ordezkariak Urkuluko urtegiara eta tratamendu instalaziora egin zuten bisitan, Gipuzkoako Ur Partzuergoak gonbidatuta. Partzuergoko

zuzendari nagusiak, Iñigo Elosegik, egun horretan azaldu duen moduan, azkenaldian euririk egin ez duen arren, kezkatzeko arrazoirik ez dago: bere hitzetan, uraren maila iaz garai berean zegoen antzekoa da orain eta, azaro bukaera edo abendu inguruan, urtegia %100era egongo da.

Hala, oraingoz behintzat, ez dago uraren kontsumoaren gaineko neurri berezirik hartu beha-

rririk; ahaztu gabe kontsumoa eguneroko zaindu behar dela, ura alperrik ez gastatzeko.

Urkuluko urtegiak 10.000 milioi litroko edukiera dauka. Kasu hipotetiko bat hartzearen, euririk bat ere egin gabe, urtebetez hornitzeko gai da urtegia.

Beste gauza nabarmen bat da laster Urkuluk Eibarri ere zerbitzu emango diola. Joxe Saizarrek, partzuergoko ustiapen

zuzendariak, baieztatu du konezio lana esleituta dagoela. Gaur egun, urtegiak Debagoieneko herri guztiak, Leintz Gatzaga eta Aramaio izan ezik, eta Soraluze hornitzen ditu. Ikusi beharko da, Eibar bezalako hiri bat multzotan sartuz gero, urtegia zelan egongo den 97.000 pertsona inguruko populazioa eta herri horietako enpresak, udal zerbitzuak... urez hornitzeko.



IA-IA BETETA Euririk ez du egin azkenaldian eta ur

Aramaiok ez ditu Urkuluko urak jasotzen, baina horren gainean ere bada berririk: Ibarra-ko etxe guztietan horniketa eten-

## URTEGITIK KONTSUMITZAILEARENGANA BITARTEKO PROZESUA



### 1. Urkulun ura batu

Urkuluko urtegian batzen da gero herrietara banatzen den edateko ura. 10 Hm<sup>3</sup>-ko edukiera du, hau da, 10.000 milioi litrokoa. Ura edukitzeaz gain, ur-arroak erregulatzea da bere beste erregulazio nagusia.



### 2. Ura atera

Turbina horrek ateratzen du tratamendu zentrora eramaten den ura. Tratamendu den kopurua turbinatzen da normalean. Ur-jauziaren indarra aprobetxatuta, zentralak bere burua asetzeko adina elektrairdar sor dezake.



### 3. Tratamendua

Uraren tratamendua oso prozesu konplexua da. Labur esateko, zikinkeria eta mineral kaltegarriak kentzen zaizkio hainbat etapatan, eta kloroa, fluorra... gehitzen zaizkio. Irudian, dekantatzeko (garbitzeko) instalazio bat.



### 4. Banatu eta zaindu

Ura herrietako gordailuetara banatzen da. Irudian ikusten den panelak gordailu-sare osoa erakusten du. Urtegiaren kontrol eta zainketa zati handi bat kontrol-gelan egiten da, ordenagailuz.



### 5. Herritarrenganaino

Etxean jasotzen den ura Urkulutik dator, baina baita iturrietakoa, igerilekuetakoa eta beste zerbitzu publikoetakoa, lantegietakoa... Ur hori erabiltzailearengana iristeko, lan handia ematen duen prozesua behar izan da.



autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako mintegiak

## Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Gure **denbora** eta enpresako **baliabideak egoki kudeatzeko** modua erakutsiko dizugu. **Koordinatzeko**, gehiegizko lekualdaketak ekiditeko eta baliabideak erabiltzerakoan **denbora eta dirua aurrezteko**, kostu baxuko **soluzioak** (baita doakoak ere) erakutsiko dizkizugu.

**Debagoiena**  
ekainak 22  
BERGARA  
Miguel Altuna GLBHI  
(Elementala)

Orduetgia:  
**18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:  
**943 747 314**  
www.miramondigital.com  
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aklundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





ailak behera egin du, baina oraindik ia beteta da Urkulu.

MIRARI ALTUBE

TRATAMENDU-GUNEA

## Erantzukizun eta arrisku handiak

Urkuluko urtegia da Deba, Urola eta Oriako arroek osatzen duten barrutiko bigarren urtegi handiena. Berau kudeatzen lan isil eta garrantzitsua egiten dute sei lagunek. Javier Alvarez da tratamendu zentralako arduraduna; han dihardu 13 urtean, eta, bere hitzetan, "erantzukizun handiko lana da". Izan ere, 66.000 lagun inguruk hartuko duten ura eurek maneiatzen dute.

Erantzukizun handikoa, eta arrisku handikoa da jardun hori, gordinen, oso arriskutsuak diren sustantziak dira-eta euren eguneroko lantresna: fluorra, kloroa, ozonoa... Horregatik, segurtasun neurri zorrotzak daude zentralen. Zorionez, inoiz ez da ezer larririk gertatu.

Orain urte eta erdi arte, urtean 365 egun, egunean 24 orduko egutegia zuten sei lagun horiek. Orain, ordea, urrutiko zaintza sistema dute, eta lasaiago ibil daitezke behintzat.

Angiozar, Bergaran; Elgeta; eta Soraluze. Hortik aurrera, udalak erabakitzen du gordailua berak mantendu, eta ura berak kudeatu, edo Partzuergoari eman ardurara hori. Ibarrean, Arrasatek, Aretxabaletak eta Eskoriatzak ez beste herri guztiek bigarren aukera hori egin dute. Aukera bakoitzak bere abantailak eta desabantailak ditu: mantenu eta banaketa gastuak nork bere gain hartzen ditu, baina uraren salerosketa ere udalaren esku geratzen da.

Kontsumoan, alde handiak daude herri batetik bestera, eta populazioa ez da faktore bakarra. Hala, egunero gehien kontsumitzen duena Eskoriatza da (574 l/biztanle); bigarrena Oñati da (350); hirugarrena, Elgeta (332); eta gainerako herrien datuak hauek dira: Aretxabaleta, 298; Arrasate, 239; Bergara, 223; eta Soraluze, 149. Jose Antonio Rojok, partzuergoko Debagoieneko antolakuntza zuzendariak, hauxe dio: "Herri bakoitzaren industria azalerak eragina du kontsumoan, eta baita herri bakoitzaren azpiegiturak zelan dauden: herri batzuetan, gaizki daude eta ur ihesaldiak daude".

### ARAZTEGIA, OSAGARRI

Urkuluko urtegia da Debagoieneko ur horniketa sareko azpiegiturarik garrantzitsuena, gaur egun. Epe ez oso luzera, bere osa-

**Herrien kontsumoan eragin handia du zenbat industria duen, eta banaketa azpiegiturak zelan dauden**

**Debagoienean ur gehien kontsumitzen duen herria Eskoriatza da (574 litro biztanleko, egunero)**

garria izango du Mekolaldeko eta, batez ere, Epeleko araztegiekin.

Hala, asteleheneko bisitan, Azpeitian dagoen araztegia ere bisitatu zuten Partzuergoak eta udal ordezkariak. Epeleko araztegia haren oso antzekoa izango da, eta udal ordezkariak ikasi ahal izan zuten zelan funtzionatuko duen. Bi azpiegitura horiekin, Debagoieneko ur sarea osatuta geratuko da.

go dute hilaren 19tik 25era bitartean, Goikoerrotako ur gordailua garbitu eta konpondu behar dutelako.

**ALDE HANDIAK KONTSUMOAN** Urkulutik hartzen dute ura ibarreko herri gehienek, eta honako ur-gordailuetara banatzen da:

Aretxabaleta; Bolibar eta Zelaitzeta, Eskoriatzan; Arrasate; Zubillaga eta Urretxu, Oñatin; Antzuola; Bolu, Osintxu eta

## Ur hornikuntza sarea bertatik bertara ezagutu zuten 22 herri ordezkariak

Joan den astelehenean, Urkulura eta Azpeitiko araztegi bisitaldia antolatu zuen Ur Partzuergoak. Erakunde konturatuta zegoen udal arduradun askok ez zutela ondo ezagutzen ur hornikuntza eta tratamendu prozesua, eta horren berri ematea nahi izan zuten. Honako debagoiendarrak joan ziren: Xabier Zelaia eta Agustin Beitia (Oñatiko Udala); Francisco Javier Garai, Juan Garitano, Iñigo Iñurrategi, Igor Oiarbide, German Muruamendiaratz eta Luis Abajo (Bergarako Udala); Dina Muxika (Antzuolako Udala); Xabier Sarasua (Aretxabaletako herria); eta Jose Etxeberria, Matilde Martin, Moises Altuna, Peio Garai, Rafael Ugarte, Nerea Lazpiur, Andoni Bedialaguneta, Luis Etxeberriarteun, Jose Antonio Bad, Kandi Fernandez, Olatz Zaldua eta Marivi Visitacion (Arrasateko Udala). Partzuergotik, Iñigo Elozegi eta Joxe Saizar izan ziren.

Aretxabaletako urtegia eta tratamendu zentroa ikusi ondoren, Mitarten hamaiketakoan egin zuten. Hantxe agertzen dira argazkian.



Debagoieneko eta Debabarreneko ordezkariak eta Ur Partzuergoak, Mitarten.

L.K.

**centro**

**salgai**  
**945 12 80 60**

Residencial Beroa-n azken etxebizitza, lokal eta garajeak. Aretxabaleta.



HIRIGINTZA &gt; LURZORUAREN LEGEA

# Legea onartuta, alkateek izango dute etxebizitza tasatuen gaineko kontrola

Hiruko Gobernuak eta Eudelek akordioa sinatu dute; eta PSE-EEK eta Aralarrek ere legearen aldeko jarrera azaldu dute

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra udalak berak aldatu eta landu ahal izango du 7.000 biztanletik gorako herrietan

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Hiruko Gobernuak eta Eudelek akordioa sinatu dute, hilabete amaieran Eusko Jaurlaritzak Lurzoruaren Legea onar dezan. PSE-EEK eta Aralarrek ere legearen aldeko jarrera azaldu dute. Beraz, horrela gehiengoz onartuko litzake legea.

Hitzartu dute hemendik aurrera alkateek kontrolatuko dituztela euren herrietan egiten diren etxebizitza tasatuak eta lurren %20 mota horretako etxeak egiteko bideratuko direla.

HIRI ANTOLAMENDUA

Bestalde, 7.000 biztanletik gorako herrietan Hiri Antolamendu-

rako Plan Orokorra udalak berak aldatu eta landu ahal izango du, foru aldundien oniritziaren beharrik gabe. Jatorrizko testuak 10.000 biztanletik gorako herriei ematen zien Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu ahal izateko gaitasuna.

Biztanle gutxiago izan arren, aldundiek plangintza egiteko aukera eman diezaiekete udalei, baldin eta zerbitzu tekniko egoikiak badituzte eta euren esku lagatzea onartzen badute.

IRITZIAK

Etxebizitza sektoreko adituek alde onak eta txarrak ikusi dizkiote legeari.



Lurren %20 etxebizitza tasatuak eraikitze bideratuko dituzte.

GOIENKARIA

Deba Garaia higiezinaren agentziako Jesus Markaideren esanetan, "kontrola udalaren esku utzita tramiteak arinduko dira eta horrek epeak murriztuko lituzke. Higiezinaren agentei ez digu eragiten, baina promotoreen one-

rako izan daiteke, arriskuak eta kostuak jaitsiko liratekeelako. Hala ere, horrek ez du esan nahi etxebizitzaren prezioan eragina izango duenik. Bestalde, hirigintza arauak betetzen diren frogatzeko neurriak hartu behar dira".

Elgeta 21 elkarteko Edorta Silvak esan digu lege berriaren gainean ez duela argibide zehatzik, baina onurak eta oztopoak sumatzen ditu haren barruan. "Denbora tarte laburragoan egin ahal izango dira gauzak; gainera, alkateek herriko beharren gainean aldundiek baino gehiago dakite. Alde txarra da inguruan horrelakorik ikusi ez dudan arren, Marbellan gertatu bada edonon gerta daitezkeela iruzur urbanistikoa. Aldundiak zainduz gero, zailagoa litzateke".

Mireia Unamuno EHAKren Legebiltzarreko aholkulari antzuolarrak esan digu legea konplikatu dela eta prozedura ere nahasia izan dela. "Etxebizitzaren gainean aurkeztutako gai batzuk ez dira landu: etxe hutsena eta alokairuena, esaterako. Ongi deritzogu Hiri Antolamendurako Planen gainean hartutako erabakia, baina herritarren iritzia jaso bakarrik ez da egin behar, horrek loteslea izan behar luke. Bestalde, ez dugu ezer etxe tasatuen aurka, baina babes ofizialekoen kopurua gutxitu beharrean, libreena gutxitu beharko litzateke".



*Goza ezazu zure larruazal leunarekin*

Lirain, laser plataforma duen zentro bakarra.  
Aurrekontuak doan.



**LIRAIN**  
ESTETIKA-ZENTRUA

Bixente Ferrer 1  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 17

**EMAKUMEA:**

Goi ezpaina: 35 €  
Ile-zangoak: 50 €  
Kokotsa: 35 €  
Begiartea: 35 €  
Besapeak: 70 €  
Bikini linea: 70 €  
Izterrondoak: 105 €  
Alba linea: 35 €  
Beteak+izterrondoak: 420 €  
Erdiak: 175 €

**GIZONA**

Masailalboak: 35 €  
Begiartea: 35 €  
Bizkarra: 245 €  
Bularra: 140 €  
Bular+abdomena: 245 €  
Besapeak: 90 €  
sorbaldak: 70 €  
Bularra+bizkarra+besoak: 420 €

HERRIAK &gt; OÑATIKO ALKATEA TELEBISTAN

# "Autobus zerbitzua indartuko egingo dugu datorren urritik aurrera"

Oñatin turismoa hazten doan sektorea dela dio Lurdes Idoiaga alkateak eta mugikortasuna estrategikoa dela esan du 'Debarri' programan

OIHANA ELORTZA &gt; OÑATI

"Presaka sartu naiz, baina ondo nago", erantzun zion Lurdes Idoiaga Oñatiko alkateak kargu berrian zer moduz dagoen galde-tu zionean Alberto Gorritibereak. GOITBko *Debarri* programara gonbidatu zuen eguaztenean Albertok eta horixe izan zen egin zion lehen galdera. Hortik aurrera, herritarren kezkei buruz jardun zuten: golf zelaiaren proiektua, Ibarren egoera, Eteoren kokaleku berria, garraio zerbitzua, aparkalekuak...

AUTOBUS ZERBITZUA

Tranbiaren proiektuaz galdetuta, tranbia ongietorria izango dela esan zuen Lurdes Idoiaga, "eskualdera etorri behar badu, Oñatira ere etorri behar du. Baina mugikortasuna estrategikoa da Oñatin. Tranbia 2011-2012an etorriko da Oñatira eta bitartean autobus zerbitzua indartuko dugu. Aldundiarekin egin ditugu bilerak eta irail edo urritik aurrera inguruko herriak eta Zumarraga lotzen dituen autobus zerbitzu zirkularra jarriko dugu martxan. Donostiara eta Bilbora

ere joan ahal izango gara, baina Bergaran lotura eginda". Horrez gain, Bizkaibus zerbitzua Eteoko fakultatera iristea era gura-ko lukeela esan zuen.

Eteo aipatuta, bere kokaleku berriari buruz ere galdetu zioten herritarrek alkateari. "Oraindik larregi esatea da Eteo Ibarra joango dela, baina egia da luzaroan ezin duela jarraitu dagoen

ESANAK

**"Kiroldegiko aparkaleku batzuk saldu egingo ditugu"**

**"Tabernen ordutegia luzatzea gaizki iruditzen zait, jendeak ere bizi behar duelako"**

**"Kirolo instalazio berriaren tokia zein den pentsatuta dugu"**

tokian. Oraintxe ari gara aztertzen kokaleku berria zein izan daitekeen", erantzun zuen. Bestalde, Ibarren egoera txarra dela onartuta, kirol instalazio berriaren kokalekua nahiko erabakita ei dute dagoeneko, baina oraindik ez dagoela esateko moduan esan zuen Lurdesek. Egiten ari diren kiroldegi berriko aparkaleku batzuk, 12-20 inguru, saldu egingo dituztela esan zuen eta inguruko lehentasuna izango dutela. Olaiturrin ere aparkalekuak egin gura dituztela esan zuen, Aldundiak lurzoru hori utzitakoan.

GOLF ZELAIARI BALDINTZAK

Golf zelaia Mankomunitatearen proiektua dela gogorarazi zuen Lurdes Idoiaga. Onartu zuen Aldundiak baduela interesa kirol hori zabaltzeko, baina esan zuen ongietorria izango dela baldintza hauek betetzen baditu: Udalaririk diru askorik eskatzen ez badio, ingurumenari kalte handirik egin ez badio eta proiektuak baldintza onak baldin baditu.

Beste kontu batzuei buruz, berriz, bi urtean, babeseko 380 etxe egin behar dituztela esan zuen alkateak, tabernen ordutegia luzatzearen aurka dagoela, turismoa hazten doan sektorea dela eta Arrikruzteko proiektua martxa onean doala.



LURDES IDOIAGA Eguaztenean egon zen GOITBn Lurdes Idoiaga, Oñatiko alkatea, Alberto Gorritiberearekin.

o.e.

kontsumoa



Espainian, bizitza esperantza "osasuntsua" 72,6 urtekoa da. GOIENKARIA

## Europako bizitza esperantza altuena Espainiako emakumeek dute: 83 urte

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Osasun eta Kontsumo Ministerioak osasunaren gainean egindako txosten baten arabera, bizitza esperantza gero eta handiagoa da espainiarretan; horrek ez du esan nahi, ordea, bizitza kalitatea hobea denik. Izan ere, adinean aurrera joan ahala norbanakoa ezgai bihurtzen duten gaixotasunak agertzen dira: kardiobaskularrak, demenziak, erreumak, arnasketa arazoak...

Edozelan ere, Europako gainontzeko herrialdeekin alderatuta Espainiako emakumeek dira bizitza esperantza altuena dutenak: 83 urte; baina bizitzako azken 10 urteetan ezintasunen bat izaten dute. Gizonezkoen bizitza esperantza 76,3 urte da, eta ezintasunak azken 7,1 urteetan izaten dituzte. Beraz, batez beste bizitza esperantza *osasuntsua* Espainian 72,6 urte da.



## Santiago bideko aterpetxeen herena berritu dituzte

Oraindik 2010eko urte Xakobeorako denbora falta den arren, Santiago bidea indartuz doa. Gero eta gehiago dira oportetarako planen artean sartzen dutenak. Hori kontuan hartuta erromesen aterpetxeen herena berritu egin dituzte, zazpi aterpetxe berri zabaldu dituzte eta bi bakarrik itxi.



## Argindarraren prezioa berriz igoko da uztailean

Argindarrarengatik ordaindu beharrekoa %6 igoko da aurtun, uztailetik aurrera egingo den %1,5eko igoeraren ostean. Elektrizitate konpainien esanetan, erregai fosilen igoerak %57 igo du energiaren prezioa. Kontsumitzaile arruntendako aurtengo igoera %6 izango da, bi aldiz igo baita.

## Espainiarren %12k erosiko dute aurten etxebizitza

Aurten espainiarren %12 etxebizitza erosteko asmatan dabilta; %11k datozen hiru urteetan erostea aurreikusiko dute eta beste horrenbestek bost urte barru. Epe laburrean etxebizitza erosi nahi dutenen profilaria dago-kionez, 25 eta 44 urte bitarteko emakumezkoa dela esan genezake.

## Ziklomotor, auto arin eta 'quad'-endako ere azterketa tekniko

Orain arte derrigorrezkoa ez bazen ere, 50 cm<sup>3</sup>-ra arteko ziklomotorrek, hiru gurpildun ibilgailuek, gidabaimenik gabe erabil daitezkeen auto arinek eta *quad*-ek ibilgailuen azterketa tekniko egin beharko dute. Lehen azterketa ibilgailuak hiru urte betetzean egingo da; geroak bi urtean behin.



MALEN GORDOA

## Nazioarteko zuzenbidearen erronkak izan dituzte aztergai Oñatin, Gogoeta XXI taldearen jardunaldietan

Gogoeta XXI taldeak Lege Soziologia Institutuarekin elkarlanean jardunaldiak egin ditu asteon Oñatiko Unibertsitatean. *Subiranotasuna, sezesioa eta autodeterminazio eskubidea: Nazioarteko zuzenbidearen erronkak izenburupean* 50 lagun inguru elkartu dira bertan, tartean Kanadako Queen's Unibertsitateko Margaret

Moore eta EHuko Unibertsitateko Francisco Letamendia, gai horretan adituak.

Uztailaren 3tik 6ra artean Ipar Irlandako, Kolonbiako eta Euskal Herriko bake prozesuak aztertuko ditu Lege Soziologia Institutuak. Udako ikastaroan dira, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe, Alec Reid eta Juan Maria Setien.


> LIBURUA

## Jokin Intza jeltzale bergararraren memoriak kalean dira

Martitzenean, hilaren 20an, Sabino Arana Kultur Elkargok argitaratutako *Hombre libre sin patria libre. Memorias desde la resistencia vasca* liburua aurkeztuko dute, 19:30ean, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Jokin Intza jeltzale historiko bergararrak idatzi du eta Iñaki Anasagastik moldatu. Intza, Francoren garaian, Frantziara eta Venezuelara erbesteratu zuten. Venezuelan lan handia egin zuen euskal erresistentziaren alde, besteak beste Radio Euskadi eta Euskadi Irratia sortuta. Franco hil ostean itzuli, eta Donostian bizi da.



Jokin Intzak idatzi du liburua.



LIRAIN  
ESTETIKA-ZENTRUA

Bixente Ferrer 1 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 17

Endermologie LPG +  
Mesoterapia birtuala.  
(Liposukzioaren ordezkia)

DIAGNOSTIKO PERTSONALIZATUAK

EMAITZAK BERMATZEN DITUGU

## gure artekoak

**ALET** > Energia berriztagarrien instalazioak eskaintzen ditu enpresa horrek. Eguzki sistemen instalazio proiektu guztia egiten dute: ikerketa, diseinua, instalazioa bera, mantentze-lanak eta baita dirulaguntzak eskatu ere.

Haritz Etxaniz

## "Eskolak laguntza eman digu enpresa berria sortzeko"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Haritz Etxanizek eta Mikel Almortzak iazko apirilean sortu zuten Alet enpresa, Migel Altuna institutuaren, Urrats Bat programatik abiatuta. Energia berriztagarrien instalazioak dira lanaren oinarri, eta gero eta eskari gehiago dituzte.

**Urrats Bat programaren bidez sortu zenuten enpresa. Zer da Urrats Bat?**

Ikusita garai bateko ekintzaileren mugimendua itzaltzen ari dela asmoa da ikasleen artean enpresak sortzeko ekimenak bultzatzea. Bi bazkideok Migel Altunaren ikasitakoak gara eta beste lan batzuetan jardun ostean, gure kontura zerbait egitea erabaki genuen. Eskolak laguntza eman digu, batez ere administrazioari eta azpiegiturei dagokienez.

**Zergatik energia berriztagarriekin lanean?**

Energia berriztagarrien mundua nahiko berria da eta asko dago egiteko. Gainera, elektrizitate ikasketak egin ditugunez, badu loturarik ikasitakoarekin.

**Non eskaintzen dituzue zuen zerbitzuak?**

Eguzki indar bidezko energia berriztagarria saltzen dugu: argindarra sortzen dutenak dira



Mikel Almortza eta Haritz Etxaniz dira Alet enpresako bazkideak. MIGEL ALTUNA

## FITXA TEKNIKOA

## &gt; KLIMA ALDAKETA

Urtero egun eguzkitsua gehiago ditugu, eta horrek, neurri txikian bada ere, sektorea indartzen du.

## &gt; LEGEA

Irailean sartuko da indarrean Eraikuntzako Kode Teknikoa eta eraikuntzak derrigortuta egongo dira eguzki plakak ipintzera.

## &gt; URRATS BAT

Programaren barruan lau enpresa sortu dira: Atari, Sitalu 2001, PK Injekzioa eta Alet.

batzuk eta ura berotzen dutenak besteak. Erabilera asko izanik, enpresei, baserriei, ikastetxeei... eskaintzen diegu.

## Lehia handia dago?

Badira enpresa batzuk, baina gai honetan bakarrik jarduten dutenak apenas. Hala ere, eskariak handituz doaz; beraz, pixkanaka antzerako enpresa gehiago sortuko dira.

## Etorkizunerako asmoak?

Enpresa bera eta sektorean gure lana sendotzea; baita eskola utzi eta gure kontura hastea.

## etxeke leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

## Bainua eta eguzkia hartzera, kanpora

Bergaran ez dugu kanpoko igerilekurik edukiko urteetan. Izango ditugu barrukoak, dotore askoak, sauna eta jacuzziarekin; gimnasioarekin... Irailean zabalduko dute Agorrosin kirol-gune berria. Gero, hurrengo udarako, kanpoaldean egokituko dute berdegunea, eguzkia hartzeko, dutxeekin-eta. Oso ondo, baina kanpoko igerilekurik ez. Hanka-sartzea iruditzen zait eta pena handia ematen dit.

Bergarakoak izan ziren Gipuzkoan ireki zituzten lehenengoetako igerilekuak. Estaliak lehenengo eta kanpokoak ondoren, igerileku olinpiko, taberna eta eguzkia hartzeko belardi zabalarekin. Udako arratsalde piloa igarotakoak gara han. Eta ez bakarrik bergararrak, sasoi batean jende asko etortzen baitzen inguruko herrietatik. Uztail eguzkitsuetan oso zaila izaten zen toaila jartzeko tokia topatzea.

Orain, ordea, bat-batean, erabaki dute ez egitea kanpoko igerilekurik. Dirua ei da arazo. Erabaki okerra, udarako aukerak murrizten dituelako. Zer egingo dute batez ere herriko gazteek ekainetik irailera, Saturrarana edo Garaioa joan? Primeran! Gero kezkatuko gara inor ez dabilelako herrian.

**> Txarto kudeatu du igerilekuaren kontua Bergarako Udalak. Baina ahalegina egin beharko luke hurrengo udarako kanpoan igerilekuak jartzeko, umeendako txikia besterik ez bada. Eskoriatzan badaude.**

**> Usabaleko kirol-guneak, Tolosan, dauka barruko eta kanpoko igerilekuak, kiroldegiak, belar artifizialeko futbol zelaiak... 5.000 abonatu dituzte. Egia esan, sekulako inbidia ematen dit.**

**"Zer egingo dute herriko gazteek ekainetik irailera, Saturrarana edo Garaioa joan?"**

## begi-bistan



### Santa Ana auzoa lainoan (Eskoriatza) 2006/06/13

Argazkia: Pedro Lasagabaster.  
Testua: Pedro Lasagabaster.

Eskoriatza hauts laino batek estali zuen martitzenean. Autobideko lanak dira horren arrazoiak eta kezka dago herrian. Kaltetuena Santa Ana auzoa izan zen eta bertan liburutegia eta eskola daude.

## Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Itziar Astiazaran**  
FARMAZIALARIA



**Maite Aristegi**  
NAZIO EZTABAIDAGUNEA



**Juan Martin Elempuru**  
IDAZLEA

Nafarroako Unibertsitateko Farmazia Fakultateko dekanoa eta irakaslea da Itziar Astiazaran aretxabaletarra. Farmaziako Errege Akademia Nazionalan sarrera hitzaldia egin berri du. 23 ikerketa proiektutan hartu du parte eta hainbat liburu idatzi ditu

Nazio Garapen Bilzarra aurkezteko kanpaina egiten ari da Nazio Ertabaidagunea. Kanpainako ekimenetako bat Bergaran egingo dute eta Maite Aristegik hartuko du parte besteak beste. Herriko alderdi politiko, sindikatu eta eragileekin ere harremanetan dira.

ETBren misteriozko lehen telesaila, *Balbemendi*, ari dira grabatzen Artikutzan. Idazle eza-gunek jardun dute gidoilari lanetan, tartean Juan Martin Elempuru idazle bergararrak. Eta telesailako protagonista Edurne Azuara Bergarako aktorea da.



Azken zortzi hilabeteetako joerari jarraituz, maiatzean ere igo egin zen euriborra, 2002. urtetik honako punturik altuenera iritsita, %3,3. Ekainean ere igo egingo dela uste dute adituek eta igoerak noiz arte jarrai dezakeen ezin dute esan, baina urtea bukatu orduko %4tik gertu ibiliko dela diote askok. Etxebizitza ordaintzeko dutenendako ez da albiste ona.

Urko Lopez > Ekonomia irakaslea

# "Euriborrak gora egin arren, ez da etxebizitzaren arazoaren errudun soil"la"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Euriborraren azken igoerarekin ateratako kalkuluen arabera, 120.000 euroko kreditua 20 urtetan ordaindu behar duenak 62 euro gehiago ordaindu behar ditu hilean iazko interesekin konparatuz. "Baina egun 120.000 euro baino gehiagoko kreditua dute gehienek", gaineratzen du Urko Lopez ekonomia irakasleak.

**Euriborrak igotzen jarraituko duela uste duzu zuk ere?**

Inflazioak gora egiten duen bitartean, oso normala da interes tasek ere gora egitea inflazioari eusteko. Hainbat adituk diotenez jarraitu egingo du igotzen eta nahiko modu bortitzean, gainera; orain %3,3an dago, baina urte bukaeran %4ra irits daitekeela uste dute.

**Posible da hori?**

Bai. Ez da alarmista izatea, errealista baizik: inflazioak gora egiten badu, interesek ere gora, eta baita euriborrak ere. Ez da proportzionala, baina batera doaz, gehienetan, behintzat. Azken baten, inflazioari eutsi nahi diote, eta inflazioa horrela murriztu nahi dute. Orain arte funtzionatu egin du formula horrek, baina hipoteketan eta beste era bateko maileguetan ondorio nabarmenak uzten ditu.

**Bizimodua garestituz doa?**

Bai eta ez. Interes tasak igotzen dira bizimodua ez garestitzeko, prezioak gora ez joateko. Baina esango nuke arriskutsuena ez dela inflazioari eustea, baizik egungo etxebizitzaren prezio joera mantentzea. Azken 10-15 urteotan oso modu bortitzean egin du gora etxebizitzaren prezioak eta arazo handiena horiek ordaintzea izango da.

**Euriborraren igoerak etxebizitzaren prezioak jaitsiko ditu?**

Logika erabilita, leundu egin beharko luke etxebizitzaren prezioak, baina batek daki etorkizunean zer gertatuko den.

**Momentu ona da orain etxebizitzak erosteko?**

Nik itxaron egingo nuke, ez dakigulako euriborrak noraino igoko duen. Jende asko egongo da erosteko irrikan, baina egoera ez da munduko onena.

Saltzaileei, aldiz, lehen baino gehiago kostatzen zaie orain etxebizitzak saltzea. Jendea banketxera joan denean kredituari buruz



Oñatiko Eteo ikastetxean irakasten du ekonomia Urko Lopez zornotzarrak.

**Euriborrak gora egin ahala, maileguak luzatzen joango dira banketxeak?**

Kontua ez da soilik bizitza osorako mailegua eskatzea, banketxeak ere diru hori kobratuko duen bermea izan behar du.

**Norendako da ona eta norendako txarra egoera hau?**

Hipoteka ordaindu behar duenarentako, noski, txarra da, baina uste dut onuradunak ez dagoela: ordaintzen ez duena etxebizitzarik gabe gelditzeko arriskuan dago; banketxe batek ez badu hileko kuota kobratzen, etxebizitza bereganatuko du, baina hori ere arazoa izan daiteke berarentako; gero eta jende gutxiagok erosiko du etxebizitza, gero eta garestiagoa delako. Horrek esan nahi du banketxeek mailegu gutxiago emango dituztela, eta hori ez da ona. Eta erdian herritarrok gaude.

**Nola ulertu behar da inflazioa?**

Arazorik larrienetakoa da; inflazioaren atzean krisia egoten da kasu askotan. Duela urte batzuetako krisitik abiatuta, zuhurtasun handia egon da beti eta horrela jarraitu beharko dugu aurrerantzean ere.

**Interesak gora, KPI gora, baina soldatak mantendu egiten dira. Jendea larri dabil.**

Soldatak ez dira proportzio berean igotzen, bizi maila eta maileguak altuagoak dira eta jendea estu dabil, bai.

**Zer izan behar du kontuan kreditu bat eskatu behar duenak?**

Simulazioak eta kalkuluak ondo egin behar ditu eta horrekin batera, etorkizuneko joerak ere kontuan izan behar ditu. Hau da, ezin du antolatuta bizimodua hilerok ordaindu behar duen kopuru horren barruan, kopuru hori aldatu egin daitekeelako. Eta horrez gain, pazientzia izateko esan nahi diot.

**Sasoia ona da burtsan inbertitzeko?**

Gorabehera handiekin dabil, baina auskalo, ondo jakin egin behar da non komeni den dirua sartzea eta non ez.

**Egonkortuko da ekonomia?**

Ekonomiak beti izango ditu gorabeherak eta jakin behar da nola egin aurre. Historiak ere horixe erakutsi digu eta hori izango da bere egoera naturala.

informatzera, ikusi du zenbat ordaindu behar duen eta zenbat ahal duen. Gainera, ez dago banketxetara joan beharrik, euren web orrietan simulazioak egiten dituzte eta jakin dezakezu hilean zenbat ordaindu behar duzun.

**Kreditu finkoa hobea izango da hemendik aurrera?**

Norberak aukeratu behar du hori. Interes tasa finkoa euriborra baino altuago izatea normala da, baina ikusi behar da kontsumitzaileak zer joera hartzen duen aurrerantzean: sorpresarik ez izatea eta hilerok kopuru bera ordaintzea, edo pixka bat arriskatzeta.

**Petrolioak du errua?**

Errudun asko daude. Petrolioak izan daiteke bat, baina konturatu behar dugu lehen ere etxebizitzak oso garesti zeudela. Beraz, inflazioak errua izan dezake euriborraren igoeran, baina

INFLAZIOA

**"Inflazioari eusteko igotzen dute interes tasa, baina ondorio gehiago ditu horrek"**

EURIBORRA

**"Euriborrak igotzen jarraituko du eta %4ra irits daiteke urte bukaerarako"**

ETxebizitzak

**"Orain ikusiko da egoera horrek etxebizitzaren prezioak egonkortuko dituen edo ez"**

ez dugu egoera horren errudun bakarra aurkitu behar, asko baizik. Etxebizitza salmentan ze margen ateratzen den ere ikusi behar da, adibidez, etxebizitzaren arazoa ulertzeko.

**Nola eta noiz bukatuko da etxe agentzien burbuila?**

Europak aspaldi esan zuen arriskutsua zela eta ez tanga egin zezakeela egoera horrek. Izan beharko luke bukaera, baina ez dakit posible den esatea noiz gertatuko den hori.

**Prezioak jaitea da bukaera?**

Egonkortzea nahikoa da. Jaitzen badira, guztiondako izango da hobeto, baina egonkortzea ere ez da txarra. Europako beste herrialde batzuetan, adibidez, etxebizitza jabetzan izatea baino gehiago, alokairuan izateko kultura dago eta uste dut hemengo egoera ezin daitekeela herrialde horiekin konparatu.

O.E.



zabalik

Goiatz Arana

## Bezeroak ez du beti arrazoia

**P**olita da taberna batean jardutea: jendeari eskatu duen hori atera, kontu batzuk esan... Bada jende atsegina, eta horiek kafe bat edo ardo bat hartzeko duten tartea zerbitzariarekin konpartitzea plazera da honentzat. Nagusiagoak edo gazteagoak direnekin hitz-aspertuak egitetik ikasi egiten du batek, gainera.

Ordea, taberna bateko barra atzean jarduteak ematen du beste ikuspegi bat ere, jendearen ez hain alde ona ezagutzeko aukera eskaintzen duena. Eta horri buruz hitz egitera nator.

Badira tabernara jo eta tragoa ordainduta edozer esan eta egin dezaketela uste dutenak. Barraren atzean dagoen horri lanak nola egin esatea edo, ez hain modu onean, zirika hastea gustuko dutenak. Barruan dagoenak pentsatzen du orduan: "Bere buruarekin dauka nahikoa, tabernara etorri eta egiteko hoberik ez badu". Kontra eginez gero laster ematen dute sententzia, baina: "Bezeroak beti du arrazoia", esan, hori eztabaida ezina balitz moduan. Ez ba! Mostradore atzean dagoen hori ere pertsona da, bezeroak errespetatzeko egin beharra duen moduan errespetatua izateko esku bidea duena.

Bezeroek utzitako diruaz bizi da tabernaria, zaindu behar ditu, eta zenbaitetan toleratu. Sosik gabe jai dago, bai, baina ez da dena. Gustura eta lasai, atetik sartuko den bezero horrek esango duenaren beldur barik lan egiteak gehiago balio ez ote duen nago ni. Ez dezala gero bezeroak pentsatu zerbitzariak buru-estima galduko lukeenik, euro batzuk gorabehera.

Bezeroak beti du arrazoia? Izan lezake, baina ez du zertan. Bezero izate hutsak ez darama berekin arrazoia.

**"Errespetatu eta errespetatua izan behar du zerbitzariak"**

**"Bezero izate hutsak ez darama berekin arrazoia. Izan lezake, baina ez du zertan"**

## herritarrak galdezka

**ARRASATEKO MONTEIRON JAUREGIAREKIN ZER EGIN**  
**Arrasatear batek bidali digu mezu bat posta elektronikoz galdetzen ea Udalak erabakita daukan zer egin Monterron jauregiarekin: "Joan zen asteko GOIENKARIAN gustura irakurri nuen kultur etxe berriaren gaineko erreportajea. Hala ere, zalantza bat geratu zait. Kultur etxe berria zabaltzen dutenean, zer erabilpen emango diote Monterroni?" dio irakurleak.**

Erantzunaren bila Jon Garai Arrasateko kultura teknikarengana jo dugu eta erantzun digu oraindik erabakia hartzeke dagoela, baina Udalak eskatu duela azterketa bat egitea Monterronen udal artxiboan jartzeko. Kokapen egokia den ala ez, lekuetara iristeko neurriak beteko dituen ala ez...

Arrasateko Udala aztertzen dihardu artxiboarendako toki egokia zein izan daitekeen. Izan ere, orain arte agiriok udaletxe-ko sotoan gordeta izan dira, baina orain dela pare bat urteko ur handiek agiriok busti eta hondatu zituen eta horiek errekupeartzeko lanetan jardun dute hila-beteetan.

**BERGARAKO SAN MARTZIALGO ERROMERIA**  
**Uztailaren 2an ospatuko da Bergaran San Martzialgo erromeria eta horren harira zenbait herritarren deiak jaso ditugu, mahaiak alokatzeko epea zabalik ote dagoen galdezka.**

Udaleko Kultura Zerbitzuak oraingo astean jakitera eman duenez, mahaiak eta aulkiak alokatzeko epea ekainaren 19tik 26ra

bitartean izango da zabalik. Interesatuek Kultur Etxera, Errotalde jauregiara jo beharko dute, 17:00etatik 19:00etara. Mahai bakoitzaren alokairuak 20 euro balio du (eskatzaile bakoitzak ezin izango du bost mahai baino gehiago eskatu) eta horrez gain, eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da. Erromeriaren osteko astean, uztailaren 3tik 7ra bitartean, izango da fidantza jasotzeko aukera.

Bestalde, erromeria egunean herri jolasak antolatzen dituzte. Laguntzeko gertu direnek 943 77 91 59 telefonora dei dezakete.

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:


- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

**SAN JUANETAKO MAKALA**  
**Badatoz Arrasateko San Juan jaiak eta herritar batek aurten makala ipiniko duten jakin gura du.**

San Juan jaietako ikurretako bat, makala, egubakoitzean, hilaren 23an, plaza erdian jarriko dute. Beste urte batzuetan Udalak izan du horren ardura baina aurten ere, iaz bezala, koadrilek igoko dute makala, San Juan bezperako herri bazkariaren ostean.

## marraskiz

Alex Ugalde



## Goienkaria

**Argiraratzaila** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarría **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldgi **Oinarritzko diseinua** Goia Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martínez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

OID erakundeak  
ikuskatutako astekarria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## Mr. Nastase eta Mrs. Barbra

Edu Mendibil  
www.goiena.net/blogak/edu

**G**ehienetan jasanezina gertatzen zait baina Barbra Streissand aktoreari kariñoa diot bi arrazoirengatik: *What's up, doc?* filma protagonizatzeagatik eta *The way we were* film eta kantu ederrengatik. Aurrekoan chipionera famatuena hil zenean zera entzun nion Almodovarri: Rocío Barbrarekin konparatzerik

zegoela bakarrik. Ez dakit hala izango den. Dena dela, ospetsuren bat hiltzen den bakoitzean lehiaketa antzeko bat egoten da, ea nork esaten duen hildakoaren omenezko boutaderik handiena.

*Barbra: the way she is* biografia *no autorizada* horietako bat kaleratu berri dute orain. Zalantzarik ez, biografia baten promozioaren mesedetan egin daitekeen gauzarik onena *no autorizada* dela esatea da. Eta liburuaren protagonistari kaña sartzen badiote, edo ohe asuntoak azaltzen badira, ñam ñam negozioko pirañendako.

Liburuaren arabera Barbraren maitaleen zerrenda ez da makala: Warren Beatty, Steve McQueen, Ryan O'Neal, Robert Redford, Jon Voight, Omar Sharif, Richard Gere, Don Johnson, Andre Agassi, Charles Ingalaterrakoa, Dodi Harrodsekoa, Clinton Etxe Zurikoa... Barbraren gaineko komentario maltzurak ez dira falta morboa pizteko. Curriculum luze horren ondoren Hoteleko gerente izandako James Brolinekin ezkondu dago Barbra orain, eta aspaldian erretiratuta samar dago.

Ohe kontuetan erraza da exagerazioetan jaustea.

plazara

Serbiatikaldentzeko Montenegrok egindako erreferenduma aitzakia hartuta, herriek beren buruaren jabe izateko eskubideaz dihardu artikuluaren egileak. Beste herri batzuek eskubide hori aintzat hartu eta erabili duten moduan euskaldunok ere badugula dio. Erreferendumetan aldeko botoen batez bestekoaz ere badihardu, azken finean oso garrantzitsua delako muga non eta nork ezartzen duen.

Karlos Ormazabal \*

## Burujabetza aldarrikapenaren gainean

Aitzairuzko oihala erori zenetik ona, hainbat herri beren nortasuna berreskuratzen ari dira, mendebaldeko estatuek "zalantzazko demokraziak" direla pentsatu arren (desagertutako URSS eta garai bateko Jugoslavia), hauek munduari erakutsi nahi izan diote zein den demokraziaren funtsa nahiz eta herrien nazioarteko aitortpenari baldintzak jartzen dizkietenak besteak izan. Europar Batasunaren kasua da Montenegroko erreferendum independentistan.

Europar Batasunak, gutxieneko emaitza bat eskatzen zuen, %55ekoa, galdeketa baieztatzeko.

Oso esanguratsua da mendebaldeko errotutako demokraziak muga nahita igo izana, herriaren gobernuak izan behar lukeenari, hau da, erdia gehi bat, herri bat dela aitortu ahal izateko.

Zergatik daukagu susmoa mugak ez direla besterik gabe ipintzen? Edo bai?

Hiru balizko kasutan oinarritzen da autodeterminazio eskubidea Patxi Lopezen arabera: koloniak, zapalduak eta ordezkaritza instituzionalik gabekoak direnean. Euskadi ez badago hiru kasu hauen artean, Montenegro ere ez.

Eta koloniei buruz hitz eginez, autodeterminazio eskubidea onetsiko zaie Ceuta eta Melillari? Dakigunez, Perejil irlako ahuntzak ez daude erroldatuak.

Montenegroko kasuak mahai gainean jarri duena zera da: "besteentzat aholku asko, baina ni utz nazatela bakean". Ez dute beren lurraldeetan onartzen "Herrialdeetako Europan" sar daitezkeen onartzen zaiena.



MIKEL ARROIABE

Listoiekin jarraituz eta estatu espainoleko etxeko lanei dagokionez: argi dago berdina zaiela. Orain arte kontuan hartu ez den Estatu bakarra euskaldunona izan da. Kataluniakoa "zepillatua", Andaluziakoak eta Balentziakoak aurrera egingo dute. Zein puntutan datoz bat denak? Ez da portzentaje kontua, hiru hauen artean komunean dagoena, PSOEk baiezkotzea ematea edo bere laguntza eskaintza izana da. Balio ez duen bakarra, bera ez dagoen hura da, euskalduna. Demokrazia ulertzeko modu xelebrea.

Kanpo Harremanetarako Europar Batasuneko Goi Komisariatuak, *Mister Pesc* jaunak (Solana) Montenegrorekiko konparaketa burugabekeria dela esan du.

**"Estatu espainolaren barruan burujabetza aldarrikapenari dagokionez, Euskadi da gakoa"**

**"Patxi Lopezek ez ote du pentsatuko estatu espainola paleolito aroko granitozko harkaitz baten gainean eraikia dagoela?"**

Ez dut zalantzarik bera dela %55 "demokratiko" horren bultzatzaile nagusi edo nagusienerikoa, bere benetako demokrazia estatu espainolean ezartzeak izan ditzakeen ondorioak zer nolakoak izan daitezkeen kontuan hartuta. Eta estatu espainolaren barruan burujabetza aldarrikapenari dagokionean, Euskadi da gakoa.

2005ean Euskal Legebiltzarra aukeratzeko azken hauteskundeak kontuan hartzen baditugu, alderdi nazionalisten legebiltzar-kideen batura 39koa da, erakundearen osaketaren %52a hain zuzen ere. Honi, Ezker Batuko hirurak gehitzen badizkiogu (hauen erdia federalistagoa dela kontutan izanik) 42ra pasatzen gara. %56a!

Solanak badu portzentajea. Ez arbitrarioa ikusarazi nahi diguten bezala, PSOEk agindutako jarraitzen diona baizik.

Montenegrori eskatutako %55ak, Euskadiri aplikatuz, PSE-ren partehartzea eskatzen du. *Misión Imposible IV* geure etorkizuna erabakitze eskubidean sinesten dugun euskaldunontzat.

Patxi Lopezek ezetza ematen die euskaldunon autodeterminazio eta lurraldetasunari. Baina, askoz urrunago doa bere zoritzarrezko esaldi batekin. Dioenez, ezin da XXI mendea eraiki XVII edo XVIII mendeko adreiluekin.

Ez ote du pentsatuko estatu espainola paleolito aroko granitozko harkaitz baten gainean eraikia dagoela?

\* Karlos Ormazabal aholkularia eta EAJko kidea da

zer deritzo zu?

www.goiena.net

### Euskadi ondo ariko litzateke Mundialean?

BAI	%75
EZ	%25

> TXUKUN

Ez luke paper txarra egingo, nahiz eta duela urte batzuk baino talde eskasagoa izan. 1998 eta 2002ko Mundialetan bai zeuden euskal jokalariek irabazteko: De Pedro, Guerrero, Mendieta...

Galder

> RIDIKULUA

Espainiak ridikulu egiten badu Mundialean Euskadik beste horrenbeste egingo luk, Euskadiko jokalaririk onenak bertan baitaude.

Ruben

> ESPAINIA BAINO HOBETO

Espainia baino aurrerago ailegatuko litzateke. Talde lana hobeto egingo luke Euskadik eta borrokatuz aurrera iritsiko litzateke.

Pele

> UTZ GAITZATELA

Utz gaitzateela Euskal Herriko zazpi probintzieta-ko jokalarien artean aukeratzeko eta behar den bezala prestatzen, eta ikusiko dugu talde lehiakorra egiten dugun edo ez!

Riki

**DATORREN ASTEKOA: Arreta handiagorekin gidatuko duzu aurrerantzean?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

top

Gaurko *El País* egunkarian Ilie Nastase tenis jokalaria ohiari eta sinpatikoari egindako elkarrizketa dator. Orain dela urte batzuk *Mr. Nastase* izenburuko biografia kaleratu zuten eta zeresan handia eman zuen orduan, Nastasek 2.500 emakumerekin oheratu izan dela aitortzen omen zuelako. Manel Serras kazetariak horren gainean galdetzen dio. Eta Nastasek: "Kazetariak galdetu eta 400 bat emakumerekin oheratuko nintzela erantzun nion. 60 urte izanda ez dira horrenbeste. 40 urtetan 400 emakume, 10 emakume urtero. Kazetariak ezet,

gehiago izango zirela, 800 bat. Eta azkenean 2.500 emakume zirela idatzi zuen".

### Txina, arkitekturaren abangoardian

Zigor Aldama  
[www.berria.info/blogak/zigor](http://www.berria.info/blogak/zigor)

Oraindik askok pentsatzen dute txinatarrak horiak direla, kapela konikoa erabiltzen dutela eta Harresi Handian ibiltzen

direla, batera eta bestera. Etxebizitzetara dagokienez, herensuge beldurgarriez apaindutako teilatu bereziak dituzten eraikuntzak datozki-gu burura. Baina errealitatea oso bestelakoa da.

Txinatarrak ez dira horiak, ez dabilta korrika Harresi Handian, eta gehienek ez dute kapela konikorik erabiltzen. Hori gutxi balitz, eraikuntza tradizionalak desagertzen ari dira, eraikuntza moderno bultzada geldiezin baita.

Horrela, munduko arkitekto ezagunen bilgune bihurtu da Txina.

koplak

Arantzazu Loidi

### Eskoriatza, hauts artean

Eraiki nahian hortxe dabilta autopistaren ardatza hilabeteak falta dira ta erruki, Eskoriatza!

Euskal Herriko tunel luzeena omen gutxi gorabehera hango hauts eta harri-koskorak geu irensten ari gera.

Gero esango dute badela alergia eta asma hauts-arte honetan sano bizitzen nola genezake asma?

Erkotx zintzilik, pinuak zuri kaleak zuloz josita, dena batera "konpondu" nahia ez da ideia polita.

Zanga ireki, zanga estali eta berriro zulatu eguna joan eguna etorri ezer gutxi da bukatu

Zentzu gehiagoz egin liteke asfaltoa ta bidea, entzungo balitz behar bezala herritarren ONBIDEA.

## Gelmari buruz

**Inazio Lakuntza** (Arrasateko alkatea)  
Arrasate

Umiltasuna da azken urteotan alkate naizenetik jaso dudana lehen ikasbidea eta, gainera, garrantzitsua, gauzak ondo eta sen onez egiteko ahalegin handiena egin eta gero, garrantzirik gabeko, arrasatearrok jokatzeko dakigun moduan, beti ateratzen zaizkit ahots batzuk kontra, eta ez dut lortu horiek pozik uztea.

Eta ahots horiek, batzuetan, salaketak egiten dituzte. Lehen iruditzen zitzaidan ez zela garrantzitsua horiek erantzutea; izan ere, nire ustez ez ziren sinesgarriak, sinestekoak, baina oraingoan azaltzeko ordua iritsi zait, eta ahalik eta garbieraz azalduko dut, zeuok ikusi dezazuen hartu ditugun erabakiak denen onerako eta onurarako diren edo ez.

Historia hasi zen oraingo udalbatza hona etorri baino lehen, 2000-2002 urtean-edo, Gelmak negoziatu zituenean Udalarekin Egitamua Orokorrean sartu beharreko aldaketak, enpresa Arrasaten mantentzeko. Hainbat bilera egin zituzten Gelmako zuzendaritzako kideekin, Enpresa Komiteko kideekin eta oposizioeko EAJ eta PSE-EEko zinegotziekin eta EBko zinegotziekin (Gobernu Batzordeko kidea zen, baina aldena egin zen erabakitik) eta PPren oniritziarekin, urteetan txertatuta zegoen egoera desblokeatzeko. Bilera horiek bukatu zituzten 2002ko abenduaren 13an, 2002ko urriaren Egitamua Orokorra hasiera batean onartu ondoren eta zain geraturik Udala Foru Aldundiak onartzeko.

Enpresa Komiteak, lanpostuak Arrasaten mantentze alde, eskatu zuen bileran, eta geroago eskatu zion diputatu nagusiari berari, hirigintza hitzarmen bat sinatzeko aukera Gelmarekin, Arrasaten lantegi berri bat eraiki ahal izateko, eta horretarako onartu beharra zegoen orduko udalbatzak planteatutakoaren beste aprobetxamendu bat.

Udal berria eratu eta gero, Udala prest dago Egitamua Orokorra aldatzeko, 2002ko abenduaren 13an erabakitako hitzetan, aprobetxamenduak handituz, eta sinatu zuten Gelma lantegia eramateko oraingo egoerara, lanpostuak mantentzeko konpromisoarekin, Enpresa Komitearen eskaeran aldarri orokor eta zehatz bati erantzuteko.

Hitzarmen horrek ezarri zuen %70eko eraikigarritasuna etxebizitza libreetan eta %30ekoa BOE-erako, eta aurrea hartu zion EBek aurkeztu duen Lurzoruaren Legeari eta bat

## EAK gobernuan segituko du

**Jose Luis Aranburu** Arrasateko EAKo juntako presidentea > Arrasate

**G**elmako etxeen gainean argitaratu diren albiste ugariak direla-eta, Arrasateko Eusko Alkartasuneko juntak eta Udaleko zinegotzi taldeak erabaki du lanean segitzea buru den Udaleko batzorde informatzaileetan eta Gobernu Batzordean. Agian, leporatu ahal izango zaigu betidanik euskal enpresa buruei leporatu izan zaiena, alegia, onak garelako fabrikatzen baina ez hain onak saltzen. Azkenaldian boladan daude iritzi artikulak eta prentsaurrekoak, batzuk ez beharko luketen zorrotasunez eginak, eta batzuetan kontraesankorrak. Hori ez da gure berezitasuna.

Gai honen gainean, zera argitu nahi dugu:

1. Alderdi politiko guztiak, batek izan ezik, onartu zuten 2004ko otsailaren 23an Udalaren eta Gelmaren arteko hitzarmena. Eta inork ez zuen eskatu txosten tekniko eta ekonomikorik hirigintza-aprobetxamenduaren gainekorik, berau ezarri zenean %10ean (2.454.534 euro). Orain, ostera, badirudi kopuru hori ez dela nahikoa eta Udalaren kaltetan doala. Arazo honen erantzule nagusia, azalpenak eman ez izanagatik, hirigintza batzordeko buru den EAJ da, baina erantzukizuna dute osoko bilkuran txostenek eskatu ez zuten gainerako taldeek, baita EAK ere.

2. Arazo hau ez da konponduko herritarren aurrean irudi ona erakustegatik batzorde informatzaileetatik eta gobernu taldeetik alde egiten. Alderdi bakoitzak dauka bere erantzukizuna eta arazoa ahalik eta ondoen konpontzea da kontua.

3. EAK jarraituko du lanean batzorde informatzailearekin eta Gobernu Batzordean. Gelmako etxebizitza-sustatzailarekin Udalak egingo dituen negoziaketetan parte hartuko du soluzio egokia topatze aldera. Gobernu Batzordean (gaur egun 6 kidek osatzen dute, EAJko lauk eta EAKo bik) egon daitezkeen iritzi ezberdinetan, erabakigarria izango da EAKo bi zinegotzien iritzia. Horixe da gobernuan jarraitzearen beste arrazoi bat.

dator Legearekin, alderdi horretako zuzendariak katalogatu zutena oso aurreratutzat, baina une honetan alderdi horixe da udal gobernuaren kontra ari direnen burua.

Hitzarmenak aurreikusten du ere Gelmako bulegoen eraikina lagatzea Udalari; eraikin esanguratsu horretan egingo genuke Arrasaterako jarduera erreferentzial bat, bai eta horrelako hitzarmenen berezko hirigintza baldintzaile batzuk ere.

Hitzarmen hori sinatzeko, abiapuntutzat hartu genuen udaleko zerbitzu teknikoan egindako azterketa bat. Hitzarmena sinatutakoan, Gelmaren zuzendaritzak sozietate sustatzaile bat eratu zuen, Obenerreka izenekoa, eta hari transferitu zitzaizkion Gelmaren aprobetxamenduak.

Hitzarmena kokaturik dago etxebizitzaren prezioaren aurka borrokatzeko Udalak hartutako erabakian, ia 2.000 etxebizitza eraikitzea, ahalik eta modalitate gehien erabiliz, babes ofizialeko etxeak, tasatuak, alokairukoak, kooperatiban eginak eta prezio librea. Babes Ofizialeko Etxeak batez ere doaz Cerrajeran eta Gelman, alokairukoak Cerrajeran eta abar, eta komeni da adieraztea Polmetasan eraiki beharreko etxeetarako, akordio bat dagoela prezio mugatuan saltzeko.

Salatzen dute ere Udala eta, zehazkiago, niri salatzen didate baimendu izana obra hasi dutela zero kotaraino eta lizentziarik gabe, eta lizentzia hori eman nuen udalerrietan nahiko zabalduko dagoen praktika bati jarraituz, eta hori ematen dugu PERIa eta hitzarmena sinatuta daudenean eta bakarrik xehetasun batzuk falta direnean. Onartzen dut agian arinegi ibili naizela, nahiz eta uste dudana ez zela ezer aldatuko sortu den arazoari buruz, prezioari dagokionez, izan ere, PERIa eta hitzarmena onartuta zeuden.

Etxebizitza librerako, Gelma aldea sustatzen duen Obenerrekako jabeak saltzen atera ditu etxeak batez beste 5.000-6.000 euro/m<sup>2</sup> inguruan, eta aitortzen dut prezio hori orduan garaian egindako kalkulak baino askoz handiagoa dela.

Prezio hori kokatzeko, komeni da gogora ekartzea gaur bertan erdialdean prezio horretako transakzioak egiten ari direla, 55 metro koadroko etxea 330.000 euro. Halaber, aztertu baino ez dago herriko inbiliaria batek argitaratzen duen bigarren eskuko etxeen prezioen eboluzioa, eta ikusiko dugu lortzen dutela 3.200 euro/m<sup>2</sup>. Horixe da gaurko egunean etxearen prezioen errealitatea.

Bien bitartean, Udalak

jardungo du eragin dezakeen esparru edo gunean, hasitako talka politikarekin jarraitzea, aukera gehiago irekitzea, etxe bat edukitzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat, erosteko edo errentan hartzeko prezio duinetan.

Gure proposamena da destinatzea dauzkagun bi zoru publikoetan, Cerrajeran alokairuko etxeekin eta Atxabalpe aldean, hasierako asmoa aldatu dugu, lurzorua saltzea sustatzaile pribatuei, kiroldegia finantzatzeko, eta enkantean jarritz, Babes Ofizialeko Etxe, etxebizitza tasatu edo, pertsona talderen bat animatuz gero, etxebizitzaren kooperatiba moduan erabiltzeko.

Gure asmoa hasieran ez da apurtzekoa, baizik eta negoziatuzkoa, eta ahalegina hortik doa, jarraitzea negoziatzen sustatzaileekin konpentsazio hobekak Arrasaterentzat, formula berriak hartuko dituen, adibidez, are gehiago gehitzea etxebizitza sozialaren proportzioa. Alternatiba horiei buruz joan den ekainaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarrean hitz egin genuen.

Gaiarekin bukatzeko, aurre egin nahi diot egin didaten salaketa bati, eskutitzetan eta izenik gabeko idatzietan; norbaitek uste badu aberastu egin naizela edo onurak jaso ditudala lizentziaren baten zentimo bakar batekin, ez nau ezagutzen inola ere, eta ez daki nire konbentzimendu osoaren berri kooperatiba mugimendua- ren baloreetan, horri eman diot nire bizitza profesional osoa, alkatetzara honetara iritsi arte.

Jarraitzen dut pentsatzen Arrasate dela ilusioa sortzen duen proiektu bat, batzuetan gogorra, baina denon artean lortzen ari gara, gure herrian geroago eta hobeto bizitzeko, gure herria geroago eta iraunkorrago eta etorkizuneko.

## Informazioa ezkutatu digute

**Joxe Etxeberria** (Aralarko zinegotzia Arrasaten)  
Arrasate

Gelmako etxebizitzekin gertatu dena onartezina da. Gobernuaren egon arren, ez digute informazio nahikorik eman. Ez hori bakarrik, ezkutatu ere egin digute. Horren adibide da, orain dela gutxi jakin dugula, 2004an egin zutela etxebizitzaren prezioari buruzko txostena dagoela. Argi dago, gobernuaren izan garen alderdion informazioa ezkutatu izan digutela, herritarren interesen aurretik bestelako interesak ezarritz. Hau gutzia bideratzeko asmoz, duela lau aste, gobernuko

kideei gertatu denaren aurrean erabakiak hartu eta ardurak garbitzeko deia luzatu zitzaion. Lau aste pasatu dira eta inork ez du erantzukizunik hartu. Hori dela-eta nire dimisioa aurkeztu diot Arrasateko udal-gobernuari.

Zinegotzi naizen aldetik, ondorengo puntuak argitu nahi ditut:

1. 2004an, Udala eta Obenerreka promotoraren artean sinatutako hitzarmenean, babestutako etxe kopurua %20 gutxiago izango zela onartzen zen. Horretarako, arrazoia hauek eman zizkiguten: etxebizitzaren prezioa eusteko bide bakarra zela eta Gelma enpresaren lanpostuak mantentzeko kostuak ordaintzeko ezinbestekoa zela.

Hitzarmenak talde politiko guztien aldeko jarrera izan zuen, EBrena izan ezik, honek kontra bozkatu zuen-eta, bere ustez lan postuak ez zituelako behar bezala lotzen eta Gelma-Obenerreka enpresak ateratako etekinak gehiegizkoak izango zirelako. Argudio hauek hitzez eman zituzten eta ez zen datu zehatzik aurkeztu, ez niri behintzat.

2. 2006an, etxebizitzaren prezioa zein den ikusita, Arrasateko etxebizitzarik garestienetakoak, nabarmen geratu da Obenerrekak sekulako etekina aterako dituela. Etxebizitzaren prezioak jakindakoak hasi dira EAJren barruan tira-birak. Nik, orain jakin dut 2004ko txosten bat dagoela, 2006ko maiatzera arte aurkeztu ez dena. Eta txostenak etxebizitzaren prezioa jasotzen zuen.

3. 2006ko maiatzaren 29an, Udal osoko bilkuran, EBko zinegotziak prentsa bidalitako oharren berri ematen zuen. Horren edukia publikoa izaki, guztiok dakizue zer zioen.

4. Egoera horren aurrean, Arrasateko Udal Gobernuko Batzordekide izateari uzten diot: batetik, ez dagokidalako niri EAJren barruan dauden tira-biratan parte hartzea; bestetik, batzorde erabakitzaile batek, informazio gutzia izan behar duelako. Eta gai honetan ez da horrelakorik gertatu.

5. Nire dimisioa aurkeztu dut Gobernu batzordekide izateari utziz. Hala ere, orain arte moduan ahalik eta duinen eta garbien lanean jarraitzeko asmoa dut.

6. Egoera kaxkar eta ilunak aurrerantzean berriro ez gertatzeko, nire ustez, Arrasaten birkalifikazioari egin behar izanez gero, erabakiak hartu behar dituztenek, alde aurretik, txosten eta datu ekonomiko zehatzak izatea ezinbestekoa da. Eta Gelma, Legarre, Uribarri, Polmetasa eta bestelakoak berraztertzen hasi beharra dago.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 01



Faxa:  
943 25 05 13



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com



1970ean sortua



Sukalde eta bainuak

Santa Marina 3 • 943 71 62 81



Altzariak

Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Atariak, leihoak eta zoruak

Patrua kale 5 • 943 78 04 04



Etxetresnak

Patrua kale 10 • 943 78 04 04



Berezao industrialdea • 943 78 20 08

## ERREFORMA INTEGRALAK

Gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko.

[www.zelaiia.net](http://www.zelaiia.net)

# PACK GAZTEA

## LENTILLAK

**MULTIOPTICAS**  
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



95  
€

OPARI BEZALA,  
HIZKUNTZ  
ITZULTZAILEA

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai 16  
Tel. 943 76 15 75  
**BERGARA**

C/ Nueva 15 - GROS  
Tel. 943 32 66 49  
**DONOSTIA**

Bidebarrieta 2  
Tel. 943 20 05 22  
**EIBAR**

Koldo Mitxelena, 7  
Tel. 943 51 78 11  
**ERRENERIA**

Mendibil M. G.  
Tel. 943 63 99 01  
**IRUN**

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel. 943 88 99 88  
**ORDIZIA**

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70  
**TOLOSA**

# ARREGI SUKALDEAK

Eskaintza berezia erakusketa aldaketagatik



Eraman zuk nahi duzun sukaldea,  
gainera, altzari gehiago  
behar badituzu,  
prezio berean  
lortuko dituzu!



## ARREGI AROZTEGIA



Tarimak  
Parketak  
Leihoak: PVC  
Aluminioa  
Egurra


Horma-armairuak  
Sukaldeak  
Oheak  
Koltxoiak

ERAKUSKETA  
Bidekurutzeta 38  
20570 BERGARA  
Tel.: / Faxes: 943 76 31 03

ARROZTEGIA  
Urteaga 20  
20570 BERGARA  
Tel.: / Faxes: 943 76 11 73

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Gobernua apurtu egin da Gelmako polemikaren ondorioz > **18-19**



> **ARETXABALETA**  
Sahararen aldeko festa egingo dute bihar, Herriko Plazan > **24**



> **ESKORIATZA**  
Aurrekontuetan auzoetako lanendako da diru gehiena > **34**



> **ELGETA**  
Uruburuko etxebizitzetarako izena emateko epea, 28ra arte > **37**



BI ERAIKIN Ikastetxe berriak bi eraikin izango ditu eta 125 ibilgailurendako aparkalekua, besteak beste.

MIGUEL ALTUNA

BERGARA > MIGUEL ALTUNA INSTITUTU BERRIA

## Datorren urtean jarriko dute Miguel Altuna Institutu berriaren lehen harria

### HANDIAGOA

11.000 metro koadro izango ditu, oraingoaren bikoitza baino handiagoa

### PROIEKTUA

Jaurlaritzak onartu du oinarrizko proiektua eta datorren urtean hasiko dituzte lanak

### IKASLEAK

Ikasle kopurua hazten doa urtero eta gehienak Debagoienekoak dira

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Datorren urtean jarriko dute Miguel Altuna Institutu berriaren lehen harria. Candy enpresaren ondoan egingo dute, Pazko jaietan ondoan egingo dute, Pazko jaietan ondoan egingo dute, Pazko jaietan ondoan egingo dute.

Oinarrizko proiektua dagoeneko egingo da, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartu du eta exekuzio proiektua falta da orain egiteko. Datozen hilabeteetan egingo dute hori, urtea bukatu baino lehen, eta 2007an hasiko dituzte lanak. Bi urte inguru iraungo dute lanek.

ORAINGOAREN BIKOITZA

Eraikin berria oraingoaren bikoitza baino handiagoa izango da. Ibargarai kalekoak 5.000 metro koadro ditu eta berriak 11.000 metro koadro izango ditu. "Makinak toki handia behar dute, handiak dira eta batetik bestera segurtasuneko eta kalitateko distantzia minimoa ere egon behar da", dio Iñaki Larrañagak zuzendariak. "Bestela, oraingoaren antz handia izango du berriak, orain arteko proiektuekin jarraituko dugulako", jarraitu du.

BI ERAIKIN

Miguel Altuna Institutu berriak bi eraikin izango ditu, bata beste-

aren aurrean. "Atzeko eraikinean, adibidez, 2.000 metro koadroko tailerra egongo da, Mekanika eta Kimika ikasketak egiten dituztenek erabiltzeko. Horrez gain, Elektrizitate eta Mekanika arloko ikasketak egiten dituzten ikasleek gelak eta laborategi kimikoak egongo dira, adibidez, eta Urrats BAT proiekturako ere bi gela izango ditugu", dio Iñaki Larrañagak. "Aurreko eraikinean, berriz, sarrera, idazkaritza, zuzendaritza eta etengabeko formaziorako bulegoak egongo dira. Lehen solairuan mintegiak eta hizkuntza gelak, laborategia, liburutegia eta bilera gelak egongo dira eta biga-

renean, administrazioa", jarraitu du deskribatzen. Horretaz guztiaz gain, 1.200 lagunendako areto gela eta bideokonferentzia gela ere izango ditu.

Eraikinek eguzki plakak izango dituzte sabaian eta azpian, 45 ibilgailu, gutxi gorabehera, aparkatzeko tokia. Kanpoan, beste 80 autorentako aparkalekua egingo dute. Etorkizuneko tranbiak, gainera, ikastetxearen aurrean izango du geltoki bat.

50 IRAKASLE ETA 700 IKASLE

1945ean zabaldu zuten Bergarako Miguel Altuna Institutua eta 1965ean handitu egin behar izan

zuten beharragatik. "Eraikin berria ere eskaerak behartuta egingo dugu. Teknologia aurreratu erabiltzeko lekua eskatzen du eta bestetik, ikasle kopura ere hazi egin da. Lehen mutilak etortzen ziren bakarrak baina egun neskek ere matrikulatzen dira. Momentu honetan, 50 irakasle daude, 312 ikasle ditugu goizetan eta 367 arratsaldetan", dio Mertxe Laskurain kalitate arduradunak. "Maila ezberdineko ikasketak egitera, ikastaroetara, goi mailako zikloa moduluka egitera edo ikasketak horiek egiteko sarrera froga egitera datoz, adibidez", dio Mertzek. Horrez gain, euren proiektuak gauzatzen ari diren ikasleak zein langileak ere badabilta Miguel Altuna Institutuan. Gehienak Debagoieneko ikasleak dira, gainera.

HIRU URTE BARRU

Datorren urtean, 2007an, jarriko dute ikastetxe berriaren lehen harria eta lanek bi urte inguru iraungo dutela kalkulatu dute. Bi mila milioi euroko aurrekontua du proiektuak. Berez Jaurlaritzak eramango du aurrera proiektua, baina udaletxeko arkitektoak ere gainean egongo dira proiektua gainbegiratzeko.

EUSKADIKO BAKARRENETAKOIA

### Europako urrezko zigilua lortu du aurreko ikastetxeak emaitza onak lortzearen

Europako Bikaintasuneko Urrezko Zigilua lortu du aurreko ikastetxeak emaitza onak lortzearen bidez. Euskadin zigilu hori lortu duten ikastetxe publiko bakarrak dira Bergarako eta Usurbilgoa. Club de Gestión de Calidad deritzon erakundeak eman dio saria. Zigilu hori lortzeko, memoria bat aurkeztu behar izan zuen ikastetxeak. Memoria horretan aipatzen ziren kudeatzeko sistemak eta horiek emaitzetan izan duten eragina.

Urtarrilean jaso zuen ikastetxeak zigilu hori eta aurretik lortutakoekin batera dute gordeta.





kale inkesta

# Sagastin zer egingo zenuke: gizarte etxea ala parkea?



**Antonia Flores**  
Etxekoandrea  
Antzuola



**Mari Carmona**  
Etxekoandrea  
Antzuola



**Ibon Garaikoetxea**  
Langilea  
Antzuola



**Antxon Sanchez**  
Langilea  
Antzuola



**Teresa Errasti**  
Langilea  
Antzuola

Parkea ipiniko nuke. Daudenak kentzen ari dira eta Sagasti modu kaskarrean egon arren han jolasten dira umeak. Gainontzeko baliabideak beste leku batzuetan jar daitezke.

Umeak ditudan aldetik nahiago dut parkea, eurek gustura jolas egin dezaten, eta ni neu ere gustura egoteko. Beste baliabideak beharrezkoak dira, baina leku hau egokiagoa da parkerako.

Parkea egingo nuke. Nahiko hormigoi badago eta badaude beste irtenbide batzuk, dauden etxebizitzak aprobetxatzea, esaterako. Belardi horretan ziburuak, bankuak, zuhaitzak... ipintzea da onena.

Parkearen alde egingo nuke, Antzuolan ez dago toki aproposik umeendako. Gizarte zerbitzuak beste nonbait jar daitezke. Igerilekua egitekoak ziren Sagastin, baina egingo ez dutenez, parkea nahiago.

Onena parkea egitea da, ze ez baitugu berdegunetik; eta dauden ziburuak ere gutxi dira eta batzuk hondatuta daude, gainera. Badira lokalak eta etxabeak aprobetxa daitezkeenak beste gauzetarako.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

## Antolaketa ona eta giro polita



Hala abisatu digute Arrasatetik, joan den zapatuan giro polita sortu zela herrian Elkartasun Egunerako antolatutako kontzertuei esker. Egun horren antolaketa bikaina izan zela ere nabarmendu nahi izan digute eta haiei eskerrak eman, egindako lanarengatik.

bertako berbak

Juan Martin Elempuru

### "Taketada"

Irteera edo egintza zelebrea. "Taketada"-k egiten zituenen estilokoa, alegia.  
- Oindio taketada aundixauak entzun bia jittuau.



Marraskia > Jon Iraegi

asteko datua

# 10.000

Urkuluko urtegiak 10.000 milioi litroko edukiera dauka. Kasu hipotetiko bat hartzearen, euririk bat ere egin gabe, urtebetez hornitzeko gai da urtegia. Gaur egun 8.650 milioi litro daude Urkulun, beraz, edukieraren %86,5ean dago.

ustek uste

Irati Agirreazaldegia

## Hobe da salaketei aurre egitea

**H**autsak harrotuta dabilta autobideko lanengatik Eskoriatzan; Elgetan, ordea, beste gai batek harrotu ditu hautsak eta ipini ditu mingainak dantzan.

Etxebizitza, horrek ekarri du herritarren hitza. Izan ere, etxeak egin eta egin dihardute eta gehiago non eraiki planifikatzen dabilta. Baina nork lortuko du etxe hauen giltza?

Arazoa, beti bezala dirua, eta txanponak aztoratu du oraingoan ere ingurua. Txanponekin ezin ordain liteke etxe bateko lehen adreilua ere, diruak duelako nahi adina botere.

Babestuak batzuek eta tasatuak besteak, baina guztiek sortzen dituzte buruhausteak. Uruburur egingo dituzten etxebizitzetan izena emateko ipini dituzte mugak eta horrek eragin dizkit dudak.

Zozketan parte hartzeko gutxienez 9.000 euroko diru sarrerak behar dira, gaitzerdi irabazi horiek denon esku egongo balira.

Diru gutxi duenak behar du babesa, baina badirudi horrekin ez duela inork pentsa. Etxebizitza babeserako lekua omen, baina dirurik ezean inork jasotzen du babesik hemen.

Eraiki eta eraiki auskalo zenbat etxebizitza, baina nik gaurkoan ere atera beharko dut gurasoen etxeok giltza.

5 galdera...

## Olatz Osa

Euskal Editoreen Elkarte  
Oñati

### 1. Jaurlaritzak abiaraziko du programa esperimental bat liburuak mailegatzeko; zertan datza?

50 ikastetxe publikotan aplikatuko dute. Gero, aurreikusten da, ikastetxe publiko guztietara eta EAEko itundutako ikastetxeetara zabaltzea. Liburuak ikastetxearenak izango dira eta lau urtez erabiliko dira. Gurasoek ordaindu beharko dute erabilpenagatik prezioaren %25a. Bueltatzerakoan liburuak ez badago berriz erabiltzeko moduan, kostu osoa gurasoek ordaindu beharko dute.

### 2. Momentuz, Lehen Hezkuntzan izango da. Nork erosiko ditu liburuak?

Jaurlaritzak emango dio ikastetxeari liburuak erosteko dirua eta honek ordainduko ditu. Beraz, nahiz eta gurasoak joango diren fisikoki liburudendetara liburuak erostera, horien fakturak ikastetxeak ordainduko ditu.

### 3. Liburuen doakotasunaren alde agertu zarete editoreak...

Bai, hezkuntza oinarritzko eskubide bat den neurrian, garapenerako bitartekoak ere doan izatea begi onez ikusten dugu. Kontua da zein sistema erabiltzen den doakotasuna aplikatzerako, eta, argi izatea zein ondorio ekarriko dituen sistema bakoitzak.

### 4. Hortaz, zer gertatzen da mailegu sistemaren kontra egoteko?

Izan ditzake birtuteak, baina arriskuak ere ekar diezazkioke liburugintzari, eta nabarmenago euskarazko liburugintzari.

### 5. Zergatik litzateke hori arriskutsu euskararen-dako?

Euskararen merkatua txikia da. Mailegu sistemak salmentak lau aldiz txikituko ditu eta ez bideragarri bilakatuko ditu ikas liburu gehienak. Euskarazko irakasleentzako garapenean funtsezko funtzioa bete duten liburuen produktzioa kolokan jar lezake. Normalizazioaren eta hezkuntza propioaren ikuspegitik, ezinbestekoa da euskarazko materialen produktzioa bermatzea.



GELMA &gt; ARALARREN DIMISIOA, EB-REN SALAKETAK ETA ALKATEAREN AZALPENAK

# Udal gobernua apurto da, Gelmako etxebizitzaren gaineko auziarengatik

Aralarko zinegotzi Joxe Etxebarria dimisioa aurkeztu zuen astelehenean

Ezker Batuak segitu du salatzen etxe horiekin "pelotazoa" egin duela Obenerrekak

UBANE MADERA &gt; ARRASATEN

Gelmaren inguruko egoera argitu beharrean gehiago nahaspilatu da oraingo astean. Izan ere, kontu horren inguruan sortu den polemika dela-eta, Aralarko zinegotzi Joxe Etxebarria dimititu egin du eta horrek Gobernu batzarra (orain EAJ-EA) egoera delikatu utzi du. Izan ere, EAJk (6) eta EAK (3) bederatzi zinegotzi dituzte guztira. Oposizioak, berriz, hamaika: PSE (5), PP (2), EB (3) eta Aralar (1). Eta horrek, jakina, oso zail egingo du aurrerantzean gobernazioa.

ARALARREN ARRAZOIAK

Aralarki dagokionez, honako arrazoiak eman ditu dimititzeko: "Egoera honen aurrean Udaleko Gobernu batzordekide izaten jarraitzeak honako hau suposatzen duela uste dut: PNVkoen artean izan daitezkeen tira-biren ikusle izatek erabakitzaile izatera pasatzeko arriskua; batzorde bat erabakitzaile izateko, benetako informazioa izan behar duela uste izatek, edozein datu txikirekin konformatzea ametitzea: ezin da besterik pentsatu 2004an hitzarmena onartu zen moduan onartu ondoren, eta orain dugun informazioa alderatzerakoan. Herri guztirako (eta ez gutxi batzuen-



EZTABAIDA Alkateak onartu du eztabaidak izan direla EAJn, baina, halaber, adostasuna lortu dutela ere esan digu. U.M.



ARALAR Etxebarria (erdian) dimisioaren berri ematen. U.M.



EB Rodriguez, Ugalde eta Baz zinegotziak. U.M.

tzat soilik) onura nola bideratu behar deneko eginkizuna duen Gobernu batzorde batek ezin du hala funtzionatu (datuak ezkutu, bata besteari mutur joka, datuak kalean ezagutuz...)"

Eskaera bat ere egin dio Gobernu batzarrari: "Edozein berkalifikaziorik egin behar izanez gero, alde aurretik txosten eta datu ekonomiko zehatzak, erabakiak hartu behar dituztenen esku izateko

beharra, ezinbestekotasuna. Dagoeneko bai Gelma, bai Legarre, Uribarri, Polmetasa eta abar berraztertzen hasi beharra dago".

Dimisioa aurkeztu arren, Aralarrek argi utzi gura izan du

erabaki horrek ez duela "suposatuko gerran hasiko" dela eta "orain arte moduan, ahalik eta duinen eta garbien lanean jarraitzeko asmoa azaltzen dut".

ALKATEA HITZARMENAREN ALDE

Alkateari dagokionez, onartu egin du etxebizitzaren prezioak direla-eta EAJ-EA koalizioaren barruan eta Gobernu batzarrean eztabaida egon dela, baina gaineratu digu lortu dutela postura bateratua eta negoziazio prozesua ia hasita dutela.

Aralarren dimisioaren gainean, berriz, esan du ezusteko handia izan dela dimisio hori Gobernu batzarrean. Erabaki hori goi politikaren erabakia izan daitekeela pentsatzen du alkateak; are gehiago, zerikusia izan dezakeela Aretxabaletako Udaltxean gertatutakoarekin edo hauteskunde atarian egotearrekin.

Gelmaren hitzarmena defendatu zuen prentsa ohar baten bitartez: "Obenerrekako jabeak saltzen atera ditu etxean batez beste 5.000-6.000 euro m<sup>2</sup> inguruan aitortzen dut prezio hori orduan garaian egindako kalkulak baino askoz handiagoa dela. Prezio hori kokatzeko, komeni da gogora ekartzea gaur bertan erdialdean prezio horretako transakzioak egiten ari direla, 55 metro koadroko etxea 330.000 euro". Zera ere gaineratu zuen: "Aurre egin nahi diot egin didaten salaketa bati, esku-tizetan eta izenik gabeko idatzietan; norbaitek uste badu aberastu egingo naizela edo onurak jaso ditudala lizentziaren zentimo bakar batekin ez nau ezagutzen eta ez daki nire konbentzimendu osoaren berri kooperatiba mugimenduaren baloreetan, horri eman diot nire bizitza profesional osoa, alkatetza honetara iritsi arte".

Paco Gartzia  
PSE-EE

## "Alkateak ez du Arrasate gobernatzeko boto nahikorik"

"Gobernua erabateko krisian sartu da. Alkateak ez du Arrasate gobernatzeko boto nahikorik eta oraindik urtebeteko legegintzaldia dugu aurretik. Hala, kezkatzen gaitu zela onartuko dituen aurrekontuak, hirigintza kontuak zela gestioatuko dituzten... Horrek kezkatzen gaitu, horrek eragingo diolako Arrasateko herritarrari". Zera ere gaineratu digu: "Egoera hobetu egin badaiteke, gu beti egongo gara laguntzeko gertu".

Itziar Lamarain  
PP

## "Joxeren dimisioa lehenago gertatu behar zen"

"Joxeren dimisioa lehenago gertatu behar zen. Esan diot ez nuela ezer ulertzen defendatzen zebilen politikari dagokionez. Esan diot, baita ere, ez zegoela gertatzen ari zenaren jakinarene gainean, bere lanarengatik ez zen-eta Gobernu batzarrean egoten. Gobernazio zaila dute orain. Bestalde, inork ez du alkatea akusatatu dirua poltsikoratzeaz. Dioguna da gauzak ez daudela argi, baina aspaldi gabiltza hori esaten".

Ander Rodriguez  
Ezker Batua

## "Aralarrek egin duena ausarta da; lehenago egin behar zuen"

Aralarrek egin duena ausarta eta normala dela uste du EBk eta ez du baztertu 2007ko hauteskundeetara elkarrekin joatea. Baina baita ere lehenago egin beharreko zerbait dela. Bestalde, uste du alderdi politikoen hausnarketa egin beharko luketela; halako gertaeren ondorioz, herritarrek eurekiko galdu duten konfiantza berreskuratzeke. Abisatu zuen, baita ere, etxebizitzekin zerikusia duen beste arazo bat sortu behar dela Udalean.

Jose Luis Aranburu  
Eusko Alkartasuna

## "Konponbidea ez da batzordeak eta gobernua uztea"

Gobernua lanean segituko du EAK. Eta uste du batzordeetatik ateratzea ez dela bidea. Aralar egon balitz ere, EAJren bi botoak erabakigarriak izango lirakeela esan digu. Eta gogorazi Gelmarekin hitzarmena sinatzean, batek izan ezik, gainerako alderdiek ez zutela eskatu txostenik hirigintzako aprobetxamendua %10 zela ziurtatzeko. Beraz, udal galeren arduraren guztia dela uste du, batez ere EAJrena, informazioa ezkatuzearren.

Joxe Etxebarria  
Aralar

## "Orain arte moduan, lanean segituko dut lehengo sailetan"

Tokiko Gobernu Batzarretik dimititu arren, Aralarko zinegotziak esan du orain arteko arduraren zuzen sailetan lanean segitzeko asmoa duela, Gizarte Zerbitzuetan eta Kultura eta Euskara sailetan, hain zuzen ere. Gelmaren gainean, berriz, uste du orain gobernua geratu diren (EAJ eta EA) Gelmaren eta Udalen arteko hitzarmena negoziatu egin beharko dutela. Horren harira, esan zuen ez dutela errespetatu hitzez esandakoa.



GELMA 418 etxebizitza gura dituzte eraiki Gelman, %30 babestutakoak . I.B.

#### LANEAN SEGITUKO DU EA-K

EAri dagokionez, gobernu batzarrean zein batzorde informatibotetan lanean segitzeko asmoa duela jakinarazi dio GOIENKARIA-ri Jose Luis Aranburu presidentea. Gaineratu digu Gelma-ko negoziatioetan parte hartzeko asmoa dutela eta gogorarazi digu Aralar egon balitz ere, EAren bi botoak erabakigarriak izango liritekeela.

Baita ere uste dute arazoa ez dela konponduko batzordeak utzita, baizik eta arazoari ahalik eta irtenbiderik hoberena ematea dela bidea.

#### PSE-EE: "ERABATEKO KRISIA"

PSEko bozeramaile Paco Gartzia, berriz, zera adierazi digu: "Ez dugu baloratuko gainerako alderdi politikoen hartzen dituzten erabakiak, autonomoak direlako. Edozelan ere, dimisio honek sortzen digun kezka da gobernu erabateko krisian sartu dela. (...) Horrek kezkatzen gaitu, horrek eragingo diolako Arrasateko herriarrari".

Bestalde, Gelma-ko etxebizitzaren prezioen (5.000-6.000 euro metro koadroa) gainean, esan digu hitzarmenean ez zutela zehaztu gehienezko prezioa.

Gogorarazi digu merkaturaren prezioek gora egin dutela, aurreikusitakoa baino gehiago eta Arrasaten, etxebizitza libreei dagokionez gehiegizko prezioak daudela.

#### PP: "AURKITUKO DU SALBATZAILEA"

PPko Itziar Lamarainek, berriz, zera esan digu: "Harritu egin nau horrenbeste tardatu izanak. Udaleko funtzionamendua ikusita ez zen logikoa EB eta Aralar gobernuan egotea".

Gelma dela-eta alkateari erantzunez, berriz, jakinarazi digu etxeen prezioen ika-mikaren aurretik, izan zela beste bat apartakalekuak direla-eta: "Aurreikusitakoa baino gutxiago egin behar dituzte eta protesta egin nuen, galtzailea Udala delako. Kontua da promotorearendako garestiegia zela pisu bat gehiago behera jaistea. Esan nuen Udalak negoziatu egin beharko lukeela".

Udal gobernazioaren gainean, berriz, esan zuen "zaila" daukala eta gaineratu zuen orain arte moduan segituko dutela: "Batzuetan gobernuaren alde bozkatu digu eta bestetan kontra, gure irizpideen arabera. Hemendik aurrera berdin gertatuko da. Eta argi dago gai askotan konplikatu izango duela. Negoziatu egin beharko

du. Niri sekula ez didate deitu eta deituko didaten zalantza handiak dauzkat, baina aurkituko dituzte salbatzaileak".

#### 32.867.364 EUROKO IRABAZIAK

Bestalde, Ezker Batuak prentsaurrekoa eman zuen Gelmaren eta hango zuzendaritzak sortutako Obenerreka elkarte sustatzailearen arteko salerosketaren nondik norakoak aztertzeko.

Ezker Batuak salatu zuen Obenerrekak sekulako dirutza eskuratu duela Gelmako lurren birkalifikazioa egin eta gero. Hain zuzen ere, eta emandako datuen arabera, 32.867.364 euro irabazi ditu lurrekin bakarrik.

Zifra hori lortzeko, Ezker Batuak jakinarazi digu Gelmako lurren balio industrialak zela 1.600.000 euro. Lurren birkalifikazioa egin eta gero, berriz, 64.800.000 euro balio du. Bien arteko kenketa egin eta gero, 63.240.000 euroko aldea ateratzen da, plusbalioa.

Bada, Ezker Batuak salatzen du plusbalio horren banaketa "kuriosoa" egin dutela. Izan ere, Obenerrekak Gelmari 31.989.666 euro ordaindu dizkio lurrengatik. Beraz, gainerako 32.867.364,60 euroak Obenerrekaren eskuetan geratu dira. "Berez, eskandaluzkoa da Udalak egindako birkalifikaziotik halako plusbalioak ateratzea. Eta kuriosoa da, baita ere, plusbalio osoa ez eskuratzea Gelmak, baizik eta plusbalioen erdia baino gehiago Obenerrekak eskuratuko ditu.

#### BOST MILIOI EURO GUTXIAGO

Horrekin batera, Ezker Batuak salatu du Udalak bost milioi euro gutxiago eskuratu dituela Obenerrekarengandik. Hau da, lurren aprobetxamenduaren %10 Udalarendako izango da. Baina, EBren datuen arabera, 7.582.537 euro eskuratu beharko lituzke Udalak, eta ez hitzarmenean adostutako bi milioi euroak. "Hitzarmenean ez zuten aurreikusi zifrak handitu egin ahal zirela eta horren ondorioz, Udalak bost milioi euro galduko ditu. Bada, kigu bestelako konpentsazioen bat negoziatzen dabiltzala, parkeren bat urbanizatzea edo halako zerbait. Baina, bost milioi euroekin, herri osoa urbanizatu genezake".

## Gelmako hitzarmena "bete ez dutela-eta", langileak kezkatuta daude lanpostuengatik

Azken orduan iritsi zaigu Gelmako Enpresa-Batzordeak langileei bidalitako honako idatzi hau; kezkatuta daude euren lanpostuengatik:

"Gelma Fundazioaren orubean eraikitzen dabilzan etxebizitzaren gainean egunotan komunikabideetan azaldu diren albisteak direla-eta, Batzordeak informazioa eman gura die langileei, hilaren 12an Zuzendari-tzarekin gai horren gainean izandako batzarren gainekoa.

Etxebizitzak eraikitzeko baimenik ez dagoenez, Enpresaren Zuzendaritzak bakarrik du baimena garajeak eraikitzeko, lurrazaleraino. Hala, jakinarazten du Atusa Taldeko bazkideek (Gelma eta Obenerreka) ulertzen dutela Udalak ez dituela bete etxebizitzak eraikitzeko hitzarmenean adostutako akordioak, ezta ere 200 bat langileko taldearen aktibitate industrial mantentzeko akordioa. 2004ko martxoaren 8an sinatu zuten hitzarmen hori.

Egoera horren aurrean eta Udalak ez badu jarrera aldatzen, Zuzendaritzaren esanetan, bazkideek ulertzen dute ez dabilzala hitzarmena betetzen eta planteatu lezakete eurek ere ez betetzea aktibitate industrial mantentzeko akordioa.

Gaur egungo egoera ezagututa, Enpresa Batzordeak alkatearekin batzar urgente bat egitea eskatu du, Udalaren jarrera zein den jakiteko eta Udalarik ikustarazteko arazoa Obenerrekaren eta Udalaren arteko dela eta langileek bakarrik gura dutela euren lanpostuak ez galtzea.

Telefonoz, alkateak esan zigun gobernu batzarreko arazoak konpondu ostean, Zuzendaritzarekin batzartuko zela, egoera desblokeatu nahian; halaber, batzar horiek hasi ostean, Batzordearekin elkartzeko konpromisoa ere hartu zuen alkateak eta nabarmendu zuen Udalaren borondatea dela Gelma Fundazioaren aktibitate industrial Arrasaten mantentzea".



U.M.

## Aste polita pasa dute Iturbide egoitzakoek

Erretiratuaren Astea ospatzen ibili dira Iturbide Erretiratu Egoitzakoak eta ekitaldi ugari izan dituzte. Amaia Umerez begiraleak kontatu digunez, "partehartze handia izan dute ekitaldiek; nik esango nuke aurten harrera hobe izan dutela. Ekintza desberdinak egin ditugu eta jendea oso pozik ibili da".

Guk Bilborako txangoan harrapatu genituen, eguaztenez. 61 lagun joan ziren Euskalduna eta beste ikustera, 48 erretiratu eta zaintzaileak.

## San Juanetako berezia martitzenean

San Juanetako egitaraua eta hainbat albiste jasotzen dituen zenbaki berezia banatuko du GOIENKARIAK etxez etxe martitzenean, ekainaren 20an. 40 orrialde izango ditu.



#### ALKATETZAKO IRITZIA

Inazio Lakuntza > Arrasateko alkatea

## "Norbaitek uste badu aberastu egin naizela edo onurak izan ditudala, ez nau ezagutzen batere"

Gelmako ika-mika dela-eta jasotako kritikei erantzunez, alkateak esan du ez duela inolako onura ekonomikorik eskuratu Gelmaren kontura. Bestalde, onartu egin du etxebizitzaren prezioak direla-eta EAJ-EA koalizioaren barruan eta Gobernu batzarrean eztabaida egon dela, baina gaineratu digu lortu dutela postura bateratua eta negoziatio prozesua ia hasita dutela. Era berean, aitortu du egindako kalkuluak baino askoz prezio handiagoak direla baina zera gaineratu du: "Komeni da gogora ekartzea gaur bertan erdiko aldean prezio horretako transakzioak egiten ari direla.

Aralarren dimisioaren gainean, berriz, esan du ezusteko handia izan dela dimisio hori Gobernu

batzarrean. Edozelan ere, onartu du Joxe Etxeberriaren jarrera izan dela oso ona eta gauza asko atera dituztela aurrera bere laguntzarekin. Eta gaineratu digu hori horrela, pentsatzen duela Aralarren erabaki hori goi politikaren erabakia izan daitekeela; are gehiago, zerikusia izan dezakeela Aretxabaletako Udaletxean gertatutakoarekin eta esan zuen, baita ere, hauteskunde atarian gaudela eta indar politikoz guztiak kokatzen ari direla.

Etorkizuneko gobernazioaren gainean, berriz, esan digu negoziatioa izango dela bidea: "Edozein gai aurrera ateratzeko egon behar gara indar politikoz guztiakin; saiatuko gara akordioak lortzen".

JAIK &gt; EUSKAL DANTZAK, DANBORRADA ETA BERTSO JAIALDIA

# San Juan jaien usainarekin, mota askotako ekitaldiz beteta dator asteburua

Egutegiaren arabera, San Juan jaiak datorren astean hasiko diren arren, asteburu hau jaiekin lotutako ekitaldiz beteta egongo da

IKER BARANDIARAN &gt; ARRASATE

Biharko, zapatua, Arrasate Mar-go Taldeak 2. Herensugea Pintura Lehiaketa antolatu du. Goiz osoan hainbat artista alde zaharrean margotzen ibiliko dira, eta 18:00etan sariak banatuko dituzte Monterronen.

Ilatargi astronomia elkarteak bi ekitaldi egingo ditu: bate-tik, 11:00etan eguzki erlojuen erakusketa egingo du Laubide plaza-n; eta 19:00etan, *Magia zientifikoa*-ren erakustaldia.

Zapatuan umeen danborrada irtengo da kalera. 19:00etan hasiko dira danborrak astintzen, eta



HAUR DANBORRADA Bihar, zapatua, irtengo da txikien danborrada, 19:00etan Zaldibartik.

GOIENKARIA

kalejiran ibiliko dira. Jenerala Ibai Rodriguez izango da; Arrasateko ikurrina Lierni Etxeberriak eramango du; Euskal Herri-

koa, Maider Azkarraga-Urizarrek; eta SUDCeko ikurrina, berriz, Jone Balantzategik, hain zuzen ere.

DOMEKAN, HAUR DANTZARIAK

Etzi, domeka, Haur Dantzarien Eguna egingo dute herrian. 300 bat ume batuko dira. Arrasate-

ko Lore Gazteak eta Txixitxu taldeez gain, Antzuola, Soraluze, Aretxabaleta, Galdakao, Zarautz eta Agoitzetik etorriko dira.

30 urte baino gehiago dira Lore Gazteak eta Txixitxu Arros-taitzek egun hori antolatzen dutela. 10:00etan Zaldibarren batu eta bazkal ordura arte kalejiran ibiliko dira. Horren ostean, 17:00etan, Herriko Plazan arituko dira.

ZAPATUAN, BERTSO JAIALDIA

Azkeneko urteotan moduan, AEDk bertso jaialdia egingo du zapatuan. 22:30ean izango da, Monterronen, eta ez dute sarre-rarik kobratuko.

Honako bertsolariak arituko dira: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Iratxe Ibarra, Sustrai Colina eta Jokin Labayen, hain zuzen ere. Gai jartzailea, berriz, Lierni Altuna izango da. Labayen eta Altuna AEDko bertso taldeko kideak dira. Gainontzekoak, berriz, punta-puntako bertsolariak dira, baita Arrasateko Jokin Labayen ere.



GOIKOBALU

MUSIKA &gt; NCC, ULTRACUERPOS ETA RADIO WINGS

## Rock-and-Roll biziko emanaldiak asteburuan

Nuevo Catecismo Catolicoren eta Ultracuerposen diskoen aurkezpenak

ko gonbidatu ezagun batzuk ariko dira: Ultracuerpos. Azken horrek *The awesome amazing sound of...* hirugarren diskoa ekarriko dute besapean.

THIN LIZZYREN SEMEAK

Bestalde, gaur, egubakoitza, Radio Wings taldeko lagunek Iñigo Zubizarreta gitarra jotzailearekin batera Irlandako Thin Lizzy talde handiari merezitako omenaldia egingo diote 3.60 aretoan. Ez da erraza kantuhoriek ondo jotzea, baina lagun horiek lortu egingo dute.

I.B. &gt; ARRASATE

Bihar, zapatua, punta-puntako kontzertua egingo dute gazte-txean. 22:30ean hasita, Donostiako Nuevo Catecismo Catolico taldeak zortzigarren diskoa, *1.530 segundos de...*, aurkeztuko du. Eurekin batera, Galizia-



ZORTZIGARREN DISKOA Donostiako taldea beteteranoa da.

NCC

# GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

Era guztietako garbiketak

• Zuen komunitateko administrazioa

• Konponketa orokorrak

• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

# Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## Goikobaluk Madrilen abestuko du

Joan den asteburuan Goikobalu abesbatzako lagun batzuk Bilboko abesbatzarekin Auchen (Frantzia) izan dira *Carmin Burana* ikuskizuna egiten. Ikuskizunak arrakasta handia izan du.

Horrez gain, uztailaren 1ean eta 2an Goikobaluk Madrilgo Coros de Rivas txapelketan esku hartuko du. Espainiako Estatutik 18 abesbatza aukeratu dituzte.

# 2006 ASTE BERDEA - BIOANIZTASUNA



**Ekainaren 18an – domeka**

10:30 – 13:00 Eroski alboko berdegunean elkartuko gara.

• **DEBA IBAIA GARBITZEA – MOJATEGI INGURUA (EROSKIKO ATZEKO ALDETIK SAN ISIDROKO ZUBIRA ARTE)**

Deba Ibaiko tarte bat garbitzeko deialdi zabala egiten diegu herritar guztiari.

Garbituko den gunea Mojategi inguruko erreka zatia izango da. Erreka ertzean dauden zaborrak batuko ditugu eta herriko gune adierazgarri batean jarriko ditugu erakusgai.

Parte hartu nahi duzuenok, eman izena aurretik (etorriko den jende kopurua aurrez jakitea ezin bestekoa da eta antolaketa erraztuko du).



**ERREKA GARBI BEHAR DUGU !!!  
ANIMATU ETA IZENA EMAN !!! INGURUMENA DENON ARDURA DA**

Etorri udaletxera, Ingurumen sailera  
[agenda21@arrasate-mondragon.net](mailto:agenda21@arrasate-mondragon.net)  
Telefonoz: 943 790 900



## ALMACENES ARRASATE

ETXETRESNA ELEKTRIKO ETA SUKALDE ALTZARIAK

## "RENOVE PLANA"

75 €-ko deskontua izango duzu zure etxetresna elektriko zaharra aldatzen baduzu energia aurrezten duen batengatik.

Efizientzia energetikoa **A** edo **A+** dituzten garbigailu, ontzi-garbigailu, hozkailu eta izozkailuetan.

**Ekainaren 15etik  
abenduarien 15era baliagarria.**





BEROTUTA Lehia handiko partidua izan zen.

x.u.



FALTA JAURTIKETAK Betrayerek horrela egin zuen min.

x.u.



ERDIKO ZELAIAN Jokoa antolatu guran.

x.u.



LASAITASUNA Hori eskatzen zuen Betrayeko Landerrek.

x.u.



IRIZTU Taldeko Jabi, erasoan.

x.u.

## ARETO FUTBOLA &gt; ZALDIBARKO KOPAKO FINALA

# Iriztuk ez du gura urtea esku-hutsik amaitu, eta bihar izango du, Kopako finalean, errebantxarako aukera

Iriztuk Iluntz taldearen kontra neurtuko ditu indarrak Zaldibarko bigarren txapelketan, Kopan; Musakolan jokatu dute partidua (17:00)

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Hori izango da Kopako finaleko berritasuna, partidua Zaldibarko jokatu beharrean Musakolan kiroldegiko kantxan jokatu dutela, alegia. Denboraldian

zehar izan dituzten atzerapenen ondorioz Liga baino geroago amaituko dute Kopa. Partiduari dagokionez, bistan da taldekide gehienendako berria izango dela kantxa horretan jokatzea; alde

horretatik, ez da egongo abantailarik. Bada, finala ikusi gura duten zaleek ez dute kiroldegira sartzearen ezer ordaindu behar izango. Eta, bi kontrarioen gainean esan behar da pena izango litzatekeela urtean zehar talde erregularrena izan dena esku-hutsik geratzea. Aurten bi final jokatu ditu Iriztuk, eta dagoeneko lehenak ihes egin dio. Hori, baina, ez da Iluntzen arazoa.

BETRAYER TXAPELDUN

Joan den zapatuko finalak osagai guztiak izan zituen partidua erakarria izateko: golak, taldeen artean lehia handia eta jokaldi bakoitzean nabarmentzen zen tentsioa. Ika-mikaren bat edo beste egon zen, baina horretan geratu zen, eta horrek ere bizitasuna eman zion partiduari. Betrayer aurreratu zen markagailuan, baina Iriztuk berehala erantzun zuen. Lehenen-

go zatian parean egon ziren indarrak, baina bigarrenen Betrayer nagusitu zen, batez ere, baloi geldiko jokaldietan egindako jokaldiengatik (faltak, kornerrak, penalti jaurtiketak...). Hala, markagailuak 4-2 erakusten zuenean adierazi zuen epaileak partidua amaiera.

Amaitzeko, Dribling izan da Ligako hirugarren sailkatua, Lasagabasterri 2-4 irabazita.

## Aitor Laskurain eta Aitziber Azaldegi, azkarrenak

Joan den asteburuan egin zuen Dorletako Amak Txirrindulari Elkarteak alebin eta infantil mailetako lasterketa Arrasaten. Eta, erretratuan dituzue txirrindulari azkarrenak. Infantil mailan, Bergarako Lokatza taldeko Aitor Laskurain izan zen onena. Bigarren helmugaratu zen Aloña Mendi taldeko Aitor Umerez, eta hirugarrena izan zen Dorletako Ama taldeko Markel Juaristi arrasatearra. Nesketan, berriz, Dorletako Amako Aitziber Juaristi nagusitu zen.



JUARISTI MENDAROSKETA

&gt; JIU-JITSUA

### Jiu-jitsuko eta judoko topaketa arrakastatsua egin zuten zapatuan Musakolan

Topaketa berezia egin zuten joan den zapatuan Musakolan kiroldegian. Jiu-jitsu eta judo arte martzialen gaineko erakustaldia egin zuten. Goizean Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako gazte-txoekek judo txapelketa egin zuten. Jarraian egin zuten jiu-jitsuko ikastaroa. Hain zuzen ere, Espainiako Estatuko jiu-jitsuko zuzendari tekniko Eusebio Sanchez etorri zen eskola ematera. Harekin batera ibili ziren Julio Gallego eta Jose Manuel Petermain.

&gt; ATLETISMOA

### Jonathan Perezek urrea gehitu du bere bilduman, oraingoa Euskadiko Txapelketan

Bero handia eta haizea jo eta jo, horrela lehiatu ziren Euskal Herriko atletak Durangon egin zuten Euskadiko Txapelketan. Arrasateko pertika jauzilariak 4,90 metroko jauziarekin erdietsi zuen urrea. Beste behin, Euskadiko onena da Jonathan. Lander Errasti, berriz, gustura geratu zen 4 metroko jauziarekin; badirudi Arrasatekoak atzean utzi duela lesioa. Eta, 800 metroko lasterketan seigarren sailkatu zuen Markel Blanco (1,57 minutu). Asteburuan egingo dute Anoetan gazte eta kadete mailako txapelketa.

**boteprontuen**

Amaia Isasi eta Mikel Arkauz > Udaixe ekintzetako begiraleak

# "Gaztiek ondo pasetie da Udaixen asmue"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Gaur egingo daue Musakolako Gazte Txokuen ikasurteko azken jaixe. Eta, hurrengo pausue izengo da Udaixei hasierie emutie. Ekaiñeko azken astien egingo daue hori, eta jakin, ondiokan badauela bertan apuntetako aukerie. Gaur Musakolako jaire juen ezin dauenak astelehenien eukiko dau azkeneko aukerie, Txatxilipurdiko egoitzara juenda. Amaiak eta Mikelek emun duskue Udaixen barri.

## Hasteko, noix hasiko dozue Udaixe?

Ekaiñeko azken astien hasiko dou Udaixe. Hillen 28xen Usakora juengo gare, arratsalde pasa. Hillen 30ien, barriz, gazte olimpiadak egingo dou Zaldibarren. Jakin, ez diela betiko olimpiadak izengo; abilidadie lantzeko ekintzak egingo dou, baiñe batez be, barre egitteko jolasak izengo die; azken baten, ondo pasetie da gure doune. 16:30ien elkartuko gare Zaldibarren.

## Ze asmokin antolatu dozue julixue ekinzekin bete dozuen egitasmuoi?

Kontue da julixuen Arrasateko 12-16 urte bittarteko gaztiendako ez dala gauza haundurik egoten. Udalekuek eta holakuek



badauz, baiñe itxixek izeten die. Horrekin batera, urtien zihher Gazte Txokuetan egin doun lanai jarraipena emun gure dutzou. Horregatik antolatu dou Udaixe.

## Izena emun biher dala esan dou, baiñe ez ekintza danetan.

Hori da. Izena emun biher da, bestiek beste, Zarautzen egingo doun surf ikastorara etorteko, Lekeitiora egingo doun urteerako, Garaiora bizikletan ibiltzera etorteko ala julixo bukaeran Huescan egingo doun asteburu-pasara etorteko. Baiñe beste ekintza asko dauz izena emun biher ez dienak: gazte olimpiadak, zine emanaldixe, Udalako igerilekuetara urteerie, mendi urteerie... Horretarako, hitzordure agerketiekin nahikue izengo da.

## Eta, zeintzuk ibilliko zarie Udaixen lanien?

Oin arte Mondragueko Gazte Txokuetan lanien ibilli garen begiraleiek egongo gara Udaixen: Julen, Jone, Itsaso, Haizea, Mikel eta Amaia. Eta gaztiei animetako esan gure dutzou, edarto pasauko daue-eta!

**bere ustez**



Nerea Makazaga

## Hasiera, bukaera, hasiera

**H**asiera eta amaieriek ekite berriei atea irekitzen dizkiete; lehenak helburu baten jokoan inplizituki badarama, bigarrenak helburu berri bat eskatzen du zeharkatu edo gaindituaz bat.

Hasiera eta amaierak arlo anitzetan bizi daitezke; pertsonalak izanik, mugara arteko bideek gutxitan izaten dute luzera eta intentsitate berdina. Burututako ihesaldi eta itzulerak ere kontuan hartu beharrekoak direlako -denbora galdu iza-

## "Gaurko eguna, besteak beste, ziklo bat baino ez da, eta gaur ere, itxi egingo da"

naren konnotaziorik gabegaraiek paisaia aldatuetara garamatzate.

Bide berean, azpi-hasiera, edo ber-hasiera bati ekiten diogu motibazioak berriz ere besarkatzen gaituela sentitzean. Estrategia finkoago batekin, zapatak behar duten zenbakikoak direla, pausu erritmatuagoan... helmugari beste barne indar batekin egin dakiogeku so.

Hasiera eta amaierak ez dute adinik, duzun adina duzula hainbat hasiera eta hainbat amaiera bizi dituzu, hainbat hasieratan barnertua izan zaitezke une honetan eta hainbat amaiera izan zain.

Gaurko eguna, besteak beste, ziklo bat baino ez da, eta gaur ere, itxiko da.

**txutxumutxua**

## "Bartzelonako jatetxe bateko atean egin genuen tupust Geraldine Chaplinekin"

Gure Leku tabernako Agustinek eman digu txutxu-mutxuaren berri: "Neskalagunarekin batera joan nintzen maiatzeko azken egunetan Bartzelonara. Rollingen kontzertua ikustea zen asmoa, baina emanaldia bertan behera utzi zutenez, Bartzelonan gora eta behera ibiltzeko aprobetxatu genuen. Eguerdi partean jatetxe batera gerturatu ginen bazkaltzera, eta atean bertan tupust egin nuen emakume batekin. Berehala konturatu nintzen Geraldine Chaplin zela, eta berarekin argazki bat ateratzea posible ote zen galdetu nion. Oso jator egin zigun, baietz erantzunez. Berarekin zegoen Carlos Saurak egin zigun erretratua".



CARLOS SAURA

INGURUMENA &gt; LANDA GARAPEN AGENTZIAREN PROIEKTUA

# Debarroa ezagutzeko proiektu integrala abiaraziko dute irailetik aurrera

Uztailean aurkeztuko dute proiektua eta ikasleendako, nagusiendako eta enpresaburuendako programak jasotzen ditu

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Debarroa ezagutzeko programa bat egin dute Debagoieneko eta Debabarreneko landa garapeneko agentziek, eta herriko sektore guztiengana iritsiko da. Bi eskualdeetako herrietan jarriko dute martxan proiektu hori, eta, noski, baita Bergaran ere.

IKASLEENDAKO BISITAK

Proiektuaren helburua da Debarroa nolako den erakustea, bai geografikoki, bai naturalki eta

baita landa produkzio aldetik ere, adibidez. Horretarako hainbat programa prestatzen ari dira herriko ikasleendako, nagusiendako eta enpresaburuendako. Ikasleek, adibidez, egun erdiko edo oso bitak egingo dituzte Debarroko baserrietara, ogia edo txakolina nola egiten duten ikusteko, adibidez, edo esne produkzioa gertutik ezagutzeko. Dagoeneko material didaktikoa banatu dute ikas-tetxeetan eta irailerako bideo jokoak egingo dute. Bisitak ere irailetik aurrera zehaztuko dituzte.

UZTAILEAN DA AURKEZPENA

Uztailaren erdialdean egingo dute Debarroa proiektuaren aurkezpen ofiziala. Bi eskualdeetako udalei ere laguntza eskatu diete landa garapeneko agentziek, eta ondo erantzun diote proiektuari. Bergarako Udalak onartu du dagoeneko dirulaguntza proiektu horrendako.



PRODUKZIOA Debarroko produkzioetara mugatuko dituzte bisitak.

GOIENKARIA

## 30 kiloko ezpatarrain 'bizkaitarra'

Ezpatarrain dotorea ekarri zuen German Lete Bergarako arrain saltzaileak joan den astean. 30 kilo pisatzen zuen eta Bizkaiko kostan dagoen Izaro irlatik oso gertu harrapatu zuen Elantxobeko Noyes arrain-ontziak. Ez da oso ohikoa kostaldetik hain gertu ezpatarrainak egotea.

Ondarroan erosi zuen German Letek 30 kiloko pieza hori eta egubakoitzean merkatura joan ziren herritarrek zur eta lur gelditu ziren hain arrain ikusgarriarekin.



EDU MENDIBIL

&gt; JAIK

## Herri kirolak, sardina jana eta musika asteburu honetan Elosuko eta San Antonioko jaietan

Elosun Otaba jaiak ospatuko dituzte asteburuan eta San Antonio auzoan, berriz, martitzeneko San Antonio jaiak jarraipena izango du. Bihar, zapatua, arratsaldean, basurdeak, poniak eta zezentxoak egongo dira, besteak beste, umeendako. Gauean, sardina jana egingo dute Gure Ametsa elkartearen aurrean. Elosun, berriz, auzo afaria egingo dute zapatu gauean; domekan pilota partidua eta jolasak umeendako, herri kirolak eta dantzaldia izango dituzte. Jaiak asteleheneko afariarekin bukatuko dira.

&gt; ALKATEA TELEBISTAN

## Victoriano Gallastegi herriko alkatea GOITBko 'Debarri' programan egongo da eguaztenean

Victoriano Gallastegi herriko alkatea GOITBko *Debarri* programan izango da datorren eguaztenean, ekainaren 21ean. Alberto Gorritiberea kazetariak egingo dio elkarrizketa eta herriko kontuez galdetuko dio, besteak beste. Hala ere, herritarrek ere badute aukera galderak egiteko alkateari berari. Sarean sartu eta [www.goiena.net](http://www.goiena.net) helbidera joanda, ezkerreko zutabearen dago aukera galdera horiek egiteko. Alkateak *Debarri* programa barruan erantzungo ditu galdera horiek. Herritarren kezkez aritzeaz gain, herritik kanpo bizi den lagun batekin ere hitz egingo dute.



**ekar**<sup>m</sup>

Orain, **elkar txartel berriarekin:**

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta **doan** atera.

**elkar megadenda** Bergaran  
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA  
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK



San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

**BERGARA**



Anseldo Vega 'Mito' > Angiozarko eskolako irakaslea

# "Haur Hezkuntzarekin soilik eskola kondentatzen dute"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Lekunberri ondoan eta Lasturren izan da aste honetan *Mito* eskolako zortzi ikaslerekin. 18 urte daramatza irteera horiek egiten. Ikasurte honetan 11 ikasle izan dituzte Angiozarren eta hurrengorako bederatzik eman dute izena.

**Nola jaso duzu Jaurlaritzak bidalitako oharra?**

Bat-batean jaso dugu eta asko harritu nau, baita kezkatu ere.

**Zer dio oharra?**

Datorren urtean ez dela Lehen Hezkuntza mailarik egongo Angiozarko eskola txikian, Haur Hezkuntza soilik. Baina kontua da ez dagoela argi datorren urterako betebeharrak bakarrik den edo baita datozen urteetarako ere.

**Zenbat ikasleri eragiten die erabaki horrek?**

Biri. Hirugarren eta laugarren mailatan dabilta, eta esandakoaren arabera, Bergarara jaitzi beharko lukete haur horiek.

**Eta hori txarra da?**

Bergarara jaitzi behar duten, prestatu egiten ditugu; esaten diegu, adibidez, eskola handietako metodologia ezberdina izaten dela, harremanak egin behar dituztela, eta abar, baina ez bat-batean, azken ikasurtean zehar baizik.

**Zergatik heldu zaizue ohar hori eta zergatik orain?**

Aurrekontuak murriztu nahi dituztelako pentsatu dute hori egitea, nire ustez; beste eskola batzuetan ere badu eragina.

**Ze arrazoi eman dizute?**

Esaten dute Haur Hezkuntza hirugarren edo laugarren mailetara bitartean ez dagoela hau-

rririk, eta horregatik jaitzi behar dutela bi ikasle horiek Bergara. Baina hori aitzakia hutsa da.

**Zer gertatuko da betez gero?**

Eskola modu horretan mantentzea eskola kondentatzea da. Gainera, jende gazte asko etorri da azken urteotan Angiozarreara bizi izatera, etxebizitza dezente ari dira egiten eta etorkizunean umeak egongo direla pentsa daiteke.

**Irakasle kopurua ere murriztuko dute?**


Ez dut uste, jasota dutelako eskola txikietan bi irakasle egon behar dutela, behintzat.

**Negoziatzen jarraituko duzue?**

Bai. Gurasoek ere ez dute nahi eskola egoera horretan uztea, eta bilerak egiten segituko dute.

**Zein da eskolaren funtzioa?**

Formazioa, herrian ikasteak umeendako duen garrantzia eta herrian sortzen duen giroa, besteak beste.



Mito-k 21 urte daramatza irakasle Angiozarko eskolan.

GOIENKARIA

JAIK > UZTAILAREN 2AN DA SAN MARTZIAL

## Astelehenetik aurrera hartu behar dira San Martzial egunerako mahaiak

Tabernaren eta txosnaren ardura hartu nahi duen taldeak, eguen eguerdia baino lehen eman behar du izena

eta aulkiak uztailaren lehen hartu behar dira San Martzialgo kantina ondokik.

Mahai bakoitzaren alokairua 20 euro dira eta eskatzaile bakoitzak ezingo du bost baino gehiago hartu. 100 euroko fidantza jarri behar du eskatzaile bakoitzak eta uztailaren 3tik 7ra bitartean jaso ahal izango du, seilua duen orria entregatzen duenak.

**JOLASERAKO LAGUNTZA**

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera herri jolasak antolatzen laguntzaileak behar dituzte eta prest daudenak martitzen kultur etxean, 17:00etan, egingo duten bilerara joan daitezke.



SAN MARTZIAL Uztailaren 2an da aurten San Martzial.

GOIENKARIA

URTEKO BATZARRA

## Aranzadik batzar orokorra du eguaztenean

Aranzadi Ikastolak urteko batzar orokorra egingo du datorren eguaztenean, ekainaren 21ean. Uned ikastetxe-ko areto nagusian egingo dute batzarra. Lehen deialdia 18:00etan da eta ordu erdi geroago bigarrena. Bazkide guztiak daude deituta.

Zortzi puntu izango ditu batzar orokor horrek, horien artean: aurtengo ikasurtearen memoria, hurrengoaren egitasmoa, iazko kontuen kudeaketa aztertzea, soberakinak banatzea eta aurtengo kuoten onarpena.

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**KONDE  
PANADEROKUA**



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**ETXE BERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegarieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

&gt; AISIALDIA

**'Gazte gauak', 12-16 urte bitarteko gaztetxoendako**

Udaleko Kultura Zerbitzuak *Gazte gauak* ekimena antolatu du 12-16 urteko gaztetxoendako. Gaur, ekainak 16, ekainaren 30ean, uztailearen 14an eta uztailearen 21ean hainbat ekitaldi izango dira Arrizuriagan, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak kultura etxean, 943 77 91 60 zenbakian.

&gt; IRRATIA

**Mostraren gaineko saio bereziak Txapa Irratian**

Txotxongiloen Mostraren jarraipen berezia egingo du Txapa Irratiak (FM 97.25) egunotan. Hain zuzen ere, domekara bitartean irratsaio bereziak izango dira, 21:00etan hasita. Era berean, eguerditan, bezperako saioak errepikatuko dituzte Txapa Irratikoek.

&gt; ERAKUSKETA

**Mari Carmen Laskurainen margoak Elgetan**

Mari Carmen Laskurainen margolari bergararraren erakusketa ikusgai dago Elgetako Espaloia aretoan, ekainaren 28ra arte.

Laskurainek 18 margolan jarri ditu Espaloian: paisaiak, loreak, natura hilak... 17 urte inguru darama margotzen eta olioak margotzea du gustuko.

&gt; EUSKARA

**Jardun elkartearen eskaintza hurrengo ikasturterako**

Jardun euskara elkarteak hasi da hurrengo ikasturterako plangintza osatzen: bertso eskola, trikiti eskola, etorkin gaztetxoendako euskarazko eskolak, aste bukaerako aisialdi eskaintza eta beste hainbat. Izenematea eta argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefonoan.



DENDATIK ETXERA Herriko hainbat dendatan liburuak gainerik irakurri eta aukeraturakoa etxera eramaterik izango da.

E.M.

**IRAKURKETA > 'IRAKURRI' KANPAINAREN BIGARREN ZATIARI DAGOKIO EKIMENA**

# Irakurketa bultzatzeko asmoz 'Dendetan irakurri' kanpaina jarri dute abian

Irakurketa bultzatzeko asmoz, bezeroen eskura liburuak utziko dituzte herriko hamabi dendatan

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

*Dendetan irakurri* izenburuko kanpaina jarri du abian Bergarako Udal Liburutegiak, herriko hainbat komertzioekin batera. Irakurketa bultzatzeko asmoz, bezeroen eskura liburuak utziko dituzte hamabi dendatan.

Hain zuzen, honako hamabi dendatan izango dira liburuak: Itxas-Eder arrandegian, Leturia eta Igarza harategietan, Gisasola burdindegian, Julen Narbaitza pentsu dendan, Txukun janari dendan, Hurbil dietetikan, Lazkano eta Jauja kirol dendetan, Ardatza eskulan dendan, Barce-lo bidaia agentzian eta San Martin osasun etxean.

Ekimen honen xedea zera da: liburuak liburutegitik atera eta beste hainbat tokitara helarazi, edonon irakurtzerik dagoela adierazteko. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza-

ren laguntzarekin Bergarako Udal Liburutegiak antolatu du *Dendetan irakurri* ekimena, irakurketa bultzatzeko asmoz.

**KANPAINA, HILAREN 24RA ARTE**

Kanpainen parte hartzen duten dendak jardueren arabera liburuak dira toki bakoitzean topatuko direnak. Edonork liburuak gainerik irakurri eta etxera eramaterik izango du, ondoren udal liburutegian bueltatzeko baldintza bakarrarekin. Dendariak, berriz, liburuak nori uzten dion apuntatuko du. Kanpaina astelehenean, hilaren 12an, jarri zuten


abian eta ekainaren 24ra arte iraungo du.

Ekimena *Irakurri* kanpainen bigarren zatiari dagokio; aurrean jarri da kanpaina martxan lehen aldiz irakurketa eta liburutegi publikoen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko. Urrian, munduko liburutegien egunaren inguruan, izango da *Irakurri* kanpainen azken zatia.

Bergarako Udal Liburutegiko arduradunek zera gogoratu nahi dute: bertara joateagatik eta liburuak maileguan hartzeagatik ez dagoela ezer ordaindu beharrik.

## Ikuskizun ugari Helduendako Txotxongiloen Mostran

Mostraren barruan, gaur Pepe Otalen eta Pep Gomezen *La divina comedia* ikusteko aukera izango da Pol-Polen, 20:30ean, eta gauean, gaztetxean, Valeria Gugliettiren *No toquen mis manos*, 22:30ean. Bihar, zapatua, *Kukubel* eguerdian kalean, *Historias para un desván* Pol-Polen 20:30ean eta *Paella* (irudian) gauean gaztetxean. Domekan beste hiru emanaldi izango dira. Aldi berean, *Stopmotion: cine y marionetas* erakusketa domekara arte Aroztegin zabalik.



TAUN-TAUN

**Dixula****BOKATAK  
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95



San Juan auzoa Tel.: 943 76 35 51



## Festa kubatar-tropikalera gonbidatzen zaitugu

Ekainaren 17a, zapatua, gaueko 12:30ean

### “Burumba del Caribe”

taldearen emanaldia zuzenean

Zatoz gau alai bat pasatzera!

Menu berezia: 14 euro

Karta

Tropikal menu berezia

Erreserbatu mahaia orain!

Tel.: 943 76 35 51



## Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?



Mixel González

Postaria

Bianca Daubagna

Jaurritzako langilea

David Arnaiz

Ikaslea

Rosangela De Oliveira

Zaharbertzalea

Magdalena Cuesta

Erzalna

Jabier Lejarzegi

Erretiratu

Paki Mendizabal

Etxekoandrea

Cristina Rodríguez

Langabea

## 2006ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

### Eskaintza:

Euskalduntze maila guztiak, alfabetatze, EGA eta Hizkuntza Eskakizunak

EGA 80 orduko ikastaroa

### Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-12:30, arratsaldez: 14:30-18:30

Ostiraletan: 08:00-15:00

2006-2007 ikasturterako aurrematrikula zabalik

## Matrikula zabalik

Ekainaren 12tik 23ra

24 urte euskara irakasten  
Maila guztiak  
Ordutegi zabalak  
Bekak/ HABEren diplomak...

HABEren diruagintza

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA  
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net  
berg.euskudal@euskalnet.net



www.udaleuskaltegiak.net

TXIRRINDULARITZA &gt; SAN ANTONIO SARIA

# Hogei talde inguru espero dituzte bihar egingo duten San Antonio sarian

Lehenengo eta bigarren urteko kadete mailako lasterketa izango da; 16:00etan hasiko da proba, eta lasterkariak 70 kilometro egingo dituzte

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Bihar egingo dute, Lokatza taldearen eskutik, 70. San Antonio Saria. Kadete mailako lasterkariak 16:00etan hasiko dute 69,5 kilometro izango dituen lasterketa. Bergaran hasiko dira pedalei ematen, Osintxuraino jaitsiko dira, han buelta erdi hartu eta Eskoriatzaraino igotzeko. Eskoriatzatik Bergarara etorriko dira berriro ere, eta Antzuolara egingo dute joan-etorria; Osintxura berriro ere jaitsi eta San Antonio egongo da helmuga. Probako antolatzaile Pello Garitanok esan digu gazte horiendako etapa nahiko gogorra izango dela:

"70 kilometroko lasterketa da, eta kadete mailan egiteko ez dago txarto. Proban zehar ez dago mald handiko igoerarik, baina Antzuolara igo behar izateak, adibidez, min egingo die. Ordu-rako 52 kilometro eginak izango dituzte, eta nekea igarriko dute hanketan. Kontuan izan, adin horietan berehala geratzen direla atzean".

DEBAGOIENDARRAK LEHIAN

Biharko lasterketarako 20-22 talde inguru espero dituzte Lokatzakoek. Proba egunean egiten dituzte izenemateak, eta lehenago ez dago zenbat etorriko diren esa-



IBARREAN GORA Kadete mailako lasterkariak, joan den urtean, Bergaratik Arrasatera bidean, Olako zuzengunean.

J.A.

terik. Pello Garitanok aurreikus-tan du 90-100 txirrindulari inguru izango direla, horietako asko ibarrekoak. Lokatza taldeko eta Aloña Mendi taldeko ziklistak izango dira bihar irteeran. Lokatza taldea hiru txirrindularik

ordezkatuko dute: "Guk hiru mutiko ditugu, Xabier Martinez, Xabier Arantzeta eta Unai Martinez". Aloña Mendiko taldetik, berriz, hamar txirrindulari izango dira: Xabier Arnaitz, Oier Olalde, Ander Altube, Julen Arkauz,

Iñaki Igartua, Xabier Mugartza, Iñaki Madinabeitia, Julen Elko-roiribe, Unai Barrena eta Andoni Urrutia. Joan den astean Xabier Arnaitz gailendu zen Olakuako lasterketan; bera izan daiteke, bihar, favoritoetako bat.

## Denondako kirol jaia egingo dute zapatuan, Labegaraietan

Urritasun fisikoa eta psikikoa dutenek erakutsiko dute, hamaugarren urtez, kirol kontuetan ez direla atzean geratzen. Bihar egingo dute kirol jaia, Labegaraietan. Hala, 10:30ean hasita urritasun txikia dutenek saskibaloian, aerobikean, badmintonean eta beste hainbat kirol jardueratan ibiliko dira, jo eta sua. Hala, zailtasun handiagoak dituztenek Boccian jardungo dute, petankaren antza duen jolasean. Erretratuan hainbat lagun mini-golfean jokatzeko, joan den urteko jaietan.



GOIENKARIA

&gt; UDAKO KIROL KANPAINA

### Gaur da izena emateko azken eguna

Jakin, gaur dela datozen hila-beteotarako antolatutuzten kirol jardueretan izena emateko azken eguna. Horretarako, 943 77 91 67 telefonora deitu, eta bertan izango duzue informazio gehiago.

Jakin, ekainaren 26tik uztailaren 7ra egingo dutela lehenengo txanda, eta uztailaren 10etik 21era bigarren txanda. Bi txanda horietan kirol ekin-tza mordoa daude aukeran: patinajea, aero-dance, batuka, pilates, yoga hastapena, tenisa, euskal pilota jolasak eta beste asko. Aurten, gainera, Urkuluko urtegiaren piraguan ibiltzeko aukera ere eskaintzen du Udako kirol kanpainak. Animatu!

# EDEL

## TAPIZ DENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**



**Irrintzi**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26



- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ margo industrialia
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ erreformak orokorrean

Sagasti auzoa Z<sup>a</sup> 5-3D  
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955  
687 570 777

# Goienkaria

Martitzena / 2006ko ekainaren 20a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



## SAN JUANAK 2006

Arrasate

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKIA: XABIER URTZELAI



### ZURE OPTIKA ITZIAR UGARTE

*Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak*

*Ondo pasau*

*San Juan Jaixak!*

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87  
Eskola Politeknikoaren ondoan



*Arrasateko Udalbatzak  
San Juan jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
arrasatear guztioi*



**ARRASATEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN**

**AURKIBIDEA**

- Egitaraua > 04
- Txosnak > 06
- Umeak > 10
- Salbea > 13
- Danborradak > 15
- Arrasate Musikal > 18
- Makala > 20
- Errekortadoreak > 22
- Kirolak > 24
- Dragoi Jana > 29
- Errementari dantza > 30
- San Juan sua > 31
- Nagusiak > 32
- Kontzertuak > 34
- Kaleko giroa > 36
- Antzerkia > 37
- Parrillada > 38



**alkatearen agurra**

Inazio Lakuntza

**B**etidanik ikasturte bukaera lotu izan dugu San Juan jaiekin eta baita udaren hasierarekin ere. Kurtsoa denontzat gogorra izan bada ere, espero dut emaitzak guztion gustukoak izatea.

San Juanak iritsi zaizkigu eta gure egunerokotasuna alde batera utzita, bai arrasatearrok bai bisitariok jaietan ondo pasatzera gonbidatzen zaituztet. Nire desioa da ondo pasatzea familiarekin, lagunekin eta prestatu dugun jai egitarauarekin, nahiz eta batzuek horretarako aukerarik ez izan, gure artean ez daudelako.

Momentu honetan bizi dugun egoera politikoak laguntzen du gauzak bide egokitik joan daitezen, are gehiago denok eskuzabaltasunez jokatzeko baldin badakigu. Horrela, posible izango da horrenbeste lagun ametsa gauzatzea: bakea.

Bihotzez opa dizuegu, bai udalbatzak baita neuk ere, San Juan jaiak eta uda ondo pasatzea.

Agur eta ondo izan!

**kale inkesta**

**Jaiak bi asteburutan ospatzea hobeto litzateke?**



**Roberto Sanchez**  
Ikaslea

Egia esan, ni azterketetan nago, hortaz, niretako zaila da egotea. Dena den, enpresetan jai ematen badute, eta jendea kanpora badoa, akaso, irtenbide ona da bi asteburutan ospatzea.



**Ana Isabel Donoso**  
Langilea

Idea ona pentsatzen zait; izan ere, lehengo jaiek ez dute batere zerikusirik oraingoekin. Pena ematen dit, umetan jaiak asko gozatzeko nituelako; orain, berriz, ez da ezer egoten.



**Aritz Legarretaetxebarria**  
Ikaslea

Nik bi aukera ditut San Juanetan: ikasi edo ikasi. Izan ere, hemengo unibertsitateetan oso berandu bukatzen dira azterketak. Dena den, asteburuetan ospatuz gero, akaso hobea.



**Marta Bouzas**  
Langilea

Hobeto izango litzateke asteburuetan ospatzea, bai; izan ere, aste barruan herriko jendeak ospa egiten du eta kanpokoak ezin dira etorri... Nire ustez, eguneko ekitaldiak falta dira.



**Jose Luis Agirregomezkorta**  
Erretiratua

Nik pentsatzen dut bi asteburutan ospatuz gero, jende dezente gehiago ibiliko litzatekeela jaietan. Ni jaietan hemen geratzen naiz eta jaiak bukatzen direnean joaten naiz.



**Agurtzane Barandiaran**  
Langilea

Nik uste dut nahiz eta asteburutan ospatu, jendea berdin irtenko litzatekeela kanpora; dena dela, hemen lanean geratu behar duenak gehiago aprobetxatuko luke eta baita kanpokoek ere.

**argazki zaharra**

**Danborrada lehen, orain eta beti**

Danborradaren garrantzia aurten ondo asko igarriko da, sekulako jendetza batu du eta ekitaldi horrek. Baina betidanik izan du antzerako arrakasta danborradak; bai antzina-antzina, baita lehenagoko hamarkadetan ere.

Horren irudi da 90eko hamarkadako argazki hau. Gazteluondokoak dira. Honako hauek, ezkerretik eskumara: Julen Zaitegi, Kepa Etxebarria, Asier Ansuategi eta Jokin Bereziar-

tua. Keparen eta Julenen artean dagoena da Ekaitz Aranburuzabala. Eta atzeko neskatila, berriz, Maite Sampedro dela uste du gure berriemaileak.

Julenek gogoan du eskoletan San Juanak iristeko gogoz egoten zirela eta baita ere orain baino jende gehiago ibiltzen zela jaietan.

**Argazkia:** Arrasate Press.  
**Testua:** Julen Zaitegi.  
**Urtea:** 1990eko hamarkada.



**Goienkaria**

**Argiriratzaila** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Xabi Urtzelai, Ubane Madera, Edu Mendibil, Arantzazu Ezkibel, Jon Bereziar, Mireia Bikuña, Irati Agirreazaldegi **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Natali Martinez, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**EGOITZA NAGUSIA**  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila Tel.: 943 25 05 01/02 • Posta-e: goienkaria@goiena.com  
**ORDEZKARITZAK**  
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 71 25 11 Posta-e: arrasate@goiena.com  
ARETXABALETA 20550 Durana 11 151 posta-kutxatila Tel.: 943 79 86 21 Posta-e: aretxabaleta@goiena.com  
**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 79 21 00 Posta-e: publi@goiena.com  
**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 ISSN: 1577-1210 • **Tirada:** 7.000 ale



OID erakundeak ikuskatutako astekaria



Eusko Jaurilaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

LAGUNTZAILEAK

## EGITARAUA

# JAI ETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza 23, San Juan bezpera

**15:00** Txosna batzordeak antolatuta, KOADRILEN

ARTEKO BAZKARIA.

**16:00** Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

**16:00** ETXAFUEGOAK eta BONBA JAPONIARRAK, Herriko Plazan.

**16:30** Niko eta Periko PAILAZOEN EMANALDIA, Herriko Plazan.

**17:00** Makala jasotzera joateko hitzordua, Maalan.

**18:00** MAKALA JASOTZEA, Herriko Plazan.

**19:30** TXOSNEN IREKITZEA.

**19:30** SALBEA, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

**21:30** ERREMENTARI DANTZA. Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek hartuko dute parte.

**22:30** SAN JUAN SUA, Herriko Plazan.

**23:00** NAGUSIEN DANBORRADA, herriko kaleetan.

**Ondoren**, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA, Herriko Plazan.

**01:00** Euskal preso eta iheslarien aldeko MANIFESTAZIOA, Seber Altubetik.

**03:00** MANSILLAROCK, 3.60 aretoan.

## Zapatua 24, San Juan eguna

**08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.

**Gero**, Zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

**11:00** MEZA NAGUSIA, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

**11:00** Arrasateko ERRALDOIEN eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

**11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA.

**11:15** Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa eta musika banda.

**12:00** OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA, Herriko Plazan.



ENTZIERROA GOIZERO EGONGO DA.

**12:30** OMENALDIA 80 URTETIK GORAKOEI, Abaroan.

**13:00** McKensy's Clan Band-en KALEJIRA.

**13:00** KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik, Monterron parkean.

### Egitaraua:

*Russian Dance*. K. Vlak.

(Lurdes Arkotxa gogoan)

1. Overture
2. Elegiak dance
3. Petrushka
4. Trepak

*Moment for Morricone*. E. Morricone

*El barberillo de Lavapies*. F. Barbieri

*Gengis Khan*. K. Vlak.

*Carmen*. G. Bizet

*Orient Express*. S. Sparke

*Hartzaren ehiza*. L. Aranburu

*Gora Arrasate*. J. Artzamendi

*San Juan*. J. Artzamendi (konponketak)

Zuzendaria: Iker Olazabal



**OBRA AMAIERAKO GARBIKETAK  
GARBITZE ETA MANTENTZE LANAK:  
ENPRESAK  
BULEGOAK  
GARAJEAK  
KOMUNITATEAK  
ETA ABAR**

**Gora San Juanak!**

**Intxaurtxueta 16 behea ESKORIATZA**  
**Tel.: 943 71 48 45**

**[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)**



## EGITARUA

**16:00** XAKE NORGEHIAGOKA. Leintz bailarako selekzioa Donostiako selekzioaren aurka. Seber Altube plazan.

**18:00** ARKU TIRO LEHIAKETA, Zaldibar pilotalekuan. Arku tiroa praktikatzeko aukera ere izango da.

**19:00** BERTSO-TRIKI POTEOA, Txosna batzordeak antolatuta.

**19:30** BIKE TRIAL erakustaldia, zezen-plazan, BENITO ROS munduko txapeldunaren eskutik.

**20:00** Mckensy's Clan Bandaren KALEJIRA.

**21:00** DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Antolatzaileak: AED eta AEK.

**22:00** KONTZERTUA, gaztetxean.

**23:00** SU ARTIFIZIALAK, Astondoa pirotekniaren eskutik. Santa Barbaratik.

**23:30** ERROMERIA, JOSELU ANAIK taldearekin, Herriko Plazan.

**23:30** ROCK KONTZERTUA: Rafa Rueda abeslaria eta Doctor Deseo taldea, Monterron parkean.

**03:30** FUNK MUSIKA, 3.60 aretoan.

Gorka

Fernando Pineda (Madril)

Gonzalo Morbid

## Domeka 25, Haurren eta gaztetxoaren eguna

**08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.

**Gero**, Zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

**09:30** Haurrak eta gaztetxoak esnatzeko DIANA herrian barrena.



JOSELU ANAIKIN ERROMERIA SAN JUAN EGUNEAN.

**10:45-11:00** EGUZKI LARURI ONGIETORRIA egingo diote Seber Altube plazan haurrek eta gaztetxoek, herriko trikitilariekin batera.

**11:0-14:00** JOLAS PARKEA, Zaldibarren

**14:30** HERRI BAZKARIA, txosna-gunean.

**16:30-18:30** Eguzki Laruren JOLAS PARKEA, Zaldibarren. Merienda eta zurrupaki tropikala banatuko dituzte.

**17:00** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Uarkapen. Sarrera 15 euro.

Saralegi-Beobide//Beloki II.a-Eskudero

Olaizola II.a-Otxandorena//Bengoetxea VI.a-Beloki

**17:00** GINKANA, txosna-gunetik abiatuta.

**18:30** KANPANOLUE ikuskizuna, Zaldibarren.

**Ondoren**, EGUZKI LARURI agurra.

**19:30** Gente Colgada konpainiak *TANGO VOLADO* ikuskizuna eskainiko du Seber Altube plazan. (Lehen emanaldia).

**19:30** ZEZENKETA. Errekortadoreak eta beste ikuskizun batzuk, zezen-plazan.

**20:30** Gente Colgada konpainiaren *TANGO VOLADO* ikuskizuna. (Bigarren emanaldia).

**22:30** DANTZALDIA, Nueva Alaska Orkestrarekin, Herriko Plazan.

**22:30** ANTZERKIA Monterron parkean. *TODOS NACEMOS VASCOS* antzezlan GLU-GLU taldearen eskutik.

**00:00** KONTZERTUA, txosna-gunean, Ozen eta Naiz Roxa taldeekin

## Astlehena 26

**08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.

**Gero**, Zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan. LOS INCANSABLES txarangak girotuko du ikuskizuna.

**11:00** Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN KONPARTSAREN KALEJIRA.

**12:00** KALEJIRA trikitilariekin.

**12:00-14:30** Eusko Labelen eskutik HEGALUZE eta ATUNGORRI dastatzea Herriko Plazan. Bildutako dirua GOIKOBALU abesbatzarendako izango da.

**13:00** KALEJIRA Los Angeles de Mexico mariachiekin, alde zaharrear.

**18:15** Yarleku taldearen eskutik HAUR ANTZERKIA Seber Altuben: *NUMENAK*.

**19:00** Ikuskizuna txosna-gunean.

**19:30** SOKA DANTZA, Herriko Plazan.

**20:00** *MEXICO LINDO* ikuskizuna Herriko Plazan: Los Angeles de Mexico mariachia eta Tenochtitlan de Puebla dantza taldea.


**22:00** ORDU ALAIA, txosnetan. Edariak merkeago..

**23:00** NESKEN KONTZERTUA, 3.60 aretoan.

Street Girls (Zaldibar)

Lost Girls (Arrasate)

Against the Rapist (Bergara)



DOMEKAN HAURREN EGUNA IZANGO DA.

# Aldape Taberna

Eguneko menua **Jatetxea**

Iturriotz 41. ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 69



  
**ARPE**

**Ile apaindegirako  
artikulak**

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09



**Etxe**  
mobiliario y  
decoracion

**Altzariak  
eta  
dekorazioa**

Ondo pasatu San Juanak!

Ferrerias 17 Tel. eta faxa: 943 79 03 17  
e-posta: etxe-mobilario@hotmail.com

**COMERCIOS  
CENTROCIEN**

Arbolapetan  
Olarte23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 27

## TXOSNAK

# Ekitaldi ugari eta hiru txosna Monterronen

Aurten ez da ogitartekorik izango txosnetan; edariak baino ez dituzte zerbitzatuko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Tabernetako ohiko girotik askorik alden-  
du gabe, Monterron parkearen azpiko  
aldean bestelako giroa aurki genezake,  
txosnetako giroa, hain zuzen ere.

**H**iru txosna ipiniko dituzte guztira herriko hainbat taldek; tartean dira Ikasle Abertzaleak, Segi, Euskal Herrian Euskaraz eta Askatasuna.

Lehen egunean izan ezik (irekiera 19:30ean izango da) gainontzeko egunean 19:00etan zabalduko dituzte txosnak eta goizaldera bitartean egongo dira irekita.

Txosnetan edariak baino ez dira izango aurten. Azken bi urteotan ogitartekoak ere saldu dituzte, baina lan handia ematen duenez aurten ez egitea erabaki dute.

Txosna batzordetik esan digute euren helburua dela "herriarregandik sortutako dinamikak



Arrakastaz eta jai giro politean egin izan da beste urte batzuetan koadrilen bazkaria; aurten ere hala izatea espero dute.

GOIENKARIA

aurrera ateratzea, gure kultura sustatuz jai giroa sortzea eta honetaz gozatzea... Horretarako ez da aurrekontu handirik behar. Herriarren parte-hartzea eta ondo pasatzeko gogoia nahikoa dira". Argi utzi dute txosna-gunea esparru

**Lau egunerako bi bazkari antolatu dituzte: koadrilen bazkaria Uarkapen izango da eta euskal preso eta iheslarien aldekoa txosna-gunean**

irekia dela, beraz, "ongi pasatzeko gogoia daukan edozeinek edukiko du lekua bertan".

#### EKITALDIAK

Txosnetan jai giroa bultzatzeko, batzordeak zenbait ekitaldi antolatu ditu.

Txosna-gunea  
**Egubakoitzetik astelehenera**

Ekainaren 23an  
19:30ean zabalduko dituzte eta egunero goizaldean itxi

Egubakoitzean arratsaldean zabalduko dituzte txosnak, baina aurrez egongo da jaiaz gozatzeko aukerarik. 15:00etan koadrilen bazkaria izango da Uarkapen. Txartelak salgai daude Biona, Iluntz eta Ekaitz tabernetan.

Ondoren, koadriletako kideak Maalara abiatuko dira, han egin baitute hitzordua, 17:00etan, gero makalaren jasotzeko ekitaldira joateko. Makala 18:00etan jasoko dute.

Txosnak 19:30ean zabalduko dituzte eta musika eta trago artean ordu txikiak arte ibiliko da jendea bertan. 01:00etan, ordea, etena izango da, euskal preso eta iheslarien aldeko manifestazioa egingo baitute Seber Altubetik abiatuta.

Zapatuan arratsalde eta iluntze parterako antolatu dituzte ekitaldiak. Lehenengo, 19:00etan hasita bertso-triki poteoa egingo dute. Gauean, berriz, kontzertua egongo da 22:00etan gaztetxean.

Domekan txosna-gunean preso eta iheslarien aldeko herri bazkaria izango da, 14:30ean. Bazkalostean, animatzen direnekin


**MENDIZABAL** okindegia

*egunero zure alboan!*

**ARRASATE**

Seber Altube 2

943 79 89 60



**JOSE ANTONIO**  
ILE-APAINDEGIA

Otalora 22 behea Tel.: 943 79 42 10 ARRASATE



**eya**

Ondo pasatu  
San Juanak

**etxetresna elektrikoak**

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxe: 943 77 20 51  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

## Zapatuan bertso-triki poteoa eta kontzertua izango dira

## Domeka arratsaldean ikuskizuna egongo da txosna-gunean

taldeak osatuko dituzte eta ondoren, 17:00etan, ginkana izango da txosna-gunetik bertatik abiatuta.

### KONTZERTUA

Gauerdirako kontzertua dago iragarrita. Ozen eta Naiz Roxa taldeek euren abestiak eskainiko dituzte.

Arrasatekoa da Ozen taldea, Julen Rivasek gidatua. Orain dela hiru bat urte, taldea sortu eta gogor entseatzen hasi ziren. Kontzertuak ematen hasi eta Debagoieneko I. Danbaka Musika Lehiaketarako sailkatzea lortu zuten.

Heavy musika estiloa lantzen hasi ziren, Su Ta Gar eta bestelakoen tankerara. Horren ostean, soinua leundu egin dute, baina heavytik eta hard-rock musikatik gertu dabilta. Euskaraz abesten dute, eta oso emanaldi borobilak egiten dituzte.

Orain dela gutxi, *Mundu perfektua* diskoa kalera-



Ozen talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du Naiz Roxa taldearekin batera txosna-gunean domekan.

GOIENKARIA

tu dute Musikherria disko- etxe-ekimenaren bitartez. Txosna-guneko kontzertuan lan horretako abestiak entzungo dira.

Naiz Roxa, berriz, Pasai Donibanen sortutako taldea da, Jousilouli taldean ibilitako Matxeten musika abentura berria, hain zuzen. Benetako zarata egiten du Naiz Roxak, abiadura eta energia uztertuta.

*Ep laburrean* lana gra-

### Egitaraua

#### 23, egubakoitza

15:00: Koadrilen bazkaria Uarkapen. (Txartelak Bionan, Iluntzen eta Ekaitzen salgai).  
17:00: Maalan makalaren jasotzerako hitzordua.  
19:30: Txosnen irekiera.  
01:00: Euskal preso eta iheslarien alde manifestazioa Seberretik.

#### 24, zapatua

19:00: Bertso-triki poteoa.  
22:00: Kontzertua gaztetxean.

#### 25, domeka

14:30: Preso eta iheslarien aldeko herri bazkaria txosna-gunean.  
17:00: Ginkana. Txosna-gunetik abiatuta.  
00:00: Kontzertua, Ozen eta Naiz Roxa taldeekin, txosna gunean.

#### 26, astelehena

19:00: Ikuskizuna.  
22:00: *Ordu alai*a txosna-gunean (edariak merkeago).

batu eta hainbat aurkezpen kontzertu eskaini dituzte. Maketak irauten duen zortzi minutuetan bost abesti jaso dituzte, eta kontzertuan, hasierako abestiez gain, ondorengoak ere entzungo ditugu; abesti konbentzionalagoak, hain zuzen ere. Musika estiloei dagokienez ere askotarikoak lantzen dituzte: grind, hardcore, jazz eta punk estiloak, besteak beste.

Iban, Eneko, Eneko Goiko eta Matxet izango dira taula gainean atsegin ez dituzten gauzei buruz kantuan; izan ere, protesta abestiak dira eurenak.

### 'ORDU ALAIA'

Astelehena, jaietako azken eguna izanik, geratzen den apurra aprobetxatu nahi izaten dute batzuek.

Festa gogoz dauden horiendako 19:00etarako ikuskizuna dago iragarrita. Baliteke magia emanaldia izatea, oraindik zehazteke badago ere.

Amaitzeko, txosnetako doinuen artean trago eta trago jarraitu nahi dutenek aukera paregabea izango dute. Izan ere, 22:00etatik aurrera *Ordu alai*a izenez bataiatu dutena hasiko da. Hau da, edariak ohikoa baino prezio merkeagoan salduko dituzte.

San Juan suak erre ezean txosnetan erreko dituzte arrasatearrek jai egun guztien ostean geratzen zaizkien indar apurrak.

Txosnetan, beraz, edariak, kontzertuak, bazkariak, jolasak, ikuskizunak, denetarik izango da lau egunean barrena.

# MURUAMENDIARAZ

## GOZOTEGIA


Jai goxo-goxoak izateko

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34 *Ondo pasau San Juanak!*



Erdiko kale 14 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 94





# Zenbaki Aholkulariak



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

# UGARTE

## AROTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

**JAIK GOIENAN**

# Telebista eta irrataria, jaietan murgiltzen

Jaiak kalean gozatu ezin dituenak edo ekitaldiak etxean ikusi gura dituenak aukera du Goienako medioetan

UBANE MADERA

**Arrasate Irratian zuzeneko saioa prestatu dute, zapatarako. GOITBn, berriz, ekitaldi esanguratsuenak martitzenean, Jaiak 2006 saioan emitituko dituzte.**

**A**rrasate Irratiari dagokionez, egubakoitzean, San Juan bezperan ekingo diote jai-giroa uhinen bitartez arrasatearron etxera bideratzeari; bereziki, *Igo Autobusera* saioaren azkeneko atalean.

Hurrengo egunean, berriz, goizean goiz kalera atera eta zapatu goizeko festa giroa zuzen-zuzenean transmitituko diete entzuleei. 10:30etik aurrera iku-

siko ditugu Arrasate Irratik mikrofonoak kalean.

Horrez gainera, entzulea ere izan daiteke irrati-ko berriemaile, eta bere planak, biharamuna edo gura duena kontatzeko aukera emango diote. Harremanetan jartzeko 943 71 17 31 telefonora deitu behar du edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzi.

**GOITB-N 'JAIK 2006'**  
Telebistari dagokionez, martitzenerako, hilak 27, egin digute hitzordua.

**Jaiak iruditan ikusi ahal dira martitzenetik aurrera**



Arrasate Irratik Aitziber Aranburuzabala, Nerea Zubiete eta Gaizka Vitoria jai-giroa harrapatu nahian dabilta dagoeneko.

IKER BARANDIARAN

*Jaiak 2006* saioan San Juanak bizi-bizi izango ditugu, 21:15etik aurrera. Ibarreko gazteen eskutik, San Juanetako irudi esanguratsuenak gertu izango dituzte ikus-entzuleei erakusteko: zezen kontuak, San Juan sua, danborrada, Dragoi Jana, trial ikuskizuna, Eguzki Laru... Eta martitzenean saioa ikusi ezin duenak, domekara arte izango du ikusteko aukera.

## Arrasate Irratia

### 23, egubakoitza

09:00: *Igo autobusera* saioari agur esango diote egubakoitzean; *Uda Giroan* saioari ongi-etorria egiteko. Dena dela, San Juan bezpera izanda, San Juanetako usaina izango du uhinetako autobusaren azken ibilaldiak.

### 24, zapatua eta errepikapena

10:30-13:00: Zuzeneko saioa. Bezperako, momentuko eta hurrengo eguneko ekitaldien berri emango dute. Kaleko giroa etxean sartuko digute. Errepikatuko dute 15:00etan.

## Goiena Telebista

### 27, martitzena

21:15: *Jaiak 2006*. Kolaboratzaileek egindako saioa; ibarreko aurpegi berriek haize freskoarekin egingo dute *Jaiak 2006* saioa. San Juanetako irudi esanguratsuenak batuko dituzte: danborrada, entzierroa, San Juan sua, Dragoi Jana, Eguzki Laru eta kirolak, besteak beste.

### Errepikapenak

Eguena, 23:15; egubakoitza, 18:15; zapatua, 13:30 eta 22:00; domeka, 15:15 eta 23:00

**Markiegi**  
ARRASATE  
Olarte 2 Tel.: 943 79 15 32  
<http://www.goiena.net/blogak/markiegi>

# JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



## UMEAK

# Jaietan umeak ere jairik jai

Hilaren 25a, domeka, izango da umeendako antolatutako eguna; Eguzki Laru etorriko da, besteak beste

UBANE MADERA

**Urtero moduan, Zaldibarren jolas parkea antolatuko dute Txatxilipurdikoek; han elkartuko dira neska-mutikoak Eguzki Larurekin.**

**H**aur dantzarien egunarekin estreinatu zituzten etxeko gaztetxoek herriko jaiak joan den domekan. Edozelan ere, oraingo aste-ko egunean eskolan oporrak hartu ostean hartzen dituzte jaiak indartsuen.

**NIKO ETA PERIKO PAILAZOAK**  
Eta indartsu hasteko, San Juan bezperan, 16:00tako etxafuegoen ostean, bonba japoniarrak jaurtiko

dituzte gaztetxoenen gozamenarako, Herriko plazan. Gero, 16:30ean, Niko eta Periko pailazoen ikuskizuna egingo dute, leku berean; lan fresko eta dibertigarria eskainiko dute, ondo pasatzeko eta ikusleekin jolasean egiteko.

**HAURREN FESTA EGUNA**

Baina duda barik, domeka da umeek gogo handiagorekin itzaroten duten eguna, orduantxe iristen zaie eta bihotzeko lagun Eguzki Laru. Hala, Arrasateko eguzki koloretsuari ongi etorria egin gura dionak 10:45etik 11:00etara bitartean Seber Altuben egon beharko du. Asmoa da guztiok elkarrekin hartzea Zaldibarko jolas-parkerantzko bidea. Eta han, Zaldiba-



Umeendako zein nagusiendako moduko ekitaldia eskainiko dute *Kanpanolue*-n.

EIDABE

ren, 14:00ak arte astia izango dute Txatxilipurdik prestatutako jolasetan ibiltzeko: kart autoak, gaztelu mugikorra, jolas puzgarriak, ludoteka, etxetxoa... denetarik izango dute.

Gainera, bazkaltzeko astia eman eta gero, arrasaldean atzera ere zain izango dute Eguzki Laru Zaldibarren. 16:30ean zabalduko du berriro parkea, 18:30ak arte. Eta bes-

teak beste, merienda eta zurrupaki tropikal gozoa gertu izango ditu umeek emateko. Izan ere, jolasean jo eta sua ibili ostean, indarrak berreskuratu beharko dituzte, 18:30ean *Kanpanolue* ikuskizunarekin hitzordua dute-eta.

Bukatzeko, astelehenean, 18:15ean, *Numenak* umeendako antzerki saioa egingo du Yarleku talde iruindarrak, Seberren. Eta 19:00etan, berriz, Txan Magoak ikuskizuna egingo du, txosna gunean.

**Zapatuan, 18:00etan arku tiro lehiaketa izango da Zaldibarren; haren ostean, nagusiek eta baita ere umeek arku tiroa praktikatzeko aukera izango dute**

Zaldibarren

**Domeka, 25  
11:00etan**

Eguzki Laruk jolas parkea antolatuko du Zaldibarren goizez eta arratsaldez

## Domekan, 'Kanpanolu zale' bila

Berbena-antzerki ikuskizuna egin behar dute San Juanetan, *Kanpanolue* izenarekin. "Gure ametsa da 25 milioi *kanpanolu zale* lortzea eta asmo horrekin kluba sortu dute munduan. Zazpi milioi *kanpanolu zale* gara eta Arrasaten 25 milioi izatea lortzen badugu, tarta erraldoia aterako dugu". Horixe da Eidabe ekoizpen etxeko Birjinia Larak kontatu diguna.

*Kanpanolue* saioaren bultzatzailea da Eidabe.

**Ikuskizunaren beraren gainean, berriz, esan Deabru Beltzak, Xut eta Panpotx taldeen elkarlanaren fruitua dela *Kanpanolue*. 60ko hamarkadan sortutako orkestra ospetsuaren izena hartu eta musika ezberdinez baliatuz, haren helburua da jendea mugiaraztea.**



CANAS -  
ESTEBAN  
ERAIKUNTZAK

San Juan jai zoriontsuak  
arrasatear guztioi!

Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 77 11 63. Faxe: 943 79 81 80

 **OPEL** *Giauto* 902 345 123



**GRUPO GEM**

ELGOIBAR 943744115  
EIBAR 943700841  
BERGARA 943763344  
ARRASATE 943773010  
OLABERRIA 943885150  
ANOETA<sup>TOLOSA</sup> 943674029

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

 **HYUNDAI** *mendauto* 902 345 335



ELGOIBAR 943743200 DONOSTIA 943312200 IRUN 943610200 LASARTE 943371548  
ARRASATE 943772100 TOLOSA 943674029 BEASAIN 943883400

**GRUPO GEM**

[www.mendauto.es](http://www.mendauto.es)  
[hyundai@mendauto.es](mailto:hyundai@mendauto.es)

 **CHEVROLET** *Giauto* 902 345 225

**Chevrolet Aveo Berria, kanpotik mirestu eta barrutik gozatzeko.**

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)



**Chevrolet Aveo Berria**

**Giauto** 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41  
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

**SARRERARIK GABE**

**60€/hilean** - LEHENEGO URTEAN

**120 €/hilean** - BESTELAKO 100 KUOTAK

GASOLINA PLAN PREVERRER BARNE. % 5,80 TAE

Aveo 1.4 LS 16V

[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

Chevrolet gehiago da.

[www.chevrolet.es](http://www.chevrolet.es)

**GRUPO GEM**



 **SAAB** *Giauto* 943 763 346



**IREKI BERRIA**



BERGARA 943 763 344  
Olabarrena auzoa z/g  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

[www.saab.es](http://www.saab.es)

SAAB 9-5

# SAN JUANETAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ERREFUXIATUAK



# ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:  
Irti, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz, Jai-Zale



SALBEA

# San Juan zaindariari omenaldia, egubakoitzean

Azken bi urteotan esanahi politikoa eman diote Salbeari eta protesta ekitaldi bilakatu dute zenbaitek

Parrokia

**Egubakoitza, 23  
19:30ean**

Udaletxetik atera eta zaindaria bizkarrean dutela parrokiara joango dira

UBANE MADERA

**Arrasateko zaindari San Juan gertu izango dute jaien bezperan, elizara eramateko; jakina, istilu handirik ez badute eragiten.**

Salbea da, herriko jaietan, Elizak egiten duen ekitaldi garrantzitsuena, San Juan eguneko Meza Nagusiarekin batera.

Saso batean, *Bezperak* eta haren ostean *Nobenak* kantatzen ziren, eta horien bukaera zen Salbea. Eta hain justu ere, horixe geratu da bezperako ospakizunetako kantu moduan. Bestela esanda, jaiak herriko zaindari edo patrioiari eskaintzeko modua da.

Horrez gainera, Salbeak batzen ditu, baita ere, kanpoan bizi diren herritarrek. Saso batean, baserrietan bizi zirenak herriko jaietara jaisten zirenean, Salbea izaten zuten lehen hitzordua. Orain, gauza bera gertatzen da herritik



Hiru zinegotziren dimisioak eskatzeko idazkiekin egin dute protesta azken bi urteotan zenbait herritarrek.

ARTXIBOA

kanpora bizi diren herriko seme-alaba askorekin.

**ESANAHI POLITIKOA**

Dena dela, horrekin batera, nabarmendu beharra dago azken bi urteotan esa-

**Salbe Solemnea 19:30ean da, parrokiari; hurrengo egunean, berriz, Meza Nagusia esango dute, 11:00etan**

nahi elizkoia erabat galdu ez arren, esanahi politikoa nagusitu dela ekitaldi horren inguruan. Izan ere, Donostiakoaren parera, Arrasateko Salbea protesta egiteko erabiltzen dute

zenbait herritarrek. Izan ere, udaletxetik elizarako bidean, udal agintariak eramanen dute San Juan elizara. Eta hori aprobetxatuta, salatzen dute Alderdi Legearen ondorioz, ezker abertzaleko ordezkarien lekua betetzen dabiltzala EAJko, PSE-EEko eta EBko zinegotzi banak. Hain justu ere, protestarekin eskatzen dutena da hiru zinegotzik dimititzea.

Baina, hori salatzean, bestelakoan artean, agintariari arrautzak jaurti dizkiete azken bi urteotan; eta tentsio uneak bizi izan dira.

Aurtengo Salbeari dagokionez, oraingoz, Udalak ez du ezer aldatzeko asmorik, ahalik eta normaltasun handienarekin jokatzeko asmoz; hala, betiko moduan iragarri dute ekitaldia: 19:30ean da hitzordua, San Juan parrokiari. Esandako moduan, udaletxetik aterako dira udal ordezkariak, elizaraino.

Hurrengo eguneko Meza Nagusiari dagokionez, 11:00etan da hitzordua; kasu horretan ere, parrokiari.



Ondo pasa  
San Juanak !!

1979urtetik  
zure zerbitzura

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844  
Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com





LAKET



Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 29 46 Bergara

Irala, 5 • Tel.: 943 76 27 16 Bergara

Otalora, s/n • Tel.: 943 79 82 68 Arrasate



**ASTORE**  
THE ACTION SPORTSWEAR

Ondo pasa **San Juan** jaixek



**TERNUA**  
non gogoa, han zangoa

ASTORE.ES  
TERNUA.COM

ondo pasa san juanetan!



**leihoak, toldoak, pertsianak**

erakustokiak:

Arrasate: Zerrajera kalea 3. 943 712021  
Ermua: Gipuzkoako etorbidea 24, Behea. 943 170904  
Durango: Ermodo kalea 3. 94 6202081





DANBORRADA

# Iaz baino ume gehiago, ehun bat, irten dira danborradan

Asteburuan haur eta gaztetxoek izan dira jaun eta jabe: zapatuan herriko kaleak hartu zituzten haurren danborradan, behar besteko zarata eta burrundarekin jaiei ongietorria emateko

JON BEREZIBAR

**San Juan jaietako lehenengo ekintza haurren danborrada izaten da. Aurtengo gauza nabarmena da iaz baino ume gehiagok parte hartu dutela, 100 inguruk, SUDC elkartearen datuen arabera.**

**H**ilaren 17an hasi ziren, ofizialki, San Juan jaiak, haurren danborradarekin; aurten, gainera, iaz baino ume gehiago ibili dira kaleetan barrena: 100 inguru, SUDC elkarteak, antolatzaileak, esan duenez. Umeak boluntario aurkezten dira irteteko, eta aurten ere, denak ilusio handiz ibili dira entseatzan, SUDCeko Andoni Altzelaik dioskun moduan. "Iazko batzuek errepikatu egin dute, beste batzuk berriak dira... 4 urtetik aurrerakoak izaten ditugu, horiek karroznan; 6-7 urte bitartekoak

sukaldari doaz, eta 8-14 urte bitartekoek danborra jotzen dute", gaineratzen du Altzelaik.

Danbor eta kupelek kaleak bete dituzte, urtero moduan. Makilak berotzen aspaldi hasi eta nagusiak azken asteetan astelehen eta eguazten gauero ibili dira San Vitorreko patioan *Tatiago* edo Arrasateko ereserkiaren konpasak eta makilakadak bat etortzen saiatzen.

Aurtengo beste berezitasun bat ibilbidea izan da: Laubiden lanak egiten ari direnez, ezohiko ibilbidea egin behar izan du danborradak.

Aurten Ibai Rodriguez izan da jenerala, 8 urtekoa. Banderak, osterak, betiko moduan, neskek eraman dituzte: Jone Balantzategik SUDC elkartekoa eraman du, Maider Azkarraga-Urizarrek Ikurrina eta Lierni Etxebarriak Arrasateko armarrria daukana. SUDCen esanetan, hemen ere bere burua aurkezten dute umeek; postu baino ume gehiago bada-



Lierni Etxebarria, Maider Azkarraga-Urizar, Jone Balantzategi eta Ibai Rodriguez izan dira banderadunak eta jenerala.

J. B.

go, zozketa egiten dute umeen aurrean, zalantzarik ez egoteko.

Musikaz Arrasate Musikaleko bandakoak arduratu dira. Errepertorioa ohikoa izan da aurten

ere: *Tatiago, Donostiako martxa, Gora Arrasate, Udalpe* eta San Juanetako ereserkia jo ditu Arrasate Musikaleko bandak, danbor eta kupelen erritmoarekin lagunduta.

**Aurtengo berezitasun bat ibilbidea izan da: Laubiden lanak egiten ari direnez, ezohiko bidea jarraitu behar izan dute umeek**

**egizabal  
oinetakoak**

ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601  
BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228

## San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Olarte kalea 20  
ARRASATE

**Ondo pasatu Santamasak eta urte berri on!**

1907tik,...

Maalako Errabala, 3  
20500 ARRASATE  
Telf-Faxa:  
943 791262

**Casa Ceciaga**

Lentzeria  
Mertzeria  
Puntuzko osagaiak

*Jai zoriontsuak opa dizkizugu!*

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

## DANBORRADA

## Umeen danborradari lekukoa hartuko dio nagusienak barikuan

**S**an Juan bezperan izango da, urtero egiten den moduan, nagusien danborrada eta horren ostean piztuko da jaien ikur den San Juanetako sua. Urteak gorabehera, hainbat urteetan herriko jaiek erantzun txepelagoa jaso dutela ematen badu ere, antza, danborradarekin herriko jaiak indarrak berritzen dabilzala dirudi. Aurten zortzi konpainia elkartuko dira gauerdian herriko plazan elkarrekin San Juanetako ereserkia jotzeko.

Izan ere, azken urteetan piztu egin den jaietako egitarauko ekintza bakarrenetakoa izan da danborrada. Urterik urte, batez ere joandako bi urteetan, gero eta jende gehiagok eman du izena danborradan jotzeko. Honela, joan den urtean Arrano elkarteak bat egin bazuten ekitaldiarekin, aurtengoan beste konpainia berri bat estreinatuko da: Santa Marinako elkarteakoa, hain zuzen ere.



Umorea eta giro ona izango dira aurten ere nagusien danborradan.

ARTXIBOA

**ARRANO ETA SANTA MARINAKO ELKARTEEN HAIZE BERRIAK**  
Partaide eta konpainia berriek biziberritu dute azken urteetan danborra-

da, nahiz eta urte batzuetan esperotako harrerarik ez jaso. Krisitxoa gaindituta, iaz estreinatu zirenak Arrano elkarteakoa

izan ziren, eta talderik jendetsuena da. Aurtengo danborradan jole gehien elkarte horretakoek erango dituzte, 60 lagun guz-

tira, hain zuzen ere. Zortzi konpainietatik bat izango da hori, baina aurtengo nobedadea beste bat izango da: Santa Marina-

ko taldea, hain justu ere. Horiek ere azken aste hauetan lanean ibili dira San Juan bezpera egunerako guztia behar bezala prest izateko.

Zortzigarren konpainia horrekin irtengo da kalera aurten danborrada, hortaz. Izan ere, Obenerreka auzoko Santa Marina elkarteak prest daude dagoeneko danborra jotzen irteteko. Datorren egubakoitzeko 23:00etan izango da, San Juan suaren ostean, jaien bezpera egunean. Giroa, beraz, bermatuta egongo da, aspalditik dabil-tza-eta taldeak astean birritan entseatzen. Eurekin batera Arrasate Musikaleko bandakoak irtengo dira, herriko plazarako bidean lagun egiten.

### AURTEN ZORTZI KONPAINIAK OSATUKO DUTE DANBORRADA

Orain arte izandako seiei berri bi gehitu zaizkie, beraz, aurten: Arranokoa -iaz egin zuten lehenengo aldiz- eta Santa Marinakoa. Danborra joko duten taldeak lau izango dira: Txalapartakoak, Tamborreros, Beti Alai eta Eskozarrak. Gainontzeko lau konpainiek kupelekin egingo dute danborrada eta horiek, aipatutako bi konpainia berriez gain, Beti Gazte eta Montxon elkarteak izango dira. Danborren hotsekin batera, banderadunak eta jenerala joango dira segizioari laguntzen.

## Aitor Belardenda

OSASUNTSUAGO  
BIZI ZAITEZ  
ZAIN ITZAZU PISUA  
ETA BOLUMENA

- Dieta pertsonalizatua. Azterketa indibiduala.
- Tratamendu dietetikoak. Botikarik gabe.
- Gorputzean koipea antzematea eta hari jarraipena egitea.
- Tratamendu eta kontseilu dietetikoak: kirola, hipertentsio arteriala, hezueria (gota) eta dietarekin harremana duten beste gaitz batzuk.

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43




PATRICIA  
CLARKS  
LUPO  
MASCARÓ  
LOOKY  
24 HRS  
HISPANITAS  
LODI  
URSULA  
PAN  
CATS  
KOLLFLEX  
WONDERS  
SACHA LONDON  
GEORGES  
PETUSCO

OINETAKOAK

# Yoar

Biteri 13 ¥ ARRASATE ¥ 943 79 21 71  
Barrenkalea 9 ¥ BERGARA ¥ 943 76 22 86



## Lore

Lurrindegia eta  
estetika zentroa

Olarte 10 • ARRASATE  
943 79 52 50

## Jose Ramon Otamendi

# harategia

Harategia: Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28



**GRUPO RK UZ**  
ARETXABAETA 1950 • 2006 ARRASATE

**RK UZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA

**RK UZ**  
COCINA INTEGRAL  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABAETA

**ETXE MOBEL**  
ALIZARIAN  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**RK UZ**  
MUEBLES  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA

Harrituta utzi nahi dituzu zure txikiak?  
Har ezazu une bat...  
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak  
izango dituzte.

**Arkautz zure etxea da.**

**NACEX**  
Servicio Expres

**Grupo Logista**

San Andres auzoa, Azeri kalea 7 ARRASATE Tel.: 943 79 92 77 Faxe: 943 79 99 21

## MUSIKA

# Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua emango du San Juan egunean

Monterron parkea

**Zapatua, 24  
13:00etan**

Arrasate Musikaleko Bandak emanaldia egingo du hilaren 24an, Monterronen.

**Arrasate Musikaleko Banda orain dela 11 urte sortu zuten; Iker Olazabal irundarraren zuzendaritzapean, 67 musikari ari dira taldean gaur**

EDU MENDIBIL

**Arrasate Musikaleko Banda Bandak emanaldia egingo du San Juan egunean, Monterron parkean, 13:00etan. Iker Olazabal irundarrak zuzendutako taldean 67 lagun ari dira gaur egun.**

**A**rrasate Musikaleko Banda Jose Ramon Vitoriak sortu zuen orain dela 11 urte. Haren ondoren Eduardo Arzamendi, Jose Ramon Elkoro eta Iker Olazabal izan dira taldeko zuzendariak.

Iker Olazabal irundarrak (29 urte) zazpi urte darama Arrasate Musikalen. Tronboi irakaslea da eta azken hiru urteotan Bandako zuzendaria dugu. Olazabalek zera adierazi digu: "Banda momentu onean dago gaur, bai lortutako mailagatik eta baita musikariaren motibazioagatik. Oso talde gaztea da gurea: izan ere, kideen %60 20 urtetik beherakoa da. Urtero egiten ditugu kide berriak hartzeko probak eta horrek erakusten du harrobi bikaina dagoela Arrasaten". Hain zuzen ere, aurten hainbat debutari

dira Arrasate Musikaleko Bandan: Manex Olabarria (tronboia), Imanol Martinez, Nerea Ugalde eta Izaskun Mariñelarena (flautak), Ane Axpe, Ane Sanchez, Markel Arrizabalaga eta Ane Lopez (saxofoiak) eta Mikel Gonzalez (perkusioa). Taldea 67 lagunek osatzen dute.

#### EGITARAU ERAKARGARRIA

San Juan eguneko kontzerturako honako egitaraua prestatu dute: *Russian dance* (Kees Vlak konpositorearena), *Moment for Morrison*, *El barberillo de Lavapiés* (Barbieri), *Gengis Khan* (Vlak), *Carmen* (Bizet), *Orient Express* (Sparke), *Hartzaren ehiza* (Aranburu), *Gora Arrasate* (Juan Artzamendi) eta *San Juan* (Arzamendik eginiko moldaketa).

Kontzertuko lehenbiziko pieza, *Russian dance*, Lurdes Arkotxa zenari eskainiko diote. Bandan saxofoia jotzen zuen Lurdesek eta iaz zendu zen.

Bestalde, *Hartzaren ehiza* jotzerakoan Lore Gazteak dantza taldearen



Argazkian, Arrasate Musikaleko Bandak Monterronen emandako kontzertu bateko irudia.

GOIENKARIA



Iker Olazabal zuzendaria.

laguntza izango dute musikariak eta *Orient Express* lanarekin ez dira efektu bereziak faltako. Tren mitiko horren ibilbidea islatzen saiatuko dira Bandako kideak.

Kontzertuaren aurretik kalejira izango da. Abarroatik 11:00etan aterako

dira Bandako kideak eta ordu laurden beranduago gaita-joleekin eta erraldioen eta kilikien konpartzarekin elkartuko dira, Seber Altube plazan. Han Txomin Muxikaren *Aitziber eta Jon* lana eskainiko dute, konpartsaren laguntzarekin.

**UZTAILAREN 1EAN, ALTSASUN** Bandakoendako kontzertu berezia da San Juanetako. "Ilusio handia egiten digu egun horretan jotzeko", diosku Olazabalek.

San Juanetako kontzertuaren ondoren, denboralarekin aurrera egingo dute: uztailaren 1ean Altsasun joko dute. Olazabalen hitzetan, "gero eta gonbidapen gehiago jasotzen ditugu kanpora joateko eta seinale ona da. Apirilaren 29an Alacanten jo genuen. Ea horrela jarraitzen dugun..."

**Kontzertuko lehenbiziko pieza, 'Russian dance', Lurdes Arkotxa Bandako kide zenari eskainiko diote**

**Kontzertuaren aurretik gaita-joleekin eta erraldioen eta kilikien konpartzarekin elkartuko dira, Seber Altube plazan**



Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE  
Tel.: 943 79 98 06





*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

## UMEAK

# Gogoz botako dute izerdia koadrilek

Egubakoitzean, San Juan bezperan, herri bazkaria izango dute koadrilek, eta gero, makala jasoko dute

JON BEREZIBAR

Uarkapen egingo den bazkariaren ostean jasoko dute herriko gazteek plazan jaietako ikurra den makal luze eta mehea. Egubakoitzean izango da hori.

**D**atorren egubakoitzean ipiniko dute lau egunez herriko jaien ikur izango dena: makala.

Aurten ere, iaz egin zen bezala herriko gazteek erango dute makala eta, ohikoa den moduan, izerdi ugari bota eta gero, herri-

ko plaza erdi-erdian kokatuko dute gazteek.

Koadrilek bultzatuta, azken urteetan makala jasotzeko ohituta berreskuratu gura izan da. Iaz gazteek egin bazuten ere, azken urteetan makina bat gorabehera egon da makalaren jasotzean, eta azkenean Udaleko langileek kokatu dute jaietako ikur den enbor luze eta fina herriko plazan.

EGITARAU BEREZIRIK EZ

Koadrilek ekitaldia berreskuratu badute ere, ez da bestelako ekitaldirik egongo egun horretan gazteei dagokienez. Hala ere, txosna batzordeak antolatuta



Koadrilek igoko dute aurten ere makala.

ARTXIBOA

egun horretan bertan bazkaria izango dute Uarkape pilotalekuan, iaz Saran egin zen moduan; eta giro bikaina, ziur, bermatuta egongo da. Han hartu beharko dituzte gazteek

indarrak, ostean jaso beharko dute eta makal luzea. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude eta nahi dituztenek Biona, Iluntz eta Basati tabernetan aurkituko dituzte.

**BAZKARI OSTEAN, MAKALA IGOTZERA**

Txosna batzordetik herriko gazteak bazkarian ere parte hartzera animatu gura dituzte, gazteen egunik egon ezean hori izango delako euren dagokienez ekitaldi nagusia.

Modu berean, eta txosna batzordeko egitarautik kanpo egonda ere, koadrilek makalaren igotzera animatu gura dituzte haiek ere, jaietako beste ekintza bat izango balitz bezala, hain zuzen ere.

**Beste urte batzuetan Udalak jaso du plazako makala, baina aurten, iaz egin zuten moduan, koadrilek hartuko dute zuhaitza kokatzeko ardura**

Herriko plaza

**Egubakoitzea, 23 17:30**

Koadrilek elkarrekin makala igoko dute herriko plazan

**Maalan egin dute gazteek hitzordua**

Uarkapeko bazkarian indarrak ondo hartuta joango dira zuzenean gazteak Maalako Errabalera. Han ekingo diote makalaren lanari.


Arratsaldeko bostetan egin dute hitzordua, eta herriko gazte guztiei zabaltzen diete deia. Beroarekin eta bazkariko betekadarekin sorbalda asko beharko ditu makalak plazarako bidea egiteko; beraz, ahalik eta jende gehien batzea espero da.

Sufrimenduak sufrimendu, herriko plazara abiatuko dira hortik gazteak, eta tradizioari jarraituz makala plaza erdi-erdian ipiniko dute. Izerdi patsetan amaituta ere, giro ezin hobea egongo da han eta jaiak bere ikurra izango du lau egunerako.

**Uriarte**  
SPORT

Ondo pasau  
San Juan jaixak!

Olarte 6 ¤ Tel.: 943 79 27 78 ¤ ARRASATE



**Izozkitegia**

Gozotegia  
Italiar izozkitegia  
Kafetegia

San Juan jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

**Meson Manolo**

Eguneko menua  
Karta zerbitzua  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Arrazioak

BaÑez Dokorea 3. San Andres auzoan

arbolapeta



**NATUR HOUSE**

Dietetika eta Elikadura


*Gabon zoriontsuak!!!*

**KONTSULTA DOHAINIK**  
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ  
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34





# S CARRASCAL

BERTAN  
EGINDAKO  
ALTZARIAK

Uribarri auzoa 4  
Ekutio kalea 14-15 Pabil.  
Tel./Faxa: 943 79 01 82  
Posta-e: scarrasc\_1@infonegocio.com

Sukaldeko altzariak




Horma-armairuak



Carrascal  
aroztegiak  
Arrasatear  
guztiori opa  
dizkizue  
San Juan jai  
zoriontsuak

Bezeroen sarrera 14. pabilioia



## IKUSKIZUNA

# Errekortadoreen ikuskizun dibertigarria estreinatuko dute

Bergarako Errekortadoreek Euskal Herrian eta kanpoan arrakastaz egindako emanaldia egingo dute bigantxeekin

LEIRE KORTABARRIA

Lehenengo aldiz San Juanetan, errekortadoreen ikuskizuna izango da aurten, Debagoieneko talde batekin, Bergarako Errekortadoreekin.

**E**rrekortadoreen ikuskizunarekin ondo pasatzeko eta zirrara eta irribarrera uztartzeko aukera izango dute aurten arrasatear guztiek. Ikuskizun horrek lehenengo aldiz izango du Arrasaten, eta Euskal Herri osoan eta kanpoan izan duen arrakasta izugarriak bat baino gehiago erakarriko du, ziur, Lauzabide plazako zezen plaza-raino.

Bergarako Errekortadoreak izeneko taldeak egingo du ikuskizuna, baina ez dira denak bergararrak, ez horixe: arrasatear bat ere badago, Blas Cruz, eta baita aretxabaletarrak, zumarragarriak, amorebietarrak eta errioxar bat ere. Euskal Herrian ikuskizu-



Iaz, errekortadore txapelketa egin zuten jaietan, eta aurten, lehenengo aldiz, ikuskizun entretenigarri bat.

ARTXIBOA

netara dedikatzen den errekortadore talde bakarra dugu.

Iaz, talde horrek errekortadore txapelketa antolatu zuen San Juanetan, eta aurten, hamaikatzko

**Bigantxeekin joko barregarri eta ikusgarriak egiten dituzte, hainbat modutan zirikatuz: saltoka, urarekin...**

plazatik arrakasta handiz eraman duten ikuskizuna ekarriko dute.

Ordu eta erdi inguruko saioa da. Jokoak egiten dituzte behiekin, zein baino zein ikusgarriagoa: bai-

nuontzi batekin, zabuarekin... jokoak egiten dituzte, edo ia-ia akrobatikoak diren ariketak egiten dituzte eurekin: salto egiten dute behien inguruan, makila batekin, ezer gabe, plaza erdian geldi-geldi egonda zirikatzen dute behia... "Ikuskizun dibertigarria da, ikusteko polita", dio Iñigo Almortza taldeko kideak. "Iaz, 17 bat plaza egin genituen saio honekin, eta aurten lauzabost ditugu hitzartuta", gaineratzen du.

Inprobisazioak zeresan handia du: plazaren ezaugarrien arabera, behien umorearen arabera... joko batzuk edo beste batzuk asmatzen dituzte.

**ENTZIERROA ETA BIGANTXAK** Errekortadoreen ikuskizunaz gain, ohi bezala, entzierroa eta, segidan, bigantxak izango dira zaleendako. Entzierroak zapatuan eta domekan egingo dituzte, 09:00etan hasita. Ferrerias kaletik abiatuko dira Javier Mazarbeitia orozkotarraren zezenak.

Gipuzkoa etorbidea 6, Legarre Pabilioia ARRASATE  
Tel.: 943 79 96 53 Faxa: 943 71 26 26  
zaldibar@ibercom.com

**LASTER ESKORIATZAN!**

Torrebaso poligonoa, 6. pabilioia, ESKORIATZA

**ZALDIBAR**  
errotulazio zerbitzuak



**aholkularitza, garapena eta kalitatea akaberetan**

Errotulazio itsasgarria • Ibilgailuen errotulazio integrala • Barruko zein kanpoko seinalazioa  
Grabatuak: inox.-letoa-aluminioa-plastikoa • Fresaketak: Metakrilatoa-DM-PVC • Letra gorputzdunen fabrikazioa  
Display eta moduloak



*Haize freskoa bezela heldu zinen  
gure ingurua argituz.  
Alaitasun iturri zinen,  
zure bizi-pozaz guztiok beteaz.  
Hutsaren truke barre eragiten zenigun  
eta orain, urruti bazaude ere,  
guk ondoan sentitzen zaitugu.*

Telleria kalea 2  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 43  
Faxa: 943 71 21 43  
ekide@ekide.es



# CONSTRUCCIONES ALKESA, S.L.

# ONDO PASA SAN JUANAK!

**TEILATUAK (ESTALKIAK),  
FATXADAK ETA EGITURAK  
ZAHARBERRITZEAK ETA  
BIRGAITZEAK  
ERAIKUNTZAK  
ERA GUZTIETAKO  
ERAIKUNTZA LANAK  
PROMOZIOAK  
IGOGAILUAK**

Santa Marina 40-42 behea  
20500 ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 77 13 27  
Mugikorra: 639 82 83 32  
alkesa@infonegocio.com



## PILOTA

# Aspaldi ez bezalako pilota jaialdia egingo dute domekan

Aimar Olaizolak Otxandorena izango du bizkarra zaintzen; aurrean, berriz, Oinatz Bengoetxea eta Beloki izango dituzte

XABIER URTZELAI

**Aurtengo San Juanetan, Udalak fundamentuzko pilota jaialdiaren alde egin du. Uarkape betetzen ez bada, orain arteko aitzakiek ez dute balio izango.**

Domekan, hilak 25, pilota zaleek San Juanetako hitzordu erakargarriena izango dute, puntako pilota jaialdia. Hala, Eskuz Banako Txapelketan finalera sailkatu den Aimar Olaizolak (1979) erakarriko du jendea pilotalekura. Finala jokatu berri duen jokalaria Arrasaten izango da, pena ez duela Irujo aurrean izango. Aurreko koadroetan izango duen kontrarioak, baina, geroago eta jarraitzaile gehiago ditu, Oinatz Bengoetxearen (1984) gainean gabilitza berbetan. Leitzako pilotaria Binakako Txapeldunorde izan berri da, azkarra, nerbioa duena, 2002an Labriteko pilotalekuan estreinaldia egin zuenetik gorpuzkeran aurrera egin duena. Aimarrek lan egin beharko du Bengoetxea VI.a makurtu arazteko.

#### NEURRIKO ATZELARIAK

Binakako partiduetan aurreko pilotariak duten garrantziari so eginda, ezin atzelariez ahaztu. Oraingoan, gainera, pisuzko jokalaria dira. Aimarrek Otxandorenaren (1977) lana izango du aldeko. Profesional mailan titulurik ez badu ere, inork ez du Mugairiko pilotaria saltzeko. Otxandorenak Ruben



Aimar Olaizola Eskuz Banakako Txapelketako finalera sailkatu da, eta Arrasaten izango da.

GOIENKARIA

Beloki izango du atzeko koadroetan lehiakide. Burlatakoak osatuko du Oinatzekin bikotea, eta euren kontra postura egiteko hobe da bi bider pentsatzea, nahiz eta beste aldean Aimar egon. Rubenen palmaresa ikusgarria da, nahiz eta azken urteotan hainbat txapelketako finalak eskura izan dituen arren, ez duen azken jauzia egin. 2005eko Gabone-

tako Txapelketan txapeldunorde izan zen, eta baita Binakako Txapelketan ere. Hala, 2003ra egin behar dugu atzera Belokiren azken tituluaren berri iza-

teko, Binakako Txapelketan. Aurten, berriz, Eskuz Banakako txapelketa txukuna egin du, Irujorekin elkartu zen arte.

Estatistikei dagokie-

**Estatistikei dagokienez, Aimarrek aldeko ditu zenbakiak. Aurten jokatu dituen partiduen %70 irabazi egin ditu**

nez, Aimarrek aldeko ditu zenbakiak. Aurten 31 norgehiagokatan hartu du esku, eta horietatik 21 irabazi ditu. Horrek esan gura du jokatu dituen zeingehiagoken ia %70 irabazi egin dituela; pilotari gutxi gerturatzen dira zenbaki horietara.

#### BI NORGEHIAGOKA

Partidu nagusiaren gainean ibili gara berbetan, bai-

na lehenago Saralegi eta Beobide ikusiko ditugu, Beloki II.aren eta Eskudororen kontra nor baino nor gehiago; jaialdia berotzen hasteko balioko du norgehiagoka horrek. Asegarceko bigarren lerroko pilotariak dira horiek, baina ikuskizuna emateko gertu etorriko dira.

Jaialdia ikusteko 15 eurotan jarri dituzte sarreak; merezi du.



**Zurbia**  
1947 - an Fundatua  
OINETAKOAK

**Aretxabaleta**  
Mitarte kalea 14  
Tel.: 943 79 16 00

**Arrasate**  
Biteri etorbidea 1  
Tel.: 943 79 66 53



**San Juan jai zoriontsuak igaro!**

TRIALA

# Benito Rossen eskutik, bike-trial ikuskizuna

**Bost aldiz Munduko txapeldun izan den Benito Rossek ikuskizuna emango du trialeko bizikleta eta motor gainean**

XABIER URTZELAI

**Zapatuan, hilak 24, trialsinean horrenbeste titulu erdietsi dituen pilotua izango da zezen-plazan. Bizikleta gainean egingo du ikuskizuna, eta baita motor gainean ere.**

Zapatuan, arratsaldeko 19:30ean hasiko du pilotu donostiarrak ikuskizuna. Benito Ross ezagutzen ez duenari komeni zaio jakitea bost aldiz Munduko txapeldun izatearekin batera mundu mailako lau errekorren jabe dela. Hori horrela, gizon horrek trialsineko bizikleta gainean egiten duen edozer gauza izan behar da ikusgarria, eta abilezia horrek trialeko motorrerako ere balio du, antza.

**ZEZEN-PLAZAN**

San Juanetarako gertatu-ko duten zezen-plazan egingo du Benito Rossek saio entretenigarria. Hala, kamioian ekarriko ditu beharrezko dituen erreminta guztiak: bizikletak, oztopoak, jauziak egiteko

gailuak, listoiak... eta bi motor: bat, trialekoa, eta bestea 1.000 zentimetro kubikotako errepideko motor handia.

**ORDU ETA ERDI AHOA ZABALIK**

Saioa antolatzen duen Ama Lur enpresaren esanetan, benetako erakustaldia egingo du Benitok. Haste-ko berotze ariketak egingo ditu; eta, gizon horrendako berotze ariketak egiteak esan gura du: zailtasunez beteriko itzulipurdiak, aurrez-aurreko jauziak, barrako jauziak, eta altuerako jauziak egitea (1,70 metrora dagoen listoia gaindituz).

Ondoren etorriko dira arripalan egindako jauziak (3,50 metroko marka gainditzea izango du helburu), eta akrobazia gaitzak egingo ditu eskubelaren gainean. Eta bizikletarekin saioa amaitzen duenean etorriko da motor hotsa; trialeko motorra hartuta jauzi eta akrobazia gehiago egingo ditu-eta.

Horrekin guztiarekin gozatzeko ikusleek euro bat ordaindu beharko dute. Udaleko ordezkarien esanetan, gehienezko jende kopurua mugatzeko jarri dute prezio sinboliko hori.



Zapatuan Benito Ross izango da zezen-plazako jaun eta jabe.

GOIENKARIA

Aurreikusten dute 800 lagun ingururendako tokia dagoela zezen-plazan.

**HAINBAT ZALANTZA**

Donostiako pilotuaren ikuskizuna ez da, baina,

bizikletara eta trialeko motorrerara mugatzen. Benito Rossek kamioian eramaten du 1.000 zentimetro kubikoko motorra, eta ahal duen guztietan motor horrekin amaitzen du ikus-

kizuna. Horretarako, baina, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, lekuari dagokionez, normalean. Hala, Ama Lurreko Txusma-k ez zuen argi Arrasaten Benito motor horren gainean ikusiko dugun ala ez: "Ez dakit posible izango den, oraindik ez dugu hori adostu. Motorrekin akrobaziak egiteko 100 metro zuzen behar dira". Bistan da zezen-plaza barruan ezingo duela motor hori erabili. Horretarako, Garibai etorbidea

da aukerarik onena, baina Udaletik esan digute Benitok berak esan beharko duela posible den ala ez: "Ez dakigu motorrean ibili ahal izango den. Motorreko ikuskizuna ikusteko jendeak zezen-plazatik irten beharko luke, eta akaso buruhauste handiegia izango da. Gainera, oraindik ez dakigu motorreko ikuskizunerako aparteko babes neurriak hartu beharko diren, hesiak eta horrelakoak. Egunean bertan erabakiko dugu hori".

**Zezen-plaza barruan bizikletarekin eta trialeko motorrarekin trebatu eta gero, asmoa da kalean motor handiarekin akrobaziak egitea**

**ZABALA**  
oinetakoak

58 urtean elkarrekin ibili gara

Ospa ditzagun San Juanak!

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27

**k kurr r u xkko o**

Okindegia - Urdaitegia - Gozotegia

...eta orain enpanadak salgai!

**Ondo pasatu San Juanak!**

BaÑez Doktoea 12 € ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 57

# Debagoieneko hamar onenak, Donostiako hamar onenen kontra

Zapatu arratsaldean Xake Txapelketa egongo da Seberren; Zaldibarren, berriz, arkulariak lehiatuko dira

XABIER URTZELAI

Zapatuan, 16:00etan lehiatuko dira Seberren Debagoieneko eta Donostiako xake selekzioak.

18:00etan, berriz, arkulariek sagarra izango dute jomuga Zaldibarren.

**X**akelariak eta arkulariak aukeran, ala biak, zapatuan ordu ezberdinean egingo dituzte-eta txapelketok. Xakelarien artean, adibidez, erronka polita izango da: Donostiako hamar jokalaririk onenak ibarreko hamar onenen kontra. Antolatzaile lanetan dabilen Josu Tornayk esan digu, printzipioz, donostiarrak direla faborito: "Hamar xakelari horietatik lehenengo lau jokalaririk oso onak dira. Tartean daude Iñigo Argandoña eta Santi Gonzalez, nazioarteko maisu direnak".

Debagoieneko selekzioari dagokionez, honako jokalariek osatuko dute taldea: Fran Miguel (Aretxabaleta), Andoni Miguel (Aretxabaleta), Luis Angel Ortega (Arrasate), Aitor Alkaide (Aretxabaleta), Txema Hernando (Arrasate), Josu Tornay (Arrasate), Isidro Ruiz (Arrasate), Roberto Villar (Arrasate), Esteban Romero (Aretxabaleta) eta Cayetano Rayo (Arrasate).

#### NAZIOARTEKO RANKINGA

Jokalaririk onenak ez ditu inork aukeratu, nazioarteko rankingaren arabera egin dute zerrenda. Jokalaririk guztiak Aretxabaleta-



Xake partida bakoitzean jokalariek 15 minutu izango dituzte piezak mugitzeko.

JOSETXO ARANTZABAL

ko Arlutz taldekoak eta Arrasateko San Andres Xake Taldekoak dira: "Taldea sendoa daukagula uste dut, baina donostiarrak izango dira faborito. Dena dela, txapelketan egingo

dugun joko mota gure aldekoa dela uste dut. Joko bizkorreko txapelketa baino erdi-bizkorra egingo dugu. Hala, jokalaririk bakoitzak 15 minutu izango ditu partidako bakoitzeko. Eta, uste

du azkar jokatzeko dugunean jokalaririk askoz ere lehiakorragoak garela. Adibidez, azkar jokatu, Fran Miguel Euskal Herriko jokalaririk onena dela esango nuke, eta onena ez bada, ez

du asko behar". Txapelketa egingo duten lekuaren gainean ere egin dugu berba Tornayrekin; herritarren aurrean jokatzeko aukeratu dute Seber Altube: "Geure egoitzan joka-


tzea zen beste aukera, baina han herritarrek ez dute txapelketa jarraituko".

#### ESPAINIARTEKO TXAPELKETAN

San Juanak alde batera utzita, aipatu Arrasateko Xake Taldeak bi ordezkaririk izango dituela uztaileko hirugarren astean Caceresen egingo duten Espainiako Txapelketan. Asier Etxagibel lehiatuko da infantil mailan, eta Juan Manuel Ruiz alebinetan.

**"Donostiarren artean, hamar xakelarietatik lau oso onak dira, eta euretako bi nazioarteko maisuak dira"**

**"Xake bizkorrean jokatzeko dugunean ibarreko jokalaririk mailak gora egiten du; hori da guk daukagun abantaila"**



HORTZ KLINIKA  
**UARKAPE**

Nicolas Bermejo doktorea

*Odontologia orokorra*  
*Endodontzia*  
*Inplantologia*  
*Protesiak*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

# TELAETXE S.A.

Oihalen neurketatik etxean  
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**

Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara  
zabalik


## Munduko Momokapak-talderik handiena dugu.

Etor zaitez eta eraman ezazu Momokapak hau...

Momokapak-a: Motorola mugikorra, motxila eta kukuxumusuren diseinu eskusiboak dituen kamiseta.

**19€**  
-ren truke

**Kontratuarekin**



**MOTOROLA L2**  
• Ultramehea  
• Kukuxumusuk  
• pertsonalizatua  
• Kepa Junkerak sortutako melodia eskusiboa

**MOTXILA**  
kukuxumusuk diseinatutako motxila

**KAMISETA**  
kukuxumusuk diseinatutako kamiseta

ROUTER  
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15  
Eibar  
☎ 943700369

Maalako Errebala, 8  
Arrasate  
☎ 943712781

**Euskaltel**  -en Banatzaile Ofiziala

# Heldu dira San Juanak!

...egin ezazu topa!



ondo pasau jaixak!

Amets - Bengoa - Boliñete - Branka - Gure Leku - Iamai -  
Itzala - Monte - Plus Ultra - Rumba



AFARIA

# Dragoi txuletak 500 lagun asetzeko

**Aurten, dragoi jana zapatuan izanda, AEDk eta AEK-k iaz baino zertxobait afaltiar gehiago espero dituzte**

LEIRE KORTABARRIA

**Dragoi ehiza oparoa egin dute AEDko eta AEK-ko ehiztariak, eta 500 lagun asebeteta uzteko moduko dragoi jana prestatuko dute zapatuan, San Juan egunean.**

**B**atzuek zioten dragoia galtzeko zorian zegoela, baina ez da hala: aurten ehiza oparoa egin dugu, eta dragoi txuleta ederrak izango dira afaltzeko", dio AEDko Kepa Lizarralde, dragoi janeko antolatzaile-etako batek.

Dragoi ederrak harrapatuta, 500 bat laguni afaltzen emateko modua izango da San Juan egunean, zapatuan. Lizarralde di-

enez, "zapatua izanda, uste dugu iaz baino gehitxoago etorriko direla. Edoze-lan ere, kopurua beti antzekoa izaten da. Iaz 450 lagun izan ziren afaltzera".

Afarira joan gura dutenek badute oraindik txartela erosteko aukera. Honako lekuetan daude: AEDn, AEKn, eta Monte eta Iturriotz tabernetan. 12 euroko prezioa dute.

Dragoi txuleta biguna izango da plater nagusia, piperrekin eta patatekin lagunduta; postretan, gazta eta irasagar melatua (menbrilloa); eta bukatzeko, kafea. Bereiztuta ordaintzen da edaria: ura, sagardoa eta ardoa, aukeran. Horiek txosna baten salduko dituzte.

AED elkarteak eta AEK euskaltegiko 20 bat



San Juanen omenez topa egiteko aukera izango da dragoi janean.

ARTXIBOA

lagun egongo dira dragoi janean lan eta lan. Herriko plazan izango da.

Txuletak erretzeko lau sutontzi ipiniko dituzte, eta 5-6 sukaldari egongo dira horiek zaintzen; bes-

te dozena inguru, zerbitzatzen; eta hiruzpalau, txosnan.

Urtero-urtero bi talde horiek antolatzen dute dragoi jana, eta aurten ere ez dute hutsik egin.

## "ETXEAN BEZALA"

Afarian, edukia eta itxura ere, dena zaintzen dute. Hala, dragoi txuletak behar bezalako baxerarekin eta mahai-tresnekin jango dituzte, "etxean egiten den bezala", dio Kepa Lizarralde. Izan ere, "txuleta baxeran edo plastikozko plateran jan, alde handia dago", gaineratzen du.

Baxera antolatzaileek ipintzen dute; mahaiak eta eserlekuak, berriz, kanpotik ekartzen dituzte, errentan hartuta.

**Dragoi janaren berezitasunetako bat da dragoi txuletak jendaurrean erretzen dituztela, eta aurten lau sutontzi izango dituzte horretarako**

Herriko plaza

**Zapatua, 24  
21:00-23:00**

Dragoi jana izango da; segidan, euskal kantu ezagunak abestuko dituzte

## Herri afaria baino askoz gehiago

Urtetik urtera, dragoi janak zale kopuruari eutsi dio, eta 400-500 afaltiar batzen dira. Jaietako ekintza baten hainbeste jende batzea ez da lorpen makala.

Izan ere, dragoi jana ez da herri afari soila; beste erakarpen asko ditu. Hala, batetik, Arrasateko dragoia jateko aukera bakarra da. Bestetik, Kepa Lizarralde antolatzaile taldeko kideak dioen moduan, "afaria ez ezik, ikuskizuna ere bada: hala, jendaurrean erretzen ditugu txuletak, afalosteko giro berezia dago...".

Hala da, bai: afalostean, antolatzaileek euskal kantu ezagunen letren orriak banatzen dituzte, eta denok batera euskal giro jatorrean abesteko aukera dute.

# RESUSTA Karririkiri

Arrasatearren artean 150 urte baino gehiago.



Ondo pasa San Juanak!

## DANTZAK

# Euskal dantzekin hasiko dira jaiak Arrasaten

**Herriko dantzari eta musikariek elkarrekin jardungo dute herriko kaleetan San Juan bezperan**

ARANTZAZU EZKIBEL

**Dantzekin emango diete ongiatorria herriko jaiari Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeek. Maalatik aterako dira eta plazan bukatuko dituzte dantzak.**

**A**zken urteetako ohiturari jarraituz, Errementari dantza egingo dute San Juan jaiari hasiera emateko herriko dantzariak.

San Juan bezperan, 21:30ean aterako dira dantzariak Maalako Errabale-

tik. Ondoren, Portaloian geldiduna egin eta hainbat dantza eskainiko dituzte. Hortik plazara abiatuko dira. Obrak direla-eta, Udaletik adierazi digutez, oraindik zehaztu gabe dago ibilbidea, baina litekeena da Iturriotz eta Erdiko kaleetan barrena plaza-ira iristea.

#### SAN JUAN ZORTZIKOA

Herriko kaleetan barrena aipatutako bi dantza taldeez gain, Arrasate Musikaleko kideak, konpartsa, gaitariak eta txistulariak ari-tuko dira jai giroarekin arrasatearrak alaituz.

Nafarroako eta Iparraldeko dantzetan oinarritu-



Musikak eta dantzak bat egingo dute herriko kaleetan.

ARTXIBOA

tako Alkate dantza, Ingurtxoa, Polka eta San Juan Zortzikoa dantzatuko dituzte kaleetan eta suaren inguruan, herriko plazan Lore Gazteak eta Arrostitz taldeek.

**1995EAN ASMATUTAKO DANTZA** Jose Ramon Vitoriaren musikan oinarrituta 1995ean asmatu zuten Errementari dantza. Ordu-tik ohitura bilakatu da San Juan bezperan suaren

inguruan dantzatzea.

Urte luzez Arrasatearrak izutu zituen dragoiaren kondaira irudikatzen du dantzak; eta herensugea akabatu zuten errementariak ditu gogoan.

Dantzan ari direla dantzariak makilekin egiten duten soinuak, esaterako, garai bateko errementariak ateratzen zuten zarata irudikatu nahi du.

Jaiari hasiera emateko dantza eta musikak bat egingo dute San Juan bezperan Arrasaten.

**Jose Ramon Vitoriaren musikan oinarrituta dago Errementari dantza. 1995ean asmatu zuten eta ordutik ohitura bilakatu da San Juan bezperan dantzatzea**

Herriko kaleetan

**Egubakoitza, 23 21:30ean**

Herriko musika eta dantza taldeek Errementari dantza egingo dute

## San Juanetan egongo diren dantzak

Aurtengo San Juan jaietan euskal dantzez gozatzeko aukera aparta egongo da.

Ohitura den legez, jaietako egun handian, San Juan egunean, ohorezko aurrekua eta San Juan zortzikoa dantzatuko dute plazan santuaren aurrean herriko dantzariak. Horretaz gain, ekainaren 26an, San Juan hirugarrenean herriko

plazan Soka dantza egingo dute Arrasateko dantzariak. Dantzok 19:30ean izango dira. Orain 10 urte herriko dantza taldeak berreskuratutako dantza da Soka dantza. Garai batean, herriko udalbatzek egiten omen zuten Soka dantza. Bestalde, Arrasateko gaitarien kalejira ere izango da, ekainaren 24an, 19:00etan.

# Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak,  
eguneko menuak, karta

*San Juan zoriontsuak !*

Otalora Lizentziaduna 10  
Tel.: 943 77 20 04  
ARRASATE

Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



## San Juan jai zoriontsuak!

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45 E-posta: d4051@marsans.es



**Hilarion  
jatetxea-taberna**

Eguneko menuak  
Karta zabala  
Era guztietako bazkari eta afariak  
Talde gazteendako prezio bereziak

SAN JUAN SUA

# San Juan bezperan, sua eta magia herriko plazan

Herriko plazan  
**Egubakoitza, 23  
22:30ean**  
Herriko plazan, San Juan suaren inguruan dantzak.

Urteko egun luzeenak urteko gau motzenari utziko dio lekua, San Juan suaren laguntzarekin

ARANTZAZU EZKIBEL

**Ekainaren 23an, 22:30ean piztuko dute sua herriko plazan. Suaren inguruan, dantzariak eta herriko musikariak arituko dira.**

Urteko bizipen txar denak sutara botatzeko gaua da ekainaren 23koa. Urteko gaurik magikoena da.

San Juan jaiei hasiera emateko modu egokia da; bizipen txarrak suaren garretan erre eta bizipen berriei lekua utzi.

**ARRATSALDEKO EKITALDIAK**

18:00etan herriko koadriek makala ekarriko dute plazara. Baina ordurako jai giroa nagusi izango da Arrasateko kaleetan. Egubakoitzean bertan, txosna batzordeak antolatuta, bazkaria egingo dute herriko koadrilek. Ondo bazkaltzea ezinbesteko izango da arratsaldean makala eraman ahal izateko.

Bestalde, arratsaldean bertan, herriko plazan, txikientzat etxafuegoak eta bonba japoniarrak egongo dira. Hitzordua 16:00etan izango da. Haurrek ere ez dute aspertzeko betarik izango aurtengo San Juan jaietan. Bonba japoniarren

jolasekin bukatu bezain laster, pailazo emanaldia izango dute; 16:30ean Niko eta Periko arituko dira, txiki eta ez hain txikien algarak eragin nahian.

19:30ean Arrasateko zaindariari salbea abestuko diote. San Juan Bataiatzailearen parrokiaren izango da.

Arratsaldeko jaiak gaueko magiari emango dio lekukoa. Izan ere, 22:30ean piztuko dute sua herriko plazan. Dantzariak Maalako errabaletik aterako dira gaitari, txistulari, konpartsa eta Arrasate Musikalekoekin batera. Herriko kaleetan zehar askotariko dantzak egingez kaleak alaitasunez jantziko dituzte.

Gero, plazara iritsiko dira suaren inguruan dantzatzeko. Hala, Arrasateko gaua magiaz beteko dute Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeetako kideek.

**ERREMENTARI DANTZA**

Plazan, suaren inguruan jira eta bira ibiliko dira dantzariak. Alkatea ere bertan izango da herriko dantzariekin batera jaiei ongiatorria eman nahian.

Errementari agurra, Alkate dantza eta San Juan Zortzikoa dantzatuko dituzte. Ondoren, herriko neska-mutilek aukera izango dituzte suaren inguruan

jarri eta salto egiteko. Hala, urteko egun luzeenak gau motzenari utziko dio lekua.

Akelarrerik ez da izango gurean, baina Arrasaten ez dira faltako euskal musika eta euskal dantzak San Juan su gaueko giro berezia sortzeko.

Gauerdia baino lehenago, 23:00etan, hain zuzen ere, SUDC elkarteak antolatutako danborrada nagusiari emango zaio hasiera. Udalekoek esan digutenez, gehigarri hau ixterako orduan zehaztu gabe zegoen nondik aterako den.

Amaiera plazan izango du danborradak. Bertan, ohikoak diren piezak joko dituzte eta baita San Juanetako ereserkia ere.

Arrasaten egin zen lehenengo danborrada Udalpe elkarte gastronomikoak antolatu zuen 60ko

hamarkadan, 1961ean, hain zuzen ere. 1967ra arte jarraitu zuten danborrada antolatzen Udalpekoek eta gero SUDC elkarteak hartu zuten erreleboa.

Dena antolatuta dago, beraz, San Juan jaiei hasiera ezin hobea emateko!

# Sikol

LENTZERIA



Olarte 31 (Arbolapeta ondoan) ARRASATE



Suaren garretan bizipen txarrak erreko dira.

ARTXIBOA

## NAGUSIAK

# San Juan eguna, nagusiei omenaldi eguna

Luntxa eta opari banaketa egingo dituzte 80 urtetik gorako nagusiendako omenaldi ekitaldian

LEIRE KORTABARRIA

**Arrasateko edade-tuek ere izango dute euren propio antolatutako ekitaldirik. Hala, jaietako klasikoa da 80 urtetik gorakoei egiten zaien omenaldia.**

**G**ero eta edadetu gehiago dira 80 urteak, eta gehiago ere, hartzen dituztenak. Horiekin pentsatuta, urtero bezala, omenaldi ekitaldia antolatu du aurtan ere Udalak. Parte hartu gura dutenek alde aurretik eman behar zuten

izena, eta epea zabalik egon da udaletxeko bulegoetan. Egunotan ziren ixtekoak, nahiz eta, Kultura teknika-rien esanetan, beti egoten dira beranduago agertzen direnak.

Omenaldia Abaroan egiten den arren, Abaroako arduradunek gogorazten dute izenematea udaletxean egin behar dela, ez Abaroako egoitzan. Izan ere, jende dezentte egoitzara joaten da izena ematera.

Izena emateko, nortasun agiria eraman behar da, eta Arrasaten bizi behar du pertsona horrek.

Udalak dioenez, iaz arte, urtetik urtera gero



Mahaiaren bueltan elkartuko dira aurtan ere edadetuak.

ARTXIBOA

eta edadetu gehiagok izena ematen zuen, baina iaz, kopurua jaitsei egin zen.

**GIRO ATSEGINA**

Omenaldia San Juan egunean, hilaren 24an, egingo

dute, Abaroan. Ekitaldi nabarmena izaten da agertu diren gizonezko eta emakumezko edadetuenei oparia, alkateak emanda: emakumeari lore sorta eder bat, eta gizonari, txa-

pela. Omenduak ez dira derrigorrez herriko nagusienak, ekitaldira joan diren nagusienak baizik.

Han izaten dute edadetu guztiek udalak eta Abaroako arduradunek prestatutako luntxa, askorendako bazkaria izaten dena.

Oro har, mokaduarekin, omenaldiarekin eta elkar ikustearekin, giro atsegina sortzen da eta gustura egoten dira gonbidatuak, Abaroa elkarteko ordezkari Jose Rivierek dioen moduan: "Etortzen

**Iaz 90 lagun batu ziren ekitaldian, aurreko aldietan baino zertxobait gutxiago; izan ere, nagusi batzuk gaixorik edo nekatuta egoten dira**

Abaroa egoitza

**Zapatua, 24  
12:30ean**

Luntxa eta opari banaketa izango dituzte 80 urtetik gorakoek

da jendea, bai; mahaiak bete egiten dira eta badirudi jendea gustura egoten dela", azaltzen du.

**IAZ, JENDE GUTXIAGO**

Ikusteko dago aurtan zenbat edadetu joango diren omenaldira. Izan ere, iaz jaitsei egin zen parte-hartzaile kopurua zertxobait: hain zuzen, guztira, 90 pertsona batu ziren: batetik, 32 gizonezko eta 45 emakumezko etorri ziren herritik, eta Iturbideko 58 egoiliar: 13 gizonezko, 20 emakume, eta bakarrik omenaldira joan ziren beste 25 egoiliar.

Oro har, Iturbide egoitzan bizi diren nagusiak urtero eramaten dituzte omenaldira, baina asko gaixorik edo oso nekatuta egoten dira ekitaldi osora edo bazkarira joateko, eta bakar-bakarrik omenaldian egiten dute sartu-irten bat. Parte-hartzea jaitsearen arrazoi bat hori izan daiteke, gero eta nagusi gehiagok ezin joan izatea, alegia.

Bestalde, zenbait erretiratutako ere gurago izaten dute, omenaldira joan barik, jaietako beste ekin-tza batzuetan parte hartzea egun horretan.



- Jakien elaborazioa eta salmenta
- Igande eta jaiegunetan goizez zabalik

Aretxabaleta Tel.: 943 770612  
gertujanariak@euskalnet.net  
www.goiena.net/blogak/gertu



**Ondo pasau San Juanak!**

**sofa leniz**



Sofatan eta atsedenerako sistematan barietate handia

Astelehen goizean itxita  
Astelehenetik larunbatera  
9:30-13:00 • 16:30-20:00

Tel./Faxa: 943 79 27 16  
Araba etorbidea 3

# belaunaldiz belaunaldi herriko sena landuz

*gora arrasate,  
gora san juan*

**JMA** 



# AMAGARA

Erdiko kalea 54. Arrasate. 943 79 09 09


## ESTETIKA ZERBITZUAK

- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Estres kontrako masajea
- Solariuma
- Argizari eta elektriko depilazioa
- Brontzeatu artifiziala
- Hidromasajea...
- Mikropigmentazioa: ezpanak, begiak, bekainak
- Emakume eta gizonentzat laser depilazioa

## MEDIKU KONTSULTA

- Gorputz mesoterapia: Zelulitisa, Sendotzea...
- Aurpegi mesoterapia: hialuroniko azidoa, betetzeak, VISTABEL(botox)
- AHA Peeling-a: orbanal, aknea...

Arruabarrena doktorea. Elkargokide-zenbakia: 6.073  
**San Juan jai zoriontsuak!**



## MUSIKA

# Doctor Deseo eta Rafa Ruedaren musika Monterronen

Txosna-gunean, plazan eta 3.60 aretoan, punta-puntako taldeak izango dira.

MIREIA BIKUÑA

San Juan jaietako egitaraua gertu dago. Eta urtero moduan, jasotako eskaintza zabalaren barruan, musikak leku berezia izango du. Musika estilo ezberdinez gozatzeko aukera.

**G**oi mailako kontzertuak iragaritzen dira Arrasateko jaietarako. Haien artean aipagarriena Rafa Ruedak eta Doctor Deseok Monterronen eskainiko duten emanaldia da. Kontzertu bikoitza ekainaren 24an izango da, 23:30ean.

**DOCTOR DESEO**

Maiatzaren 12an aurkeztu zuten Doctor Deseo taldeko kideek azken diskoa 3.60 aretoan. Hamalau bat hila bete eszenatokitara igo barik egon ondoren, *Detrás de los espejos rotos* lana erakutsi zuten jendaurrean. Bilbon emanaldi bikoitza eskaini ondoren, Arrasate egon ziren. Taldearen



Rafa Ruedak disko berria aurkeztuko du Arrasaten.

GAZTELUPEKO HOTSAK

hamargarren diskoan, aurreko diskoetako esperimentazio eta elektronika giroak alde batera utzi eta taldearen ohiko rock bereizgarria bueltatu direla antzematen da. Doc-

**Doctor Deseo eta Rafa Ruedaren kontzertu bikoitza Monterronen, ekainaren 24an**

tor Deseo taldearen musika esparrua betiko linean dago, rocka poparekin nahastuta. *Detrás de los espejos rotos* diskoak, ordea, baditu askotariko osagaiak eta zertzelada kro-

matikoak. Rock-pop abestiak soul, funky, tex-mex, psikodelia, tango, zingaro eta hard osagaiekin uztartzen dituzte.

Diskoaren izenburua minbiziak inspiratu die, eta bizitzaren aldeko alegoria da. "Gaixotasun larriak dituzten lagun asko ditugu. Hortaz, bizitza gehiago gozatu behar dela aldarrikatu gura dugu", azaldu zigun taldeko abeslari Francis Diezek.

Diskoa erraztasun osoz entzuten da, kantu guztiek freskotasun paregabea dakartelako. Hitzei dago kienez, sexua, desioa eta morboa dira gai nagusiak. Hamar abesti biltzen dira diskoan, haietako bat euskaraz, Lauaxetaren *Eta moxua bil atsekabez* olerkia.

*Detrás de los espejos rotos* diskoa Muxikako (Bizkaia) Pertika estudioan grabatu zuten Iñaki Uohorekin.

**20 URTE**

Doctor Deseo taldeak 20 urte beteko ditu 2006an. 1986an sortu zenetik, Doctor Deseok ondo neurtu

**Ondo pasa jaiak**

• ARRASATE-MONDRAGÓN:  
Maalako Errebala, 31  
Tel.: 943 797 011

Barceló  
Viajes  
Bidaiak

Bidaiari bat, bidaia bat

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**ONDO PASAU JAIXAK!**

**ESKORIATZA**

Tfno 714345



ERRETEGIA

MENDIOLA

**San Juanetan zatoz geurera**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

Mendiola auzoa  
943 71 43 45

ditu agerraldiak, diskoak, isilaldiak, kontzertu emanaldiak eta bizitza soziala. Nahiz eta entzulearendako azken bi lanen artean egon den tartea ez horren luzea izan, ez da hala izan. Doctor Deseo 15 hilabete egon da zuzeneko kontzerturik eskaini barik.

Hain zuzen ere, *Doctor Deseo*, *Tan cerca del cielo*, *Fugitivos de paraiso*, *Hay cuentos aun por inventar*, *Atrapado en tu silencio* eta *Metamorfosis* dira talde bilbotarrak kaleratutako diskoetako batzuk.

Doctor Deseo taldea bost kidek osatzen dute: Francis, ahotsa; Josi, baxua eta korduak; Txanpi, bateria-jolea; Raul, teklatuak; eta Toro, gitarra-jolea eta korduak egiten dituen.

Monterronen iragaritzen den kontzertua ikusgarria izango da duda barik. Monterrongo eszenatokiak joko handia emango dio Doctor Deseo taldeko abeslariari. Burdinetatik igo eta ikuskizuna emateko gertu dago abeslari bilbotarra.

#### RAFA RUEDA

Boskote bilbotarrari lagun egiten, kontzertu berean Rafa Ruedak ere bere emanaldia eskainiko du.

Jakinduria sakonekoa, gitarra-jole fina eta irudimentsua, abeslari sendoa eta ekoizle moduan lan garrantzitsuak egin dituen da Rafa Rueda.

Arlo ezberdinetan erakutsi izan du bere maisutza, hala nola, PILT taldearen diskoa eta zuzeneko



Doctor Deseok hilaren 24an, zapatua, joko du Monterron parkean.

ARTXIBOA

etan, *Zaharregia*, *txikiegia agian* lan poetiko musika-lean, Kirmen Uriberekin edota Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren edo Kokeinen egitasmo musikalak bultzatuta.

Bere ibilbide propioari lotuta, aurtengo udabe-

rrian kaleratu du *Saredun eskuia*, bere bakarkako bigarren diskoa, gaur egun Euskal Herrian dagoen konposatzaile, musikari eta kantaririk bikainetako delako erakutsiz.

Goi mailako musikari taldea lagun duela, kan-

tuek indar berezia hartzen dute kontzertuetan, batzuetan intimistak, baina beti indartsuak. Pop eremua ondo lantzen du. Emanaldi bakoitza funtzio erreperi-kariarendako eta baita entzulearendako ere.

Ekainaren 24an Monterronen eskainiko duen kontzertuan Mikel Azpiroz (teklatuak), David Gonzalez (baxua) eta Rufo Urbina (bateria-jolea) lagun-tza izango du.

#### 3.60 ARETOA

Jai egitarautik kanpo, 3.60 aretoan ere bestelako musika emanaldiak iragartzen dira San Juan jaietarako. Funky-elektro eta rock kontzertuak egongo dira 3.60 aretoan ekainaren 23an, 24an eta 25ean.

Ekainaren 23an, goizeko 3etatik aurrera, Mantzilak rock musika jarriko du 3.60 aretoan.

Ekainaren 24an, leku eta ordu berean, hiru DJ arituko dira funky eta elektro musika jartzen. Arrasateko Gorka, Bilboko Gonzalo eta Madrilgo Fernando izango dira 3.60 aretora hurbiltzen diren lagunak dantzan jarriko dutenak.

Azkenik, neskez soilik osatutako hiru talderen emanaldiak iragartzen dira 3.60 aretoan.

Zaldibar, Bergara eta Arrasateko taldeak dira ekainaren 25ean kontzertua eskainiko dutenak. Lost Girl, Street Girl eta Againts the Rapist dira hiru taldeak.

Kontzertua 3.60 aretoan izango da, gaueko 11etatik aurrera.

**Neskez osatutako hiru taldek emanaldia eskainiko dute ekainaren 25ean.**

**DJak izango dira protagonistak 3.60 aretoan, ekainaren 23an eta 24an.**

Monterron

**Zapatua, 24  
23:00**

Doctor Deseo talde bilbotarra eta Rafa Ruedaren kontzertu bikoitza

### Bestelako musika ere egongo da

Rock, funky, elektro eta DJez gain, bestelako musika kontzertuak ere izango dira 2006ko San Juan jaietan.

Erromeriek ere tokia izango dute Arrasaten.

Ekainaren 23an Gaubela taldearekin dantzaldia izango da eta 24an

herriko plazan erromeria iragarri dute Joselu Anaiak taldearekin.

Erromeria gaueko 11etan hasiko da. Egun berean,

baina eguerdian,

Arrasateko Musika

Bandak kontzertua

eskainiko du

Monterronen. Bederatzi

pieza eskainiko ditu Iker

Olazabalek zuzentzen

duen musika bandak.

Ekainaren 25ean, aldiz,

herriko plazan

dantzaldia egongo da

Nueva Alaska

orkestrarekin.

Emanaldia 22:30ean

hasiko da.



Santalaitz 6 behea 2

20570 BERGARA

Tel.: 943 76 17 56

Faxa: 943 76 05 88

Posta-e: mondragon\_cespa@cespa.es

**Ondo pasa jaixetan!**

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea.
- Fatxaden, pintaden eta abarren garbitzea.
- Kale garbiketak.



## MUSIKA

# Kaleak girotzeko aukera zabala aurten ere

**Txistulariak, konpartsak eta gaitariak izango dira, besteak beste, kaleetako giroa alaitzez arduratuko direnak**

MIREIA BIKUÑA

**Leku guztietan ospatzen diren jaietan gune ezberdinetan ospatzen diren ikuskizunetaz gain, kaleko giroa bero mantentzeko ahalegin berezia egiten da.**

**E**ta kaleko giroa bero-bero mantentzeko, San Juan jaien egitarauan kaleetan egingo diren ekintza mordoa jaso dira. Beste urte batzuetako ekintze-kin alderatuta ez dago nobedade askorik. Baina halakoetan emaitza ona

ematen duena errepikatzea izaten da onena.

Noski, kalean burutzen diren ekintzetan eguraldiak ere zeresan handia izaten du. Egun hauetan euri gutxi egin duen arren, arrasatearrek ez dute euririk gura jaiegunetan.

#### TALDE ASKOREN LANA

San Juanetan talde askok izango dute herriko jaiak girotzeko ardura. Txistulariak izango dira San Juan bezpera egunean, arratsaldean, diana eskainiko dutenak.

San Juan egunean, goizean goiz, 08:30etik aurrera Arrasateko gaitariak izango dira diana egingo



Buruhaundi eta erraldoiekin kalejiran ibiliko dira herritarrek.

GOIENKARIA

dutenak. Ekainaren 24an bertan, goizeko 11etatik aurrera Arrasateko erraldoien eta kilikien konpartaren irteera izango da. Arrasateko konpartsa lau erraldoik, sei buruhandik eta bi zaldikok osatzen dute. Erraldoiak Ganboatarren eta Oinaztarren arteko borroketako isla dira: batetik, Artzubiagako Martin Bañez eta haren


emazte Sancha Otxoa daude; bestetik, Butroiko Gomez Gonzalez eta haren emazte Elvira.

Ekainaren 26an, goizeko entzierroaren ondotik, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan. Los Incansables txaranga egongo da ikuskizuna girotzen. Egun horretan trikitilarien doinuez gozatzeko aukera izango da.

## Mexiko eta Eskozia aldeko musika doinuak Arrasaten


Los Angeles de Mexico mariachiek kalejira egingo dute kaleetan eta arratsaldeko 8etan, plazan, *Mexico lindo* ikuskizuna eskainiko dute. Tenochtitlan de Puebla dantza taldeak ere parte hartuko du ikuskizunean.

McKensy's Clan Band eskoziarrek ere bisita egingo dute Arrasatera. Kalejira bikoitza eskainiko dute ekainaren 24an: eguerdian eta arratsaldean.



## MERENDERUE

**Tel.: 973 77 15 86**



*San Juanetan  
etxean nahi ditugu!*

### ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK



Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

San Juan  
jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Tel.: 943 79 01 51¥ Basabe poligonoa 4, EQ-11 ¥ ARETXABALETA



ANTZERKIA

# Antzerkia eskainiko du Glu-Glu taldeak domekan

Ekainaren 25ean 'Todos nacemos vascos' antzezlanaren eskainiko du Glu-Glu antzerki taldeak Monterron parkean

ARANTZAZU EZKIBEL

Arrasateko San Juan jaietan umoreak ere bere tokia izango du. Jaietako domekan, 22:30ean izango da antzezlanaren. Sarrera libre izango da.

**T**odos nacemos vascos antzezlanak arrakasta handia lortu du Euskal Herrian zehar. San Juan jaietan ere bertan izango dira Glu-Glu taldeko kideak arrasatearren artean umorea zabaldu nahian. Monterron parkean

izango da antzezlanaren eta jende ugari biltzea espero da. Izan ere, Glu-Glu antzerki taldeak arrakasta handia lortu du Euskal Herriko txoko guztietan.

**ARRAKASTA IBARREAN**

San Juanetan taularatuak duten antzezlanarekin Oñatin eta Bergaran emanaldiak egin dituzte aurten Glu-Glu konpainiako lagunek. Bergaran martxoaren 31n izan ziren. Eta Oñatin bi emanaldi egin behar izan zituzten jendearen erantzun ona zela-eta. Santa Ana antzokian izan ziren emanaldiak, otsailaren 24an. Glu-Glu antzerki taldea *Cocidito madrileño*-



Glu-Glu taldea *Cocidito madrileño*-rekin arrakasta lortu zuen talde bera da.

ARTXIBOA

rekin arrakasta lortu zuen konpainia bera da.

Oraingo honetan, istorio ezberdina dakarkigute: pertsonaia batek, hil eta gero, beti euskalduna izan dela jakingo du, berak uste

ez bazuen ere. Umorez giro-tutako antzezlanaren da. Umorea ziurtatuta dago domeka iluntzean Monterron parkera gerturatzen diren guztien artean, beraz.

**UMOREA JAIETAN**

Umorea ezinbestekoa izaten da herriko jaiak giro onean eramateko.

Hala, *Todos nacemos vascos* antzezlanaz gain, umorea presente izango da jaietako beste ekitaldi batzuetan ere.

Egubakoitz arratsaldean, etxeko gaztetxoek Niko eta Periko pailazoen ikuskizuna izango dute. Jaiak girotzeko asmoz, Eskoziatik Mc Kensy's Clan Band etorriko da. Haien zapatuan arituko dira.

**Oscar Terolek idatzitako izen bereko liburuan oinarrituta dago obra. Glu-Glu konpainiak moldatu du liburua antzerkirako; sarrera libre izango da**

Monterron parkean

**Domeka, 25  
22:30etan**

Monterronen *Todos nacemos vascos* antzezlanaren eskainiko du Glu-Glu taldeak

**Zeruan denak dira euskaldunak**

Lola izeneko emakumea da Jabugoko txurro saltzailea. Hil ondoren, zerura igotzean, jende guztia euskalduna dela konturatuko da. Baina Lolak ez du euskalduna denik onartu nahi. Euskalduna dela konturatzeko, proba ezberdinak pasa beharko ditu eta azkenean, Lolak ere, beste guztiek bezala, euskalduna dela onartu beharko du.

*Todos nacemos vascos* antzezlanaren Oscar Terolek idatzitako izen bereko liburuan oinarrituta dago. Glu-Glu konpainiak moldatu du liburua antzerkirako.

Zuzendaria Eloi Beato da eta antzezleak Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Josean de Migel, Galder Perez, Maribel Salas eta Mari Kruz Melgosa dira.



**Ondo pasau San Juanak!**



Biteri Etorbidea 16. ARRASATE  
Tel.: 943 71 24 33 Faxa: 943 71 23 43  
www.hotelmondragon.com  
posta-e: hotelmondragon@hotelmondragon.com

## GASTRONOMIA

# Hegaluze parrillada egingo dute herriko plazan

Jose Inazio Atorrasagasti sukaldariak gertatuko du hegaluzea, Goikobaluk Argentinara egingo duen bidaiaren alde

EDU MENDIBIL

**Eusko Labelen eskutik hegaluzea dastatzeko aukera izango da astelehenean, hilaren 26an, herriko plazan. Batutako dirua Goikobaluren-tzat izango da.**

**G**etariako Jose Inazio Atorrasagasti sukaldaria etorriko da parrillada gertatzera eta hurbiltzen diren guztiek gurean hain estimatua den hegaluzea dastatu ahal izango dute eguerdi partean. Batutako dirua Goikobalu abesbatzarentzat izango da, taldea Argentinara joango baita udazkenean, urrian.

Abesbatzako presidenten Jesus Mari Arzek eman digu bidaia horren berri: "Orain dela zortzi bat urte ere Argentinan egon ginen eta aurrean ere joateko aukera suertatu zaigu. Astebeterako joan-gara eta hasiera baten

hiru emanaldi egingo ditugu: Villa Marian, Cordoban eta Buenos Airesen. Aspaldian Argentinan bizi den Nicasio Uribarren aramaiorren bitartez egin ditugu hara joateko gestioak".

Goikobalu abesbatza 1989an sortu zuten eta gaur egun 45 lagunek osatzen dute abesbatza. Iñaki Maidagan dugu taldeko zuzendaria. Aurretik Argentinan izandako esperientzia guztiz aberasgarria suertatu zitzaie la diosku Jesus Mari Arzek: "Oso oroitzapen onak dauzkagu bidaia hartatik. Euskaldun pilo bat bizi da Argentinan eta euskal etxeetan eta egin ziguten harrera benetan hunkigarria izan zen".

**ESKUZ ARRANTZATUTAKOAK**

Esan bezala, bidaia ordaintzen laguntzeko hegaluze pintxoak, ardo zuria edota txakolina egongo dira aukeran astelehenean. 1.000 pintxo inguru gertatuko dituzte eta prezio sinbolikoan salduko dira. Eus-



Hegaluzea eta hegalaburra eskuz hartzen dira. Euren promozioan ari da Eusko Label.

EUSKO LABEL

ko Labeleko komunikazio arduraduna dugu Angel Rocha: "Hegaluzea eta hegalaburra promozionatzeko kanpainari ekin diogu, *Eskuz arrantzatutakoak* izenburupean. Hain zuzen ere sare pelagikoak erabili beharrean banan-

**Astelehenean  
1.000 pintxo  
inguru  
gertatuko  
dituzte**

banan eta eskuz hartzen den arraina da, estimatua kontsumitzaileen artean, hegaluzea batez ere. Lehenbiziko dastatzea ekainaren 17an egin genuen, Zumaian. Ea Arrasaten ere erantzuna bikaina jasotzen dugun...".

Herriko plazan

**Astelehena, 26  
12:00-14:30**

Hegaluzea eta atungorria dastatzeko, Eusko Labelen eskutik.

## Goikobalu, uztailaren 1ean Madrilen

Goikobalu abesbatzak parte hartuko du uztailaren 1ean Espainiako Abesbatza Lehiaketan. Iñaki Maidaganek zuzendutako taldeak lau abesti eskainiko ditu Madrilen, Rivasen: *Cancion de Jinete* (Lorca), *Lata d'agua* (Samba, Leiterena), *Peccantem me quotidie* (Christofforo Morales) eta *Kitolis* (Pedro de Anitua eta Luis de Aranburu).

**Estatuko 18 abesbatza lehiatuko dira Madrilen. Hondarribiko Eskifaia abesbatzarekin batera, talde euskaldun bakarra izango da Goikobalu. Aste bukaeran, Aretxabaletako Galartza aterpetxean, kontzentrazioa egin zuten Goikobalukoek lehiaketa gertatzeko.**

**Maier**  
Estetika Zentroa

Zarugalde 5 ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 06



- Laser-fotodepilazioa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Brontzeatua izpi ultramorerik gabe
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Aurpegi-garbiketak
- Gorputz-esfoliazioak

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Depilazio elektrikoa.
- Lifting-a
- Masajeak:
  - Lasaitzailea
  - Kiromasajea
  - Zainak biziberritzea
  - Drainatzea

**RICHI**  
Ile apaindegia

Zarugalde 5 ARRASATE Tel.: 943 79 10 06

- Etxez etxeko zerbitzua
- Irudi-aholkulari pertsonalizatua
- Koloreak arropetan, ilean, orrazkera eta makillaje mota aholkatzen dizkizugu!!





# kanpanzar obate

— harrobiak —

*Ondo pasau San Juanetako jaixetan*

**ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK**

## **KANPANZAR HARROBIA S.A.**

Meatz-Erreka 21  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 77 10 83  
Faxa: 943 77 00 25

## **KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**

Garagartza auzoa 52  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 71 24 03  
Faxa: 943 77 02 51

*Paraje eder  
baten kokatua*



*Atsedenerako  
behar den  
guztiarekin*


*Enpresa  
bilerak  
egiteko leku  
egokia*

*Arteaga*

Landetxea

*Dasta ezazu  
gure menurik  
goxoenak*

*Arteaga baserria,  
Garagartza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel. 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82*



 **ETXE-LAN** S.COOP  
BANATZAILE OFIZIALA



Ostalaritza ● Garbitegia ● Hotz industrialia

**bergararrak kanpoan**

Jaio Mendibil > Langilea  
Floridan bizi da

# "Ez dago mugimendurik ez bizitasunik kaleetan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Eusko Jaurlaritzako beka baten bidez joan zen atzerrira lanera Jaio Mendibil, Floridara, hain zuzen ere. Eguraldi onarekin gustura dago, baina bera bizi den herriari bizitasuna falta zaiola esan digu.

Uraren tratamenduan jarduten duen enpresa batetik joan da Mendibil Tampara, eta ura geatzeko instalazio bat eraikitzen ari dira. "Hasieran Ingalaterrara joateko eskaintzan egin zidaten, baina Londresko proiektua bertan behera geratu zen. Ameriketako Estatu Batuetan nago, Floridako mendebaldean".

Urtarrilaren erdialdean joan zen bertara, eta martxoa Bergaran pasa ostean, irailera arte AEBetara bueltatu da.

Herria nahiko handia dela esan digu Jaio. "Baina ez dago erdialderik edo jendea egoteko plazarik edo parkerik. Jende guztia zentro komertzialetan elkar-

**"Urtarrilean etorri nintzenetik eguraldi ona izan dugu eta sarritan joaten gara hondartzara edo igerilekura"**



Jaio Mendibil.

tzen da eta ez dago mugimendurik edo bizitasunik kaleetan, hori da gutxien gustatzen zaidana".

Baina aurkitu du gauza onik, eguraldia, esaterako: "Urtarrilean etorri nintzenetik eguraldi ona egin du eta hondartzara edo igerilekura joaten gara. Herrian bertan dago hondartza, baina autoz joanda 20 edo 30 minutura hondartza garbiagoak eta hobeak daude".

**HARRITUTA**

Bizimodua oso ezberdina da, beraz, gauza askok harritu zuten hasieran: "Paisaia laua, bandera amerikarrak leku guztietan, sekulako autoak, era guztietako jatetxeak, osasun zerbitzu publikorik ez egotea, pertsona oso-oso gizenen kopurua...".

Euskal Herriko gauza asko sumatzen ditu faltan: familia, lagunak, etxeko janaria... "Kalean jateko eskaintza handia eta merkea dago. Jatetxe euskaldun bat ere badago, baina oso-oso garestia da", esan digu Jaio.

**bere ustez**



Andres Osa Sakona

## Bake prozesua, tranpa da

Hitzetik hortzera dabil bake prozesua. Politikari eta tertuliakide gehienen ahotan horixe entzuten da. Segada, tranpa besterik ez da.

Bakea hitza ETArekin lotzen dute, su-etena, erakunde armatua desegitea... Hori xe da helburua, bestelako indarkeria motarik ez dute ikusten. Indarkeria guztiak desagertuko balira, demokrazia eza eta abar, ba tira, ez legoke gaizki.

Herriaren hitza errespetatzen ez den bitartean, autode-

## "Bake prozesua konstituzionalisten, autonomisten eta zenbait hibridoren leloa da"

terminazio eskubidea erabilizterik ez dagoenean, eta horren ondorio guztiak ukatzen dizkigutenean, bake prozesuetaz mintzatzea okerreko bidean, amildegira garamatzen bidean, sartzea da. Bake prozesua konstituzionalisten, autonomisten eta zenbait hibridoren leloa da. Lo-belarra edo opioa Marxek esango luke. Tamalez, ezker abertzaleko zenbait jende ere noizbehinka tranpa horretan erortzen da. Erne! printzipio batzuk ongi sustraituta ez badaude udazkeneko orbela bezala ibiliko gara.

Bakea denok nahi dugu, baina aurretik askatasuna, burujabetza eskubidea errespetatzea eta abar. Askatasun prozesua bake prozesuaren orde erabili behar da, benetako helmugara zuzen eramango gaituen bidea baita.

**argazki zaharra**



## Osintxuko elizaren atarian

Osintxuko elizaren aurreko aldean dago aterata argazki hau; gaur egun ere, sarritan ateratzen dira bertan argazkiak elizkizunen bat dagoenean.

On Inio apaiz bergararrarekin zintzo eta dotore ipini ziren argazkirako txapel eta guzti. Orain dela 100 urte inguru ateratako argazkia izanik zaila da jakitea zein diren erretratuan agertzen diren denak. Ezagutu ditugunen izenak,

aurretik atzera eta ezkerretik hasita: Rikardo Zangitu, Lete, Anbrozio Agirre, Jose Alberdi, Jose Leon Gisasola, Tomas Gantxegi, Olabarria, On Inio, Angel Lete, Tomas Etxeberría, Emeterio Agirre, Leokadio Ezenarro, Domingo Elortza, Damaso Gallastegi eta Inazio Elortza.

Argazkia eta informazioa: Joxe Maiztegi.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

## OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



HILABETE Hiruatxeko kide Jose Mari Sarasuak hilabete pasatu du Ekuatore Gineako Mitemelete herrian proiektua zela doan jakiteko.

MUNDUKIDE

ELKARTASUNA > HIRUATXEN PROIEKTUA EKUATORE GINEAN

# Oilategia eta zerrategia eraikita hartu du martxa Hiruatxeko proiektuak

Hiru kontainer bidali zituzten material askorekin eta ilusio itzela sortu du Mitemelete herrian

Orian arte egindakoa ikusita oilasko eta pentsu salmentari datorren urte hasieran ekingo diote

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Urriaren aurkeztu zuen Hiruatxeko elkarteak herritarren aurrean Afrikako Ekuatore Ginean oilaskoak hazi eta saltzeko kooperatiben proiektua. Abian da dagoeneko, eta elkartearen kide Jose Mari Sarasua izan zen Mitemelete herrian jarraipena egiteko. Horren guztiaren berri ematen duen eskutitza jaso dute Hiruatxeko lagun egiten dietenek, eta herritar guztiei jakinarazteko berbaldea egingo dute. Datorren eguaztenean, ekainak 21, izango da diapositibekin lagundutako ekitaldia, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

SALMENTAK URTE HASIERAN

Aurrera doaz lanak Mitemeleten, eta dagoeneko eraiki dute oiloak ugaltzeko lehen oilategia. Zerrategi bat ere eraiki dute eraikuntzan erabiliko duten egurra lantzeko, eta txitak berotzeko eta hegaztien pentsurako

behar dituzten eraikinak bukatzen dabilta. Gainera, 12 laguneko talde bat dabil zortzi oilategi eta hilategia gertatzen, eta urrirako gertu izango dituztela-

koan daude. Horren harira, oilaskoak eta pentsua saltzen laster hasiko dira, datorren urte hasieran, seguru asko. Eraikuntza lanetan dabilta langileak bakarrik ez, nekazariak ere gogor jardun dute oihaneko lurra gertatzen artoa eta soja ereiteko. Behin lurra gertu, haziak banatu dizkiete ereiteko: 600 kilo arto eta 60 kilo soja. Gotzain ohi bate-na den herriko etxerik onena, bestalde, kooperatibako egoitza izateko eskaini dute.

ZAILTASUN HANDIAK

Aurrera doa proiektua, baina ez zailtasun barik. Ez dute hornidura eta zerbitzu egokirik, eta baliabide gabeziak mantsotu eta garestitu egiten du Hiruatxeko abian jarritako proiektua. Hori horrela, orain aste batzuk materiala bidali zieten Euskal Herritik hiru kontainerretan: eraikin materiala, era askotako hornidurak, traktorea eta beste hainbat tresna. Izan ere, behar-beharrezkoa da baliabidez hornitzea eta bertako

bizilagunak langintza anitzetan trebatzea aurrera egin dezan proiektuak.

30 MILA EURO BATUTA

Mundukiderek batera erango du aurrera proiektua Hiruatxeko, eta beste elkarte batzuen laguntza jasoko du. Guztira ia 700 mila euroko aurrekontua dauka, baina Aretxabaletako elkarteak bi urtean 100 mila euro batzeko konpromisoa hartu zuen bere garaian. Erdia inguru Udalak emango dio, eta gainerakoa herritarren artean batu behar du. Proiektua aurkeztu zenetik ia zortzi hilabete pasatu dira, eta tarte horretan 30 mila euro jaso dituzte herritarrengandik. "Oso ondo doa diru batzea, eta pozik gaude aretxabaletarrek emandako erantzunarekin. Halaxe jarraitzea eskatuko nieke lehenbailehen batzeko", dio Jose Mari.

Miseria handia ikusi du Jose Mari Ekuadorko Ginean. Elikadura, garbitasuna, etxeak... hori guztia eta beste asko hobetu behar dituzte, eta bertakoek badute gogoia. Ahalegin handia egiten dabilta proiektuari lagundu eta aurrera egiteko, hasi dira eta konturatzen bizi duten egoera hobetzeko giltza dela kooperatibaren egitasmoa.

Jose Mari Sarasua > Hiruatxeko kidea

## "Izugarrizko ilusioa dute lanari ekin eta aurrera jotzeko"

M.A. > ARETXABALETAKO

Martxoak apirilera hilabetez egon zen Mitemeleten proiektuari jarraipena bertatik bertara egiteko.

Zela doa proiektua?

Ondo, aurrera egin behar da gertaketa lanak egiten dabilta. 14 lagun dauka horretarako bakarrik.

Eta bertako herritarrek zela ikusi dituzu?

Izugarrizko ilusioarekin, enpresaren gainera kontu asko ez dakite zela egin, baina aurrera egin gura dute.

Hortaz, laguntza jasoko dute hemendik?

Bai, horixe, euren gaitasuna ziurtatu artean laguntza izango dute. Lau lagun joango dira: turbinarekin dabilen sorgailua jartzeko teknikaria, injeneru agronomoa, administrazio

lanak egiten erakusteko aditua eta kooperatiben gaineko kontuetan aditua.

Epe ertainera aldatuta handia nabarituko dute...

Baita epe motzera ere, hiru urtean 32 langile egongo dira kooperatiban eta bizitzeko ondo irabaziko duten 200 nekazari. Proiektua bukatutakoan, ostera, beste 10 negozio jarriko dituzte: eraikuntzakoa...



MUNDUKIDE

GAZTEAK &gt; UDAERO EGITASMOA

# Ikastaroak, irteerak, afaria eta ekintza asko uztailean egiteko

Surf ikastaroa egingo dute Zarautzen, zaldian ibili Gopegin eta Gorlizko kanpinera irteera, beste batzuen artean

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Umeek udaleku irekiak izaten dituzte, baina gazteek ere izango dute zeregina uztailean. Egitarau zabal eta osatua gertatu dute Eskoriatzako eta Aretxabaleto gazteria zerbitzuek 12 eta 16 urte bitartekoentzat: Udaero egitasmoa, hain zuzen. Izena ema-

teko epea hilaren 19an bukatuko da; hortaz, pasatu lehenbailehen Atxagazte gaztelekutik asteburua bada edo Iralabarri plazan dagoen gazteria zerbitzutik astelehen eta eguaztenetan.

## GORLIZERA HIRU EGUNERAKO

Uztailaren 3an hasi eta 21era bitartean elkartuko dira bi herrietako gazteak. Hainbat ekintza antolatu dizkiete eta guztietan eman dezakete izena edo gututuko dutenetan bakarrik. Guztietan ematen dutenek %10eko deskontua izango dute.

Uztailaren 4an surf ikastaroa egingo dute Zarautzen. Ikasle kopurua mugatua izango da; hortaz, lehenbailehen hartu

beharko dute erabakia interesatuek. Hilaren 5ean bizikleta irteera egingo dute Urkulura eta hurrengo egunean, uztailek 6, Gasteizko Gamarra igerilekura irteera lehenengo eta afaria gero.

Hilaren 11n, martitzena, Landara joango dira izena emandakoak eta hurrengo egunean eskalada ikastaroa egiteko aukera izango dute. Uztailaren 13an, ostera, zaldian ibiltzera joango dira Gopegira.

Azken ekitaldia uztailearen 18tik 20ra egingo duten irteera izango da. Gorlizko kanpinera joango dira eta ekintza bereziak egingo dituzte: hondartzan ibili... Irteera horren kostua 50 euro da.



M.A.

## Sahararen aldeko jaia bihar, Herriko plazan, haima eta guzti

Sahararen aldeko astea egin du sortu berri den lesbaa elkarteak, eta Saharako egoeraren berri ematen duten argazki erakusketa eta berbaldia egin dituzte astean; udaletxeko ganbaran dagoen erakusketa, hain zuzen, gaur 20:00etan itxiko dute. Asteari bukaera emateko jaia egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan. Euskal Herrian bizi diren Saharako kideek haima jarriko dute, eta tea eskainiko diete hurreratzen diren herritarrei. Emakumeek hennarekin marrazkiak egingo dizkiete gorputzean gura dutenei eta, bide batez, eurek egindako artisaunak salduko dituzte. Eta hori guztia gertatu bitartean, Saharako doinu leunek girotuko dituzte Herriko Plazako bazterrak.

&gt; KULTURA

## Andramaixak iragartzeko kartel eta jaietan ahoz aho ibiliko diren esaldi lehiaketak zabalik

Hasi dira Udala eta Jai batzordea Andramaixak gertatzen, eta jaiak iragarriko dituen kartela eta ahoz aho ibiliko ditugun esaldiak gura dituzte. Kartel lehiaketan edozeinek har dezake parte, eta ondoko testua jarri beharko dio: *Andramaixak 2006; abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a; Aretxabaleta*. Irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Esaldi lehiaketan 13 urtetik gorako aretxabaletarrek har dezakete parte gura beste esaldirekin. Egitarauko esaldia asmatzen duenari 120 euro emango diote, eta pegatinetarako asmatzen dituenari 60 euro. Kartelak zein esaldiak udaletxera edo kultur etxera eraman behar dira, eta azken eguna ekainaren 30a izango da. Epaimahaiaren erabakia uztailearen 7an jakinaraziko dute.

&gt; HIRIGINTZA

## Santutxuko biribilgunearen proiektua zeinek egin erabakiko du datozen egunetan Aldundiak

Aretxabaleto iparraldeko sarreran dagoen Santutxuko ermita inguruan biribilgunea egingo dute. Proiektua zeinek egin erabaki behar du Foru Aldundiak eta deialdia kaleratu zuen orain dela aste bi. 90 mila euroko aurrekontua du proiektuak, eta bost hila-beteko epea ezarri dute lanok egiteko.

Iparraldeko sarrerak urte batzuk barru jasango dituen aldatei erantzun gura diete biribilgunearekin. Batetik, kanposantura eta CVL lantegira doan bidegurutzea dago Santutxuko ermita parean, eta bestetik, tranbia pasatuko da bertatik. Horrez gain, beste industria-gune bat ere aurreikusita dago arau subsidiarioetan; hortaz, biribilguneak autoen joan-etorriak erraztuko ditu.

&gt; DIRULAGUNTZAK

## Gizarte zerbitzuetako jarduerak garatzeko eta nazioarteko kooperaziorako dirulaguntza deiak

Gizarte zerbitzuen arloan jarduten duten elkarteentzat dirulaguntzak emateko dei egin du Udalak. Talde bereziak gizarteratzen edo osasun eta gizarte-zerbitzuen arloan lanean jarduten duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzat izango dira laguntzak.

Bestalde, gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak emateko arauak ezarri ditu Udalak. Garapenerako lankidetzeta programak antolatzeko eta munduan garatzeko bidean dabilzan herrialdeei egoera sozio-ekonomikoa hobetzen laguntzeko izango dira bigarren dirulaguntza horiek. Bi deialdiak ekainaren 6ko GAOn argitaratu zituzten, eta hilabeteko epea izango dute interesatuek proiektuak udaletxean aurkeztu eta laguntza eskaera egiteko.

&gt; LANPOSTUAK

## Ekainaren 29an bukatuko da euskara teknikari eta administrari postuak betetzeko eskaera epea

Udalak lanpostu bi sortu ditu: euskara teknikaria eta diru-bilketari eta idazkaritzako administraria. Maiatzaren 25eko GAOn argitaratu zituen bi lanpostuak betetzeko eskakizunak; hortaz, interesa izanez gero bertan zehazten dute azterketetan eskatuko dutena. Joan zen egubakoitzean, ekainaren 9an, argitaratu zuten deialdia BOEn, eta orain 20 eguneko epea dago udaletxera eskaerak aurkezteko. Epea bukatutakoan eta eskaera guztiak jasotakoan epaimahaiaren izendatuko dute bi lanpostuen azterketak zuzentzeko eta ondoren azterketa egunak zehaztuko dituzte.

Bestalde, bi peoi ere gura ditu Udalak uda partean herrian sortuko diren lanak egiteko.

&gt; PARROKIA

## Leintz pastoral barrutikoek Xabierreara egingo duten bidaiara joateko oraindik badago lekua

Ikasturteari bukaera emateko irteera egin izan dute Leintz pastoral barrutiko kideek. Ekainaren 24an, zapatua, izango da, eta oraindik badaukate lekua autobusean. Baten batek Xabierko Franziskoren jaiotzaren V. mendeurrenako ospakizunak ikusi gura baditu paregabeko aukera dauka oraingoan; hortaz, lehenbailehen hurrera dadila parrokiako lokalera izena ematera.

08:15ean aterako dira, hilaren 24an, Nafarroarantz, baina lehenengo Zaragozako Sos del Rey Catolico herria ikusiko dute. Ondoren Xabierko gaztelu eta elizatik pasatuko dira, eta bukatzeko Leireko monasterioa ikustera hurreratuko dira. Bazkaria Zangozan egingo dute, eta 21:00ak ingururako etxeratuko dira bidaiariak. 40 euro ordaindu beharko dute bidaiariak.

LITERATURA &gt; LIBURURIK GUSTUKOENA AUKERATU BEHAR ZUTEN

# Lisboara bidaiara irabazi dute Kurtzebarri eskolan Galtzagorrik antolatutako sariketan

12 eta 15 urte bitarteko 30 ikasle eta hiru irakasle joango dira Lisboara ekainaren 23tik 27ra bitartean. Galtzagorri elkarteak antolatutako sariketan parte hartzeagatik irabazi dute bidaiara.

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Urtero antolatzen du Galtzagorri elkarteak, Aldundiaren laguntzarekin, Liburu Gaztea eta Idazle Gaztea sariketa. Gipuzkoako 47 ikastetxek hartu zuten parte eta Kurtzebarri eskolak saria jaso du.

LIBURU GUSTUKOENAK

Haur eta gazte literatura eta orokorrean gaztetxoaren artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzea du helburu sariketarak. Horregatik hamabi izenburuko zerrenda bidali zuten ikastetxeetara Galtzagorriko kideek, DBHko ikasleek liburuok irakur zitzaten. "Hiru gustukoena hautatu behar zituz-



SARI BANAKETA Joan zen egubakoitzean Donostian egin zuten sari banaketan izan ziren aretxabaletarrak. KURTZEBARRI ESKOLA

ten", dio Resu Abasolo irakasleak, "eta sarritan irakasleon irizpidea eta ikasleena ez da bat etortzen". Gipuzkoako 4.434 ikasleek eman zuten botoa eta gustukoena artean Kirmen Uriberen *Gar-*

*mendia errege* eta Begoña Bilbaoren *Palestina zure mina* daude.

LISBOARA BIDAIA

Botoa emandako ikastetxeen artean Lisboarako bidaiara zozke-

tatu zuten, eta Kurtzebarri eskolari egokitu zitzaion. Ekainaren 23an aterako dira 30 ikasle eta hiru irakasle Lisboa ezagutzera: "Oso pozik daude ikasleak, asko motibatuta dituzte sariak", dio Resuk.



F.B.H.

## Gurasoak lagun, bi eguneko irteera egin zuten Arantzara

Ikasturtea bukatzen dabil eta horren seinale dira hara eta hona egiten diren txango eta egun-pasak. Arizmendiko Basabeazpiko ikasleek ere egin zuten irteeratxoa, baina oraingoan gurasoak lagun joan ziren Nafarroako Arantzara herrira. Ia 50 laguneko taldea elkartu zen, urtebete eta hamar urte bitarteko

umeak tartean. Lesakan ospatu zen Sagardo Egunean pasatu ostean heldu ziren Arantzara, eta bi egun benetan politak bizi izan zituzten: ur-jolasak, jokoak eta beste, eta domeka goizean mendi bueltatxoa, *Altxorraren bila* jolasa lagun. Bero izan zuten, baina beroagoa izan zen elkarren artean sortu zuten giroa.

JAIK

## Jaiak girotzen hasiko dira Aozaratzan

Bihar auzo lana eta afaria egingo dituzte San Juan zaindaria gogoan hartuta

M.A. &gt; ARETXABALETA

Ekainaren 24an da San Juan eguna, Aozaratz auzoko zaindariaren eguna. Dagoeneko gertu daukate egitaraua, eta asteburu honetan hasiko dira jaiak girotzen. Bihar, zapatua, auzo lana egiteko elkartuko dira auzotarrak eta Aozaratzako seme-alabak. Egunean zehar gogor egingo du lanak atsedena mereziko du, eta auzo afaria izango dute 21:00etan, Matikua tabernan. Afalostean suzko errukerak botako dituzte eta ondoren dantzaldia hasiko dute.

SAN JUAN SENDORRA

Jaiak, baina, jarraipena izango du hurrengo asteburuan. Ekainaren 23 arratsaldean San Juan sua gertatuko dute iazko sendor eta guzti, eta gauean sua piztu, eta haren inguruan kantuan eta dantzan egingo dute Aozaratzako kideek.

Zapatuan, ekainak 24, meza nagusia esango dute, 12:30ean, San Juan parrokian. Ohiturari jarraituz, San Juan sendorarekin agertuko dira auzotarrak elizan, eta bedein-katu eta gero urte guztian gordeko dituzte baserriak babesteko eta uzta ona jasotzeko. Meza ostean luntxa eskainiko diete hurreratutako guztiei, eta trikitilariak girotuko dute mokadutxoa jan bitarteko tartetxoa.

&gt; EUSKARA

## 'Aupa Etxebeste' filma botako dute gaur, Herriko Plazan

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta *Aupa Etxebeste* filma botako dute gaur, egubakoitzean, 22:30ean, Herriko Plazan.

Bestalde, datorren eguaztenean, ekainak 21, Txan magoa etorriko da Arlutz ondoko kantxara. Ludoteka-ko ikasturteari agur esateko antolatu dute ekimena, eta 17:00etan izango da.

Eta eguenean, ekainak 22, bikote homosexual eta heterosexualeen eskubide berdintasunaren gaineko berbaldia eskainiko du Aldarte elkarteak Loramendi EEK gonbidatuta. 19:00etan izango da, udaletxe zaharrean.



mingainari tiraka

Iker Akizu > Murruxoko zuzendaritza batzordeko kidea

## "Edonork egin dezake gure mendi martxa"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

IV. mendi martxa antolatu du Murruxok domekarako, ekainak 18. Copreciko aparkalekutik aterako dira mendizaleak 07:30ean, eta 28 kilometroko ibilbidea egindakoan Herriko Plazan bukatuko dute. Antolatzaileak azken gertaketa lanak egiten dabilza.

**Berrikuntzarik egongo da martxan?**

Ez, aldaketa txiki batzuk egin ditugu, baina ibilbidea hasierakoa da.

**Zein izango da ibilbidea?**

Copreci lantegiko aparkalekutik irten eta Urkulura. Handik Ugastegira, Degurixa, Leixargarate eta Kurtzebarritik pasatukoan Aretxabaletara. Herriko Plazan bukatuko da.

**Zein da tarterik gogorrena?**

28 kilometro ditu ibilbideak, baina ez dago beste munduko aldaparik. Mendian apur bat ibiltzen den edozeinek egin dezake gure mendi martxa.

**Zein helbururekin hasi zineten antolatzen?**



Aretxabaletako inguruak ezagutzera eman eta mendizaletasuna bultzatzea izango lituzke helburu, ez besterik.

**Gutxienezko eta gehienezko denborak jarri dituzue. Gutxienezkoa zergatik?**

Ez dugulako lehiakortasuna bultzatu gura. Batzuek takarraran egingo dute, baina ez da gure helburua.

**Ibilbidean jartzen dituzuen hamarretakoak jatearren egin daitekeela diote...**

Jendea goseak ez da geratuko; ordu erdiko geraldak ere egin izan dituzte. Ugastegi-kiko Santi Kurtzeko ermitan egongo da bata eta Leixargarateko aterpetxean bestea.

**Zenbat mendizale etorriko dira?**

Orain bi urte 400 inguru izan ziren. Beti Hiru Haundien aurretik egin izan dugu eta aurreten ostean denez, beharbada gutxitxoago izango dira. Eguraldiak ere izango du zeresana.

**Izena egunean bertan eman daiteke?**

Bai, horixe, eta aurretik emandakoez ere bertan jaso behar dute fitxa eta ordaindu.

KIROLA UDAN

## Ume zein gazteentzat eskaintza zabala

Ekainaren 26tik uztailaren 21era eskaintza zabala dago kirol etxean

M.A. > ARETXABALETA

Urtero moduan eskaintza zabala kaleratu du Kirol Zerbitsuak udarako. Txanda bi egin dituzte: ekainaren 26tik uztailaren 7ra lehenengoa eta uztailaren 10etik 21era bigarrena. Izenemate epea, baina, astelehenean, ekainak 19 bukatuko da. Hortaz, interesa dutenek lehenbailehen dei dezatela kirol etxera.

**HIRU TALDE, HIRU ESKAINTZA**

Adinka banatu dituzte eskaintzak eta hiru talde egin. Lehenengoan txikiak daude; hala, 4 urtetik 7 urtera bitartekoak igeriketa bakarrik aukera dezakete, edo osatua goa gura duenak igeriketa ur jolasekin eta psikomotrizitatearekin batera. Azken hori 10:00etatik 12:00etara eman go dute, eta 36 euro ordaindu behako dituzte abonatuak eta 44 gainerakoak.

Bigarren taldean 8 urtetik 11ra bitartekoak daude. Multikirola eskaini diete eta ondoko kirolak egingo dituzte: tenisa, futbola, golfa, pilota, herri kirolak, badminton, ur jolasak... Kirol guztiak egin gura ez dituenak bana-ka hauta ditzake, eta gainera, piraguan ibiltzeko aukera izango dute.

Hirugarren taldean nagusienak egongo dira, 12 eta 15 urte artekoak. Multikirola eta multiabentura izango dituzte aukeran. Multiabenturan eskalada eta rapela, espeleologia, mendi bizikleta, arku tiroa eta beste batzuk probatuko dituzte. 50 euro ordaindu beharko dituzte kirol etxeko abonatuak eta 60 gainerakoak. Horrez gain, kirolak banaka egin ahal izango dituzte, taldeak sortuz gero.

KARATEA > KLUB ARTEKO LAUGARREN TXAPELKETA

## Zortzi domina lortu zituzten herriko karate jokalariek klub arteko txapelketan

Aretxabaletan jokatu zuten txapelketa Arrasateko Saioa eta Bergarako Giartzu klubekin batera eta 90 gazte elkartu ziren

M.A. > ARETXABALETA

Joan zen zapatuan jokatu zuten Debagoieneko klub arteko laugarren karate txapelketa, eta Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako 90 gazte inguru elkartu ziren kirol etxean.

**ZORTZI DOMINA**

Aretxabaletako UDA elkarteko karate jokalariek gustura jardun zuten txapelketan, beharbada

etxean jokatzek ematen duen berotasunari esker, eta zortzi domina jaso zituzten. Adinka banatu zituzten taldeak eta kata modalitatean Unai Zuntzunegi izan zen nagusi, 6, 7 eta 8 urtekoen artean. Gorka Gonzalo bigarren geratu zen 9 eta 10 urtekoen taldean, eta Oxel Vazquez eta Pablo Lombardo, biak hirugarren. Gerriko laranja dutenen artean UDAkoak izan ziren nagusi: Axel Lizarantzu lehenengo, Aimar Cebrino bigarren eta Ekaitz Irusta hirugarren.

Kumite modalitatean aretxabaletar bakarrak jardun zuen, Odei Vazquezek, eta hirugarren geratu zen 12 eta 15 urte bitartekoek osatutako taldean.

Txapelketarekin agur esan zioten ikasturteari.



SARIAK Aretxabaletarrak pozik zeuden eskuratutako dominekin.

ODILO VAZQUEZ

**SANER**

**ITURGINTZA**

Selaikua baserria

Apotzaga auzoa

ESKORIATZA

605 71 66 92 / 943 71 52 51

**Mobiliario  
ARENAZA**

• ALTZARIAK

• DISEINUA

• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



**Zenbaki  
Aholkulariak**



• Kontabilitatea

• Fiskalitatea

• Lana

• Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxes: 943 71 22 68

www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es

UDALA &gt; UDAL AURREKONTUEN PROPOSAMENA

# Auzoetako lanek hartuko dute diru gehiena

Dorletako eta Santa Marinako urbanizazio lanek hartuko dute diru kopuru handienetakoa

Gazteria Sailari diru gehiago emango diote, baina Euskara Sailak iaz baino gutxiago jasoko du

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Astelehenean eztabaidatu eta onartuko dituzte 2006ko udal aurrekontuak. Eta, hain zuzen ere, horretarako deitu dute osoko bilkura. 17:00etan egingo dute, eta aurrekontuaz gainera, udal langile batzuek osagarriak aztertuko dituzte.

Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoaren esanetan, udal aurrekontuen onarpena hainbeste atzeratzeko arrazoi nagusia da Udala azken urteotan inbertsio handietan sartuta dagoela. Hori horrela, aurrekontu osoaren proposamena egin aurretik, gurago izan dute 2005. urteko likidazioa egitea.

## UDALA ZORPETUTA

Alkateak jakinarazi digu datozen urteetan Udalak aurrekontu txikiagoa izan beharko duela. Horren arrazoiak da Udala gero eta zorpetuagoa dagoela.

Udaleko Gobernu taldeak 2006rako daukan udal aurrekontu proposamena 9.737.453,69 eurokoa da. Hala ere, argitu beharra dago horietatik 3 milioi euro pasatxo Santa Marinan egingo duten auzune berrirako eta Ibarraundi museoaren inguruak urbanizatzeko direla. Berez, lan horien ordainketa enpresa jakin batzuei dagokie, baina, urbanizazio-lan horiek ez atzeratzearen, Udalak egingo ditu eta epe

ertainera enpresa horiek Udalari ordaindu beharko diote diru kopuru hori.

Horrez gain, proposatutako udal aurrekontutik beste 414.158,13 euro kredituei dagokie. Hortaz, 2006ko oinarritzko udal aurrekontua 6.007.650 euro izango litzateke, hala onartuko balute.

## AURREKO BI URTEEN ANTZEKOAK

Aurreko bi urteotan ere antzeko kopuruak onartu zituzten: 2004an, 5.449.271,54 euroko aurrekontua, eta 2003an, 5.888.074,47, hain zuzen ere. Aurtengo aurrekontu proposamena datu horiekin alderatuta, Eskoriatzako Udaleko aurrekontuek goranzko joera daukate azpimarra dezakegu. Hala ere, lehen aipatu dugun moduan, alkatearen asmoa da 2007tik aurrera goranzko joera hori aldatzen joatea.

Bestalde, alkateak argitu digu aurreko urteotan zerbitzu berri asko eraiki dituztela. Arrazoi horregatik, azkenaldian, urtero gastu finko askoren kargu egin behar izaten da Udala.

## DORLETAKO INBERTSIOA

Urtean egin gura dituzten inbertsio nagusienetako dagokienez, aipagarrienak Santa Marinako urbanizazioa (3.422.303,11 euro) eta Dorleta auzoko urbanizazioak (1.367.859,8 euro) dira. Hala ere,



DORLETA Auzo horretan bizilagunek egiten diharduten lanek gain, Udalak lan garrantzitsuak egin behar ditu. IKER BARANDIARAN

DATUA

# 6.007.650

EUROKO UDAL AURREKONTUA

Astelehenean onartuko dituzte udal aurrekontuak osoko bilkuran. Udal Gobernuak proposatutako oinarritzko udal aurrekontua, kreditu eta bestelako barik, 6.007.650 euro da.

Santa Marinan gastatutako diru hori bueltatuko diote Udalari.

Inbertsioekin jarraituta, Haurreskolaren kanpoaldea egokitzeko 60.000 euro bereiztu dituzte; elizateetako bideak egokitzeko 50.000 euro; eta erretiratuen dako ortu gehiago egiteko, 36.000 euro, beste batzuen artean.

Bestalde, aurtengo aurrekontuetako proposamenean Gazteria azpibatzerako partida dezent handitu dute. 130.979 euroko

aurrekontua bereiztu dute. Horren barruan, gaztelekua eta ludoteka eta zerbitzu horietan egingo dituzten ekintzak nabarmendu dituzte.

Ondareari dagokionez, Ibarraundiren azpiko aldeko gelan Leintz ibarreko historiaren erakusketa jarriko dute, eta hasi dira Zubiako labarendako dirulaguntzak eskatzen. Datorren astean zehaztasun gehiago emango ditugu.

ALEGAZIOAK

## Euskararako partidaren murrizketaren gaineko kezka agertu dute

Kontzejupe plataformak azpimarratu du "industrialdeko kontuak jakin arte ezin direla aurrekontuak onartu, ez delako Udalaren egoera erreala islatzen". Horrez gain, Kontzejupek Euskara azpibatzerari dagokion aurrekontuari erreparatu dio. Plataformaren esanetan, euskararako gastuak kalkulatzeko orduan, "2005eko gastu erreala hartu da kontuan. Baina, 2005ean *Bestelako gastuak* izeneko partida bat kendu zuten eta hainbat gastu kulturako partidatik egin behar izan zituzten". Hortaz, azaldu dute "ez dela guztiz zuzena Euskara Saileko 2005eko gastu erreala". Horrekin batera, gogoratu dute iaz Udalak Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusian sartzea erabaki zuela. Horrek "eragin

zuen euskara zerbitzuan lan jardun handiagoa egin beharra, eta Jaurlaritzak hala eskatuta, euskararen gaineko ekintzetarako diru igoera egitea, baina ez dabilta hala jokatzeko eta partida asko txikitu dute". Horren aurrean, Kontzejupek eskatu du ekintzetarako partidaren 25.800 euro jartzea; bestelako gastuetarako 2.000 euro; dirulaguntzetarako 4.728, eta Toponimia bekarako 31.800 euro. Udal Gobernuak toponimiaren gaia alboratuta duela gogoratu du.

Bestalde, Ezker Batuak eskatu du Haurreskola laguntzeko partida sortzea, museoeko piezak berritzeko 4.000 euro ematea, turismo seinalaztapena egiteko 3.800 euro, eta gazteriarako 6.000 euro jartzea.



**DE LA TORRE**  
igeltserotza

*Erreformatik orokorrean  
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxueta 7 2-D  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



IRAKURZALETASUNA

## 'Kalean irakurri' kanpaina egingo dute

Bibliotekak abiarazita, datorren egubakoitz goizean egingo dute

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako bibliotekak bat egin du Jaurlaritzak daukan *Kalean irakurri* kanpainarekin. Jaurlaritzaren asmoa da biblioteketara jende gehiago gerturatzea eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzea.

Helburu horrekin bat dator Eskoriatzako biblioteka, eta datorren egubakoitzean horren aldeko ekimen bat egingo du.

AZOKAN MAHAIA JARRIKO DUTE

Datorren egubakoitzean, hilaren 23an, bibliotekak liburuaz, aldizkariaz eta bestelako ez osatutako mahai bat jarriko du azokan. Hortaz, egun horretan gura duenak liburuak edo bestelakoak maileguz hartzeko aukera izango du bibliotekara joan barik.

> ERRETIRATUAK

### Eguenean Olazar elkarteak jaiak egingo dute

Eguenean, hilaren 22an, Olazar erretiratuen elkarteak edadetuendako urteroko jaiak egingo du.

17:30ean Olazar elkartearen atzealdean dagoen Gernika plazan elkartuko dira. Han 200 bat lagunendako mahaiak jarriko dituzte eta afari-merienda egingo dute. Urdaiazpikoa, kroketak, mingaina, gazta eta bestelakoak jango dituzte. Horrez gain, elkarteak arduradunak saiatuko dira afaria alaitzeko muskariren bat eramaten. Olazar elkarteak bazkideendako bakarrik izango da ospakizun hori.



BEHERANTZ laz egin zuten azterketaren arabera, umeen artean euskararen erabilera beherantz egin du.

IKER BARANDIARAN

EUSKARA > ERABILERA SUSTATZEKO NEURRIAK

# Jolasguneetan euskararen erabilera indartzeko jolaskutxak jarriko dituzte

Herriko lau jolasguneetan jarriko dituzte, umeek eta gurasoek ibil ditzaten

Lau jolaskutxen barruan asmakizunak eta jokoak sartuko dituzte astero

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Joan den urtean Eskoriatzan euskararen kale erabileraren neurketa egin zutenean, Udaleko Euskara azpibatzordea konturatu zen umeen eta gaztetxoaren arteko euskararen erabilera uste baino txikiagoa dela.

Are gehiago, 2003an egindako neurketaren emaitzak kontuan hartuta, joera beherantzkoa

da. Hain zuzen ere, 2003an umeen %49,8k erabiltzen zuten euskara eta iaz, berriz, %46,8k. Gazteei dagokienez, 2003an %48,5ek egiten zuten euskaraz eta 2005ean, %39,5ek.

SAN PEDRON, ERABILERA TXIKIENA

Herriko umeen euskara erabilera zonaka aztertuz gero, datuek erakusten dute erdigunean eta Goiko kale-Dorletan erabiltzen dutela umeek gehien euskara (%63,4 eta %54,4 hurrenez hurren), eta San Pedron, berriz, gutxi (%17,2).

Euskara azpibatzordeak ez daki zein den jaitsiera horren arrazoia, baina arazoari konponbidea aurkitu gura dio. Hortaz, umeen jolasguneetan ezartzeko moduko ekimena abiaraztea erabaki du.

Hala, umeen artean ahalik eta gehien eragin gura du, emaitza horiek agerian utzi duten arazoari buelta emateko.

LAU JOLASGUNETAN

Datorren astetik aurrera, Intxaurtxuetan (kiroldegi aurrean, hain justu), biblioteka aurrealdean, Txistularien Arratean, eta Dorletako eta Olaetako jolaskutxietan jolaskutxa bana jarriko ditu. Jolaskutxa horiek Jaurla-

ritzak diseinatu ditu, eta Eskoriatzan jarriko dituztenak Rotundenak enpresak egingo ditu. Metakrilatoz egingo dituzte eta barruan hainbat dokumentu sartzeko aukera izango da.


ERABILERAN ERAGIN

Helburua da gune horietan eragitea euskararen erabilera gora egin dezan. Horretarako, jolaskutxen barruan astero asmakizunak edo jolasen bat sartuko dute. Horrekin lotuta, Euskara azpibatzordetik jakinarazi digute herriko aspaldiko jokoak berreskuratzen saiatuko direla. Hala nola, *txirikiletan, pote-poteka...*

Umeak asmakizunen argibidea aurkitu edota jolasteaz gain, taldean arituko dira eta euren artean euskaraz egiteko ohitura indartuko dute. Horrek gurasoei ere eragingo die, horiek ere umeekin jolasten edo asmakizunei argibideak aurkitzen inplikatzaren diren heinean.



JOLASKUTXA Argazkian prototipoa.



Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00  
Faxa: +34 943 71 90 01



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure Zerbitzura

## UDA KIROLA

## Hilaren 30a, izena emateko azken eguna

Aerobika, gimnasia,  
patinajea eta kirol  
jarduera ugari  
izango dira aukeran

## I.A. &gt; ANTZUOLA

Uda Kirola 2006 kanpainaren barruan, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailera zentzuzki kirol ekintza antolatuko dituzte.

Nagusiendako izango dira ekintza horietako batzuek eta umeendako besteak. Hilduek aerobika, patinajea eta sasoiaren egoteko gimnasia egin ahal izango dituzte. Aerobika astelehen, eguazten eta eguenetan, 09:00etan edo 20:00etan, 17 euroren truke; patinajea zapatuetan, uztailaren lehen, 8an eta 22an, 11:00etatik 13:00etara, 11 euro ordainduta; sasoiaren egoteko gimnasia, berriaz, astelehen, eguazten eta eguenetan, 19:00etan, eta prezioa da 17 euro. Erretiratuendako taldea martitzen eta eguenetan 10:00etan elkartuko da, 11 euro ordainduta.

## UMEENDAKO AUKERA

Kirol jarduerak ugari egiteko aukera izango dute umeek uztailaren 17tik 28ra, egunero astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara; eta ordaindu beharrekoa da 21 euro.

Kirol bakarri nahi dutenek aerobika egin dezakete; uztailako bigarren hamabostaldian izango dira saioak, 17an hasita, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etan; eta 16 euro ordaindu behar dira.

Zein ikastaro egin nahi den erabaki ostean, norberaren datuekin orria beteta ikastaroari dagokion diru sarre-  
ra egin behar da banketxean, eta ondoren, ordainagiria udaletxera eraman. Izena emateko azken eguna ekainaren 30a izango da.



PAILAZOAK Korri eta Xalto pailazoek *Show berria prestatzen* lana eskainiko dute zapatuan.

GOIENKARIA

## JAIK &gt; GORPUZTIK

## Pailazoak, afaria eta prozesioa Ondarreko ekitaldi nagusiak

Asteburu honetan Gorpuzti jaiak izango dira Ondarren eta hurrengoan San Juanak Uzarragan eta San Pedroak Kalebarrenean

## IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Neguko jaien eta San Isidro azokaren ostean, auzoetako jaiak Ondarreko Korpusek hartu die lekukoa. Asteburuan, hainbat ekitaldi izango dira bertan.

Aiastui Txirrindulari Elkartearen eskutik, zapatuan 12:00etan ginkana izango da txikiendako; eta arratsaldean ere ez da euren dako ekintzarik faltako. Jolasak izango dira 16:30ean eta 17:30ean krosa. Ondoren, Korri eta Xalto pailazoek *Show berria prestatzen* lana eskainiko dute.

Auzo afaria 20:30ean izango da eta ondoren Ansozari eta Larrañaga trikitilariekin erro-  
meria egingo dute. Ondarrera joaten direnek, gainera, kafea hartu ahal izango dute.

## PROZESIOA

Domekan, txistularien eresiarekin esnatu ostean prozesioak hartuko du protagonismoa. 12:30ean parrokiatik irten eta Buztinzuri kalean barrena Ondarrera iritsi-

ko dira. Auzoko plaza belarrez jantzi eta aurten lehen jaunartzea egindako umeek lore eskaintza egiten dute. Dantzari txikiek ere euren saioa eskainiko dute eta bitartean salda banatuko da Ondarren. Jaiak amaitzeko zozketa egingo dute.

Jaien erronda jarraituz, datorren astean San Juan jaiak izango dira Uzarragan eta San Pedroak Kalebarrenean.

## Egitaraua

## 17, zapatua

12:00 Umeendako ginkana.  
16:30 Umeendako jolasak.  
17:30 Umeendako krosa.  
18:00 Antzerkia.  
Ondoren, merienda.  
20:30 Auzoko afaria.  
Afal ostean, Erromeria trikitilariekin.  
Inguratzaren direndako kafea egongo da.

## 18, domeka

10:00 Txistularien goiz eresia.  
12:30 Prozesioa. Parrokiatik Buztinzuri kalean barrena Ondarrera.  
13:00 Dantzari txikien saioa.  
13:00 Salda banatuko zaie Ondarrera hurbiltzen diren guztiei.  
13:30 Zozketa: dozena bat txuleta eta sei botila ardo zozketatuko dituzte.

## &gt; ORDUTEGIA

### Irailaren amaierara arte udaletxea goizez bakarrik irekita

Udaletxean, ekainean sartzeaz bat udako ordutegiarekin hasi ziren langileak, eta irailaren amaierara bitartean hala jarraituko dute; abuztuan ere lan egingo dute udaletxean. 08:00etatik 15:00etara bitartean egongo da udaletxea herritarrendako irekita. Liburutegian ere, uda dela eta ordutegi aldaketa egingo dute aurki. Ekainaren 22tik aurrera umeak berriaz eskolan hasi artean goizez baino ez da egongo zabalik, eta abuztuan itxi egingo dute liburutegia.

## &gt; SARIA

### Hiru odol emaile antzuolarrek saria jaso dute

Odol Emaileen Elkartek ekitaldia egin zuen eguaztenean Xabierko gazteluan, Nafarroan. Bertan odol emaile nagusiek omenaldia jaso zuten, tartean baita hiru antzuolarrek ere: Maria Isabel Arregik, Juan Lezetak eta Victoria Martinezek. Odol emaile nagusi izateko gizona 75 aldiz eman behar dute odola eta emakumezkoek 60 aldiz. Iaz sari hori jaso zuten Luis Mari Jauregi, Pilar Arangueren, Begoña Lete eta Lourdes Arregi antzuolarrek ere.

## &gt; PILOTA

### Mendizabal eta Azkarate Debarroko finalerdietan

Mendizabal eta Azkarate pilotariak Debarroko Pilota Txapelketako finalerdietara iritsi dira gazteen mailan. Bi partidua jokatu erabakiko da zeinek lortzen duen finalerako txartela. Lehen norgehiagoka Bergarako bikotearen aurka jokatu dute bihar, zapatua, 18:00etan, Osintxuko pilotalekuan; bueltako partidua, berriaz, datorren astean izango da etxean, Antzuolan.

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**LEKY-BERRI  
MERENDEROA**

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

ETXEBIZITZAK > HITZALDIA EGIN DU ARALARREK ITURBURUKO PLANEAMENDUARI BURUZ

# Iturburuko eta Uruburuko etxebizitzak eta Bizigune programa hizpide izan dira asteon

Uruburuko etxebizitza tasatuetarako izena emateko epea zabalik dago hilaren 28ra arte

Javier Madrazo Etxebizitza sailburua Elgetan izan da, Bizigune programaren akordioa sinatzen

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Etxebizitzaren gaia zeresan ugari ematen ari da azkenaldian herrian. Aralar alderdiak hitzaldia egin du asteon Iturburu gunean egiteko asmoa duten plangintza herritarrei azaltzeko.

Arau subsidiarioen arabera, 15.015 metro koadroko gunean, besteak beste, etxebizitzak egingo dituzte. Zabala Hermanos enpresaren eta antzinako zerrategia dauden tokian 90 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago. Horretaz gain, biribilgune ingurutik sarbide bat egitea aurreikusten da. Baita plaza bat, jolas-teko gune estalia eta ibilgailuen

lurpeko aparkalekua ere. Gainera, babes ofizialeko, tasatutako edo beste babes publiko motaren bat duten hogeit hamar etxebizitza egi-tea ere jasotzen dute arauak.

Hala ere, barne-erreformako plan berezia eskatuta egon arren, egin gabe dago eta baliteke aldatu izatea.

Aralarrek egindako hitzaldian herritarren iritzia jaso nahi zuen eta horretarako zera galde-tu zieten: etxebizitza gehiago behar diren; 90 etxebizitza eginez gero, zenbaterako beharko luketen babestutakoak; etxabeek merkataritzarako izan behar duten; beste plaza bat behar den; eta

aparkalekuak publikoak ala pribatuak izan behar duen. Ondoren, herritarren iritzia Udalari helaraziko dio Aralarrek.

URUBURURAKO ZERRENDA

Bestalde, Uruburuko etxebizitza tasatuetarako baldintza plegua kalean da. Guztira, 18 etxebizitza egingo dituzte eta horietako bat eskuratu nahi dutenek ekainaren 28ra bitartean aurkez ditzakete eskaerak udaletxean.

Azken udalbatzarrean Aralar larko hiru zinegotziek kontrako botoa eman zioten Uruburuko etxebizitza tasatuen zozketan parte hartzeko baldintza pleguari; hala ere, onartu egin zuten. Eze-ko botoa emateko arrazoiak bat izan zen EAJ-EAK ez diola Aralarri deitu baldintzak adosteko. Horretaz gain, zenbait aldatu ere proposatu zituzten: herrian bost urte errolatuta egotea; diru sarreraren beheko limitetara kentzea eta goiko limitetara jais-

tea; eta tasatutako etxebizitza erregimena betiko izatea.

BIZIGUNEKO HITZARMENA

Atzo, eguena, sinatu zuten udaletxean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok, Elgetako alkate Patxi Basaurik eta Suradesako gerente Luis Laskurainek Suradesak kudeatuko duten Bizigune programaren gaineko akordioa.

Sinadura ekitaldian etxebizitzaren gaineko zenbait datu ere eman zituzten. Estatistika Institutuaren datuen arabera, Elgetan gutxi gorabehera 100 etxebizitza huts daude. Bestalde, alokairuko etxebizitza eskatuz Etxebiden izena eman duten lagunak 48 dira. Alokairuko etxebizitza hartu dutenak, berriz, hiru.

Bestalde, jakinarazi zuten etxebizitzak berritzeko 86 eskariri erantzun dietela eta eraikinetara joateko arazoak konpontzeko 20.329 euro erabili direla.

bere ustez



Maria Elena Eztenaga

Nori egin nahi ote diote iruzur?

Ez dut gogoko politikari buruz hitz egitea, are gutxiago politikari buruz. Baina azkenaldian PPkoen esamesek edonori jartzen dizkiote kirioak dantzan. Su-etena egoterik espero ez zutenean (eta noski, nahi ez zutenean), edozein aitzakia zen onargarria hitz egiteko baita negoziatzeko ere, eraso terroristarik, eta noski heriotzarik, egon ez zedin.

Orain, baldintza "ia" egoikiak betetzen dira arazo larri honen amaiera begiztatzeko. Baina eurak ez daude

**"Botererako itzulera arriskuan ikusten dutenean barrenak irakiten daukate"**

ezertarako gertu. ETA ahotan ez badute, ez dakite zertaz hitz egin.

Botererako itzulera arriskuan ikusten dutenean, barrenak irakiten daukate, eta hitz egin beharrean biraoak baino ez dituzte esaten. Gainera, gero eta espainiar gutxiagok sinesten dituzte euren esanak.

Guztia ez dakit nola amaituko den. Gauzak bide onetik badoaz ere urteak beharko dira normalizaziora heltzeko.

PPkoei zera esan nahi nieke: ez baduzue ezer egiten akordio batera iristeko, eta hildakorik balego, zer esan behar diegu senideei? Norena izango da zorigaitz horren ardura? Seguru aski ez dute pentsatu, edo ez zaie axola.

Nahiago nuke oker banengo eta horrela izango ez balitz.



BIZIGUNE Etxebizitza hutsak errentan emateko programa sinatu zuten udaletxean Javier Madrazok eta Patxi Basaurik.

AMAGOIA LASAGABASTER

> ERRETIRATUAK

**Elkarteko bazkideek domekan ordaindu behar dute urteko kuota**

Erretiratuen elkarteak urteko kuota kobratuko du domekan, ekainaren 18an. Elkarteko bazkideek Ozkarbi elkartera joan beharko dute, eurak elkartzaren lekura, hain zuzen ere. Bertan izango dira batzordeko kideak dirua jasotzen. 11:00etatik 13:30era bitartean joan beharko dute erretiratuek eta ordaindu beharrekoa zortzi euro izango da.

> ANTZERKIA

**'Tetrarip, el último envase' antzezlanaz zapatuan kalean**

Trapu Zaharra antzerki konpainiak *Tetrarip, el último envase* lana eskainiko du zapatuan. Emaldiak 19:30ean hasiko da eta aktoreak kalean barrena ibiliko dira. Hiltzear dagoen gizonezko bati ordubeteko bizia eskainiko dio ehortzetxe batek herentziaren truke. Elgetarrak izango dira, hain zuzen ere, gizon horren bizitzako azken orduaren lekuko.

> INFORMATIKA

**Eguazten arratsaldean ikastaroa izango da KZgunean**

Ekainaren 21ean, eguaztenean, ikastaroa izango da KZgunean. 16:30etik 18:30era izango da saioa eta mintegiaren izenburua *Asteburu bat Euskal Herrian* da. Internet bidez asteburu baterako ekin-tzak antolatzen ikasiko dute ikastarora joaten direnek. Parte hartu nahi dutenek nahikoa dute egunean bertan liburutegiaren ondokoan dagoen gelara joanda.

> JAIK

**'Animaliak' gaia aukeratu dute jaietan mozorrotzeko**

Jaietako lehen egunean, eguenean, mozorro jaia egiten da. Udaletik jakinarazi digute aurten mozorrotzeko aukeratu duten gaia animaliena dela. Bestalde, gogorarazi dute barrikuko erretiratuen bazkaria Espaloian izango dela, eta txartelak ekainaren 23a baino lehen eskura daitezkeela zortzi euroren truke udaletxean edo Mariasun dendan.

**((112))**  
SOS DEIAK



ZIKINKERIA Argazkak erakusten du udal ordezkariak lokaletan izan zirenean aurkitu zuten zikinkeria.

ARAMAIOKO UDALA

GAZTE LEKUA &gt; ETORKIZUNA ZALANTZAN

## Ez dakite jaien ostean gazte lekua atzera zabalduko duten

lazko istripuaren ostean, Udalak erabaki zuen aurtengo jaietan gazte lekua itxi egingo zutela; kontua da, ez dakitela berriro zabalduko duten

UBANE MADERA &gt; ARAMAIO

Jaietako beharrak zirela medio, udal ordezkariak, alkatea barne, gazte lekura joan eta argazkian ikusten duzuen egoeran aurkitu zuten hura. "Oso egoera penagarriaren zegoen", hala esan digu Mertxe Mondragon alkatea.

Lokalaren egoera ikusita, garbitasun arazoak ez ezik, segurtasunak ere kezkatu ditu udal ordezkariak.

Hori horrela, gutun bat bidali diete lokala erabiltzen duten gazteen ordezkariak. Jakinarazi diete lokalaren egoera ikusita eta kontuan hartuta hainbat bider elkartu direla eurekin eta ez dagola modurik arazoa konpontzeko, Udalak gaia aztertu

egin behar duela erabakitzeko jaien ostean gazte lekua berriro zabaldu ala ez.

ABISATUTA ZEUDEN

Alkateak esan digunez, gazte lekua utzi zietenean, gazteek hartu zuten gazte lekua garbitzeko ardura. Eta gainera, behin baino gehiagotan abisatu diete kontu horren gainean: "Bestelako gaiak lantzeko elkartu izan gar gazteekin eta lokalaren gaia ere landu izan dugu". Zera ere gaineratu digu: "Pena da, guk ez duguetatik gogorik eurekin horrela ibiltzeko, baina ardura euren da".

Ez da gazte lokalak ixten dituzte lehen aldian. Iaz, arazo berarengatik itxi zituzten.

GAZTEEN ARRAZOIAK

Gazteen ordezkariak, berriz, esan digute Udaletik lokaletara abisatu barik sartzea ez dela ulergarria. Hori batetik.

Bestetik, garbitasunarekin lotuta, esan digute Udalekoak joan zirenean zikin samar egon arren, orokorrean garbi izaten dituztela lokalak. "Egia da jende asko izatearen ondorioz zaila dela garbitasuna ondo egitea, baina orokorrean garbi egoten dira lokalak". Kontatu digute, baita ere: "Txandaka antolatzen gara garbitzeko eta zaindu egiten dugu txandak bete daitezela. Guri ere gustatzen zaigu lokala garbi izatea".

Gazte lekua ixteko arriskuaurrean, esan digute halako lokalak beharrezkoak direla Aramaion, gazteen topagune izateko, elkargune bat izan dezaten. Hala, lokalaren etorkizunaren gaineko erabakia eurekin batera hartu beharko luketela uste dute.

&gt; ZERBITZUAK


### Datorren astelehenean barikura bitartean ez da komenigarria txorroko ura edatea

Udaletik jakinarazi digute datorren astean lanak egin behar dituztela Ibarako ur-biltegian. Konponketa batzuk egiteko daude eta garbiketa lanak ere egingo dituzte. Aste guztia beharko dute, gainera, guztia bukatzeko. Hori horrela, jakinarazi digute astelehenean barikura bitartean etxeko ura ez dela edangarria izango eta haren emaria aldakorra izan daitekeela.

&gt; KZGUNEAK

### Adobe Acrobat programaren gaineko argibideak emango dituzte ekainaren 26an

KZguneko Aitor Madrid tutoreak jakinarazi digu Adobe Acrobat Reader programari buruzko mintegia egingo duela ekainaren 26an. PDF formatuak irakurtzen uzten duen programa da Adobe Acrobat. Mintegia da 18:00etatik 20:00ak arte. Interesa duenak KZgunean izena ematea besterik ez du, doakoa da-eta. Edozein galdera edo zalantza argitzeko deitu telefono honetara: 943 79 94 44.



IRABAZLE laz irabazle izan ziren bi aramaioarrak.

U.M.

BERTSOLARITZA &gt; ESKOLARTEKO TXAPELKETA

## Mikel Serrato eta Xabier Igoa, Arabako ordezkari

Txikien mailan lehiatuko dira Altsasun, finalean, bigarren urtez

U.M. &gt; ARAMAIO

Hitzordua da ekainaren 24an, zapatua, Burunba pilotalekuan. Goizean eta arratsaldean egingo dute ekitaldia; 11:00etan jar-

dungo dute txikienean, eta ondorioz, Mikel Serratok eta Xabier Igoak. Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa-Beherea, Nafarroa eta Xiberuako bina ordezkari izango dituzte aurrez aurre. Haien artean, sei sailkatuko dira bigarren faserako. Eta seiostatik aukeratuko dituzte bi irabazleak. Eguerdian bertan jakinaraziko dituzte izenak eta Andoni Egañak ipiniko die txapela.

## 1 bat X ixe 2 bi

Aramaixoko berben **berbakinielie**  
4. ZENBAKIXE

**Asmatzaillien artien zozketatuko ditugu:**

Aramaixoko ezitze, sagardaue eta gaztaie! Zorte on!



<b>Hau don mahatsa!</b>	<b>1</b> Hau da ugaritasune! <b>X</b> Hau penagarrixe da! <b>2</b> Hau da miñe!
<b>Bringaute</b>	<b>1</b> Arrakalatute <b>X</b> Saldute <b>2</b> Bistitte
<b>Araixe</b>	<b>1</b> Akerra <b>X</b> Peskie <b>2</b> Ardi arra
<b>Afrontue</b>	<b>1</b> Haixie eta eurixe aurretik <b>X</b> Desafixue <b>2</b> Frontoiko hormie

Aukeratu erantzuk, moztu txartela eta ekarri Aramaioko Liburutegira, EKAINAREN 30ERAKO.

Izen-deiturak: ..... Telefonue: .....

<b>Asko lekuten</b>	<b>1</b> Asto bille <b>X</b> Leku askotan <b>2</b> Azkua aldien
<b>Afixie</b>	<b>1</b> Afiziñue <b>X</b> Kabixe <b>2</b> Fitxie
<b>Andobie</b>	<b>1</b> Emakume ikusgarrixe <b>X</b> Ondo nabillela <b>2</b> Okela filetie
<b>Azpixek egin</b>	<b>1</b> Azpiko partie ordenau <b>X</b> Bedarra ebagi <b>2</b> Peloteroherixetan ibili

### 3. berbakinielako irabazlie: Sara Arriolabengoa Zorionak!

Erantzun zuzenak:

Tenplau egon: X Lasai egon

Hau dok larriñe!: 1 Hankaz gora dauenien

Arrue: 2 Trokie, zulue

Baliñe?: X: Sasoiñ?

Iñun dienak esan : 2 Kristonak esan

Aldekoko ola: 1 Aldekoko txabolie

Txistue: 2 Pitiliñe

Hi haz erreminttie, hil: X Hi haz artistie, hi



INTERNET Gatzagako KZgunean ez daukate arazorik Interneten ibiltzeko, baina baserri batzuetara ez da iristen Muruko antenak bidalitako seinalea.

M.A.

INTERNET > WIMAX TEKNOLOGIAREN BIDEZ

# Seinalea zabaldu du Euskaltelek Internet baserri guztietan jasotzeko

Azpiegitura gastu guztiak beregain hartu ditu Jaurlaritzak

Wimax teknologiak antenak bidalitako seinalea erabiltzen du

Seinalea zabaldu egingo dute baserri guztietara heltzeko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Orain bost edo sei hilabete egin zuten herri batzarra Euskaltelek Gatzagan Internet eskaintzeko. Azpiegitura gastu guztiak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko zituela esan zieten, eta baietza eman zuten batzuek.

BANDA ZABALA ESKAINTZEN

2004an erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak banda zabala herri txikitara ere eraman behar zuela. Industria Saileko Itelazpi enpresa arduratu da kudeatzen, eta komertzializazio lanak zeinek egin erabakitzeke deialdia kalderatu zuen 2004ko urte bukaeran.

Euskaltelek egindako eskaintza onartzea erabaki zuen, eta 2005eko apiril inguruan hasi zen Euskaltel herriz herri banda zabala eskaintzen. Azpiegitura

gastu guztiak bere gain hartu ditu Jaurlaritzak, eta eskaera egiten duenak telefonoaren eta banda zabalaren hileko kuota bakarrik ordaindu behar dio Euskalteli.

ARAMAION ERE BAI

## Atzo, eguna, egin zuten herri batzarra Aramaion

Herri txiki guztietan dabil Euskaltel batzarrak egiten banda zabala eskaintzeko. Lehenengo fasean, 2005eko apiriletik hona, Euskal Autonomia Erkidegoko 102 udalerritan eskaini dute, eta asko izan dira baietza eman dutenak. Bigarren fasea hasi berri dute, hau da, falta diren udalerritan eta mendi aldeko auzoetan eskaini behar dute. Aramaio da bigarren

faseko herria eta atzo, eguna, egin zuten herri batzarra. Euskalteko arduradunak etorriko ziren wimax teknologiaren gaineko argibide guztiak emateko: azpiegitura ezaugarriak, prezioak eta sustapenak, eta udalerriko zein txokotara iritsiko den seinalea. Gainera, informazio guztia zeukan autobusa ekarri zuten herritarrek hurrera zitezten.

Lehenengo fasea bukatzen dabilta bigarrenera hasteko, eta dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko 102 udalerritarra helitzen da Internet. Gatzaga izan da herri horietako bat, eta abendu inguruan eskaini zieten herritarrei. 17 lagunek eman zuten baietza orduan.

ANTENAK BIDALITAKO SEINALEA

Herri txiki eta mendi aldeko auzoetara ez da kable bidez iristen Internet, horren ordez antena batek bidalitako seinalea erabiltzen dute. Gatzagaren kasuan, Aretxabaretako Muru mendian dagoen antenak bidaltzen du seinalea. Arazoa, baina, Muru ikusten ez duten baserriek daukate, antena ikusi barik ezin dute eta banda zabalik jaso. "Hamar baserri inguru izango gara arazoa daukagunak", dio Jon Sasiain zinegotziak. Hala, herrian bertan eta Goierri aldeko baserriek ez daukate inolako arazorik, baina Olaun aldekoek, hau da, Arlabango errepide alboan geratzen direnek eta Dorletako santutegi alboan daudenek ezin dute jaso.

KONPONBIDE BILA

"Beste aukera batzuk aztertzen jardun dut eta bigarren antena bat jartzea izango litzakeela konponbidea esan zidaten beste enpresa bateko kideek", dio Sasiainek. "Eta gastua, noski, norberaren kontu".

Arazoa halako gastuetan sartu barik konpondu ahal izango dute seguru asko, eta laster gainera. Izan ere, orain astebete Euskaltelen deia jaso zuen Sasiainek: "Seinalea zabaldu egin dutela esan zidaten, eta oraingoa Internet helduko zaigula ziurtatu. Aste pare batean etorriko omen dira teknikariak hori frogatzeko, eta orduan ikusi beharko da". Bien bitartean zain geratuko dira Olaun aldeko eta Dorletako bizi-lagunak.

IKASTAROA > SUKALDARITZA

## Pintxo eta kazolatxo ikastaroa hasiko dute astelehenean Donostiako sukaldari batekin

Astelehen eta eguaztenetan dira, 18:00etatik 20:30era

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Pintxo eta kazolatxo goxo-goxoak zela egin jakin gura duenak paregabeko aukera dauka aste-

lehenean hasi eta uztailaren 12a bitartean. Ikastaroa antolatuko dute Jaurlaritzako eta Europako dirulaguntzei esker, eta CEBANCDA enpresa arduratuko da eskolak emateaz. Hala, Donostiako sukaldari bat hurreratuko da Gatzagaraino azalpenak eman eta pintxo eta kazolatxoaren gaineko sekretu guztiak erakusteko.

Eskolak astelehenean hasiko dituzte, ekainak 19, eta astelehen eta eguaztenetan izango dira uztailaren 12an bukatu arte. Toki Eder elkarteko sukaldean jardungo dute lanean izena ematen dutenek, 18:00etatik 20:30era bitartean. Taldetxoak osatu gura luke ikastarorako; horretarako eman izena Labidea dendan.

UDALEKUAK > BEGIRALE BEHARREAN

## Begiraleak behar dituzte uztaileko bi asterako

Euskaldunak eta umeekin ibilitakoak gura dituzte

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarrekin begirale bi gura dituzte uztailean herriko umeekin jarduteko. Hilaren

10etik 21era bitartean egingo dituzte udalekuak Gatzagan, 16:00etatik 19:00etara.

Begiraleok euskaldunak izatea gura dute, eta ume eta gaztetxoekin lan egindakoak badira hobeto. Eskerak udallexera eraman behar dira edo helbide honetara bidali: [leintzgatzaga@udal.gipuzkoa.net](mailto:leintzgatzaga@udal.gipuzkoa.net).



EURIA Joan den urtean euria hasi zen proba baino lehenago, eta horrek erabat baldintzatu zuen lasterketa. Gizonezkoetan Soi Edwin izan zen azkarrena; emakumezkoetan, Simret Sultan.

AINTZANE AGIRRE

ATLETISMOA > OÑATIKO HERRI LASTERKETA

# Oñati atletismoaren hiriburu izango da, munduko errekorra jokoan dagoela

Eritreako lasterkari Zersenay Tadesse ahaleginduko da errekorra hausten

10.000 metroko proban Gebreselassie izan da, orain arte, azkarrena

Tadessek 27:02 minutuko marka hobetu beharko du

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Atletismo zaleak ahalegin handiaren testigu izango dira bihar Oñatin, 19:00etan. Zersenay Tadesse korrikalari eritrearrak bota du hordagoa: 10.000 metroko distantzian Gebreselassieren esku dagoen 27:02 minutuko marka hautsi gura du. Ez da txantxetako apustua, ondo daki erronka gogorra duela, baina horrelakoa botatzeko iaz munduko krosek txapeldunordea eta Atenasko Joko Olinpikoetan brontzea erdietsi zuena gorputzaldi ederrean egon behar da, seguru.

Oñatiko kaleak izango dira ahalegin horren testigu, eta lorpene erdiesten badu, atletarekin batera Oñati bera izango da errekorren jabe. Horretarako, las-

terketa antolatzen dabilen Jesus Arregik esan digu probako ibilbidea aldatu egin behar izan dutela. Azken batean, munduko errekor ofiziala izan dadin ibilbidea bera homologatuta egon behar da, eta federazioak egin du hori.

ATLETA GEHIAGO

Egin duen posturagatik protagonismoa hartu du Tadessek, baina berak bakarrik ez du Oñatin korrituko. Guztira 60 korrikalariendako lekua dago, eta tartean egongo dira Julio Rey edo

Peter Kamais moduko lasterkariak. Julio Reyk Espainiako maratoi errekorra ezarri berri du Hanburgon (2:06:52), eta, Juan Carlos de la Ossa-ren esku dagoen errepideko 10 kilometroko errekorra gainditzen ahaleginduko da Oñatin (27:55 minutu). Peter Kamais, berriz, Tadesse behar baino gehiago estutzen ahaleginduko da. Kenyako lasterkaria orain dela bi urte igo zen Oñatiko podiumeko lehenengo mailara, eta gainera, Bartzelonan egin berri du 10.000 metroko proban Europan inoiz egin den markarik onena (27:29 minutu).

Antolatzaileek esan digute emakumezkoak ere izango direla bihar Oñatin. Martitzenean inork ez zuen izena eman.

KONTUAN HARTZEKO

## Federazioak homologatutako ibilbidea

Oñatiko laugarren herri lasterketa izango da biharkoa, baina aurrekoekin alderatuta egongo da berritasunik. Aurreko urteetan korrikalariak Atzeko kale eta Kale Barrian bueltaka ibili izan dira. Aurten, baina, 10.000 metroko ondo neurtuta izateko, eta bihurguneak txikiagoak izateko ibilbidea aldatzea erabaki dute. Hala, Kale Zaharra, Lizaur eta Unibertsitate kaleetatik ere igaroko da lasterketa. Itzuli bakoitzean lasterkariak 1.318 metro egingo dituzte, eta zazpi itzuli egingo dituzte ibilbidean zehar. Korreos ondoan egongo da irteera, eta helmuga Foruen plazan.

Ez dugu gauza handirik egin hiru hariko minuegatik, baina bai zure autoaren finantzaketagatik

LACETTI 1.4 SE 16 V  
Aire girotua eta 5 urteko bermea  
SARRERARIK GABE

60€/hilean – LEHEN URTEAN  
140€/hilean – HURRENGO 107 KUOTAK  
GASOLINA PREVER PLANA BARNE. %6,03KO UTB



Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41  
Karobi Industriaidea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

www.chevrolet.es

Lacetti 1.4 SE 16 V modelo (ez da inudiko modelo). Salneurria: 11.974€ (Gasolina Prever Plana eta promozioa barne). Kuotak: 1etik 12ra 60€-koak eta 13tik 107ra 140€-koak. Guztira finantzatzeko kopurua: 15.999,35€. TIN: % 5,35. UTB: % 6,03. Irteke komisioa: % 2,5 (299,35€). Beste promozioetarako eskaintza ez da metatzen. 2006/06/30era arte balia garria Penintsulan eta Balear Uharteetan. Finantzaketa: Banco de Credito Sak, RBE 1514/06. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7,1-8,8. CO2 emisioak (g/km): 160-173. Hiru urteko bermea edo 100.000 km: bermeen legea aplikatzeko kalterik gabeko: 23/2003, gehi bi urte Chevroleten Servicio 5 kontratuaren arabera.





TXIRRINDULARITZA > QUEBRANTAHUESOS PROBA

# Heldu hezurrei, hemen dator-eta Quebrantahuesos

Ibarreko errepideak hutsik geratuko dira asteburuan, bihar egingo dute-eta Huescan zikloturista proba gogorra

Gainera, 6.000 lagun baino gehiago errepidean batera ibiltzeak badu bere arriskua. 08:00etan hasiko dute proba, eta lehenengo ordubetean akats handia da atzera begiratzea, kronometroari so egitea ere ez da komeni: gutxi behar da ondoko lagunarekin topo egin eta lurrera erortzeko.

Eta lehenengo ordubetean gaiturak, ziklistak apur bat sakabanatu direnean etorriko dira Somport (1.632 metro, 680 metroko desnibela), Marie Blanche (1.035 metro, 705 metroko desnibela) eta Portalet (1.791 metro, 1.250 metroko desnibela). Ez da txantxetako kontua. Ez ahaztu, baina, Hoz-eko igoera luzea ez bada ere min galanta egin dezakeela: bi kilometro eta erdi dira, baina %10eko maldarekin.

Esandakoa, ziklistek gozatu baino gehiago sufritu egingo badute ere, bakoitzak gaiturak beharreko erronka izango du buruan, hori da kirolaren mamia. Nahiz eta batzuek 10 ordu baino gehiago egingo dituzten bizikleta gainean; eta adi, euria iragarri dute.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Sei mila lagunek baino gehiagok hartuko dute esku bihar Sabiñanigon hasiko duten Quebrantahuesos zikloturista proban. Antolatzaile lanetan dabiltzan Edelweiss taldekoak dagoeneko ez dira harritzen proban izango diren euskaldun kopuruaz, tartean, ibarreko asko. Hala, askorendako biharko eguna izango da neguan pedalei eragiten hasi zirenetik garrantzitsuenak; entrenamendu guztia dago jokoan.

GOZATU BAINO GEHIAGO, SUFRITU

Askok eta askok ez dute ulertzen egun bakarrean bizikleta gainean 205 kilometro egiteko motiboa.



MILAKA Gura beste bizikleta izango dira bihar Sabiñanigon, euren jabeekin batera; joan den urtean, 6.414.

GOIENKARIA



JOSETXO ARANTZABAL

## Espainiako MTB txapelketa, Bilbon

Bilbao Bike & Roll jaialdiaren barruan egingo dute domekan Espainiako mendiko bizikleta txapelketa. Eta, bertan izango dira orain dela hilabete Arrasaten lehiatu ziren ibarreko hainbat ordezkari. MTB probarekin batera, trial erakustaldiak, 4 kross proba, *ciclo indoor* eta beste hainbat ekintza egingo dituzte. Ollargan parkean egingo dituzte ekitaldiok.

**IV. 820ÑATIKO 708**  
**0HERRI1:410.2002**  
**00LASTERKETA2:1**  
**2006**

**Ekainaren 17an**  
**ANTXINTXIKETAN KE.**  
**ARRATSALDEKO 7,00ETAN**

**K3**  
**MUNDO DEPORTIVO**  
**Goiena** (Komunikazio Zerbitzuak)  
**eitb** (euskal irratia telebista)  
**Noticias de Gipuzkoa**  
**sukria**  
**POLAR** (LISTEN TO YOUR BODY)  
**asics**  
**GARIAIA** (POLO DE INNOVACION BERRIKUNTZA GUNEA)  
**FAGOR**  
**ARRIKRUTZ** (GRATISKO 5 A L)  
**ONATIKO UDALA**  
**Real Federación Española de Atletismo**  
**ULMA**  
**Euskaltel**  
**GIPUZKOA KIROLOK**  
**GIPUZKOA KIROLOK**



MARATOIAN Marka bikaina egin zuen Kortabarriak (eskuman) maratoian: hiru ordu eta 18 minutu.

ARITZ UGARTE

TRIATLOIA &gt; FLORIANAPOLISKO IRON MAN PROBA

## Aritz Kortabarriak Brasilgo Iron Man proba egin du

Maiatzaren 28an jokaturako proban 9 ordu eta 52 minutuko marka egin zuen Kortabarria bergararrak; abuztuan, Suitzan hartuko du parte

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Aritz Kortabarria bergararrak (27 urte) Florianapolisko Iron Man proban hartu du parte. Sentsazio gazi-gozeekin itzuli da Brasildik: "Profesional mailako kontuan hartu gabe, elite mailan podiuma egitea zen asmoa, baina 10. tokian sailkatu nintzen, sailkapen orokorreko 60. tokian". Abioi konpainiarekin izandako arazoak tarteko, bizikleta eta proban parte hartzeko bestelako materiala ez zitzaizkion hara iritsi eta antolatzaileek utzitako materialarekin korritu behar izan zuen. "Zurea ez den materialarekin korritzea oztopo handia da. Hasiere baten igeriketa proba egin eta erretiratzea pentsa-

tu nuen, baina azkenean aurrera egin nuen. Behin haraino joanda... Oso proba polita da, ederto antolatutakoa eta giro bikaina zegoen: 50.000 ikusletik gora izango ziren proba jarraitzen".

Florianapolisko Iron Man proba maiatzaren 28an jokatu zen eta 1.300 lagun izan ziren lehian. Partaideek 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta maratoia egin behar izan zuten. Kortabarriak 9 ordu eta 52 minutuko marka egin zuen. "Korrikako proban ibili nintzen ondoen, nire zapatilak neuzkalako. Hiru ordu eta 18 minutuan egin nuen maratoia, eta gustura geratu nintzen egindako markarekin".

Urtarrila ezker ibili da Brasilgo proba gertatzeko gogor entrenatzen. Santi Perez du korrikarako eta bizikletarako entrenatzailea eta Xabier Infante *Hartz* igeriketako. Florianapolisen Aritz Ugarte laguna izan zuen *botillero*. "Nahikoa sufritu zuen hark ere maleta ez zela iristen ikusita...". Beste dozena bat euskaldun ere izan ziren Brasilen, tartean Joseba Iriondo Euskal Telebistako kazetaria. Probaren ondorengo astean hango giroaz gozatzeko aukera izan zuten.

ABUZTUAN, SUITZARA

Florianapoliskoa Kortabarriak egiten duen bosgarren Iron Man proba izan da. 2000. urtean hasi zen triatloietan lehiatzen. Hurrengo hitzordua abuztuan izango du, Suitzan, Alpeetan. Urrian, Eivissako triatloian eta Elbako (Italia) Iron Man proban parte hartzeko asmoa du.

&gt; MENDI ZEHARKALDIA

### Domekan bertan eman ahal izango da izena Aretxabaletako mendi irteeran esku hartzeko

Murruko Mendi Elkarteak domekan egingo du IV. Mendi Martxa. 07:30ean Coprecin hasiko dira oinez, eta Urkulura joanda Urbaltzetik gora egingo dute Ugastegira. Handik Degurixara, Alabitarra eta Kurtzeberrira. Gehiago ez dute igoko, Kurtzeberrietik Aretxabaletarako bidea hartuko dute-eta, Mendiolatik. Domekan bertan eman ahal izango da izena, apur bat lehenago joanda.

&gt; MENDIKO ORIENTAZIO IKASTAROA

### Emakumei zuzendutako mendiko orientazio ikastaroa antolatu du Emakume Txokoak

Ekainaren 29rako, 30erako eta uztailearen 1erako antolatu du Arrasateko Emakume Txokoak mendiko orientazio ikastaroa, eta Jon Ugartek jardungo du irakasle lanetan.

Datorren egubakoitzaz izango da, hilak 23, izena emateko azken eguna. Horretarako, Emakumeen Txokora deitu (943 79 41 39), arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Jakin, ikastaro horretarako plaza mugatuak jarri dituztela.



RENOBALES Bergara Hiria irabazita, Elgetan ere aurrean.

XABIER URTZELAI

PILOTA &gt; ELGETAKO ETA DEBARROKO TXAPELKETAK

## Gaur iluntzean jokatu dituzte finalerdiak

Egutegian batera datoz Elgetako Lau t'erdiko txapelketako finalerdiak eta Debarrokoak

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Gaur iluntzean jokatu dituzte bi txapelketa horietako finalerdiak; horrenbestez, egongo da zer aukeratu. Elgetako pilotalekuan, 20:00etan hasita nortuko dituzte indarrak Peñas eta Gorkak kadete mailan, eta Lasak eta Ollok 23 urtez azpikoetan. Horrekin batera, final-laurdenetako norgehiagoka ere

jokatu dute Renobalesek eta Irurretak.

**ARETXABALETAN ETA ARRASATEN** Debarroko txapelketan, senior mailako Arrasatek eta Bergarak elkarren kontra jokatu dute gaur Uarkapen (19:00).

Aretxabaletan, berriz, 20:00etan jokatu dute kadete mailako pilotariak.

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**  
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**  
Begi okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**  
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Femín Muguruz) | **DUB**  
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**  
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**  
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**  
Etorbizuna (Etsaiak) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**  
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

**LOGOAK (SMS 1) KODEA**

SATANAS	EH2	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURR3	LORA	BABAK
BASAJAUN	IKURR5	LAU2	ARRANAK

**OHARRAK**  
**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.  
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeak, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 94 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123-33. / \* Movistar: deitu 009-9.  
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN ➔ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **URBAN FESTA JAIALDIA**  
Skatea, musika eta grafitiak zapatuan Arrasaten > 45



> **MONDRAGON UNIBERTSITATEA**  
Atxagak eta Andu Lertxundik eskolak emango dituzte > 51

> **OLATZ LAZKANO**  
Biologia ikasi zuen Olatz Lazkano arrasatearrak. Itsas fauna-ekin gozaten du eta atzerriko itsasotetan ibiltzea atsegin du gehien > 50



DANBAKA))))))

# DANBAKA))))))

2006/05/19 13:28:40.142 GMT+2

## Danbaka.com-en musika taldeen blogak egiteko ikastaroak

Hemen duzue lehenengo ikastarora etorri zirenen argazkia, Luistxo irakaslearekin batera:



Honen inguruan



Musikaren gaineko albisteak topatuko dituzue blog honetan.

Entzun

MP3ak  
Bideoak

Estekak

Golena.net

Danbaka lehiaketa

Lehiaketaren I. edizioan parte hartu zuten taldeak

Iazko irabazlea: Sharon Stoner

Iazko finala

WEBGUNE BERRIA Musika taldeei tarte berezia eskaintzeko sortu dute *danbaka.com* webgunea.

## danbaka.com musika taldeen topalekua

Ibarreko musika taldeei tarte eskaini nahi dio 'danbaka.com'-ek

Uztailerako Danbaka musika lehiaketaren bigarren ekitaldia deituko dute


**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Debagoieneko musika taldeei tarte eskaintzeko helburuarekin Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak *www.danbaka.com* webgunea jarri du abian. Atzo egin zuten aurkezpena Bergarako gaztetxean. Han izan ziren, besteak beste, Iban Arantzabal Goienako telematikako ardura-duna, Usoa Agirre, Maider Arregi eta Iker Barandiaran kazetariak eta Debagoieneko zenbait musika taldetako ordezkariak.

Goienak orain dela bi urte deitu zuen Danbaka musika lehiaketa eta orduan jasotako erantzun bikaina ikusirik, lehiaketa bi urtetik behin antolatzea erabaki zuten antolatzaileek. Hain


zuzen ere, uztailerako lehiaketaren bigarren ekitaldia deituko dute. Behin partaideak zeintzuk izango diren erabaki ondoren,

lehiaketa urritik abendura bitartean ospatuko da Elgetako Espaloia aretoan eta finala, berriaz, 2007ko urtarrilean izango da. Par-

taideek abesti originalak landu beharko dituzte eta lehiaketan parte hartu ahal izateko beharrezko baldintza izango da taldeko partaide bat gutxienez Debagoienekoa izatea.



BLOGAK Hainbat musikarig bloga ireki dute *www.danbaka.com*-en.



### INFORMAZIOA, ESKURA

*Danbaka.com* webgune berrian musika lehiaketaren gaineko informazio osoa eskuragarri izango da: oinarriak, lehiaketaren jarraipena, lehenbiziko ekitaldiaren gaineko xehetasunak, taldeen gaineko albisteak edo musikan sortutako berriak.

Era berean, interesa duten musika taldeei blog partikularra izateko aukera emango die Goie-

(44. orrialdean jarraitzen du)

## 'Danbaka.com': musika taldeen topalekua

(43. orrialdetik dator)

nak. Doaneko zerbitzua izango da eta webgune horretan argazkiak, abestiak MP3 formatuan eta bideoak kargatu ahal izango dituzte, besteak beste. MP3ak biltegi batean kargatuta egongo dira eta *player* batekin blogean entzun edo blogetik jais-teko aukera izango da. Argazkiak, bestalde, *www.flickr.com* argazki biltegian kargatuko dituzte musikariek eta Interneten zabaltzeko aukera izango dute. Bideoak ere baditu *danbaka.com*-ek: Youtube-k ematen duen aukerakin blogean ikusi ahal izango dira.

Dagoeneko 20 bat taldek bloge izateko interesa azaldu dute. Hain zuzen ere horietako hainbat indarrean daude: Aby-Kem, Amonal, Enboskada, Jim TNT Flyshit, Lagash, Malenkonía, Radio Wings... Blog aukera ez da bailarako taldeetara mugatuko.

Txuma Murugarrenek adibidez bloga ireki du eta datozen asteotan disko bat grabatzeko prozesuaren berri emango du bertan.

Jakina, Goienak euskararen aldeko apustua egingo du oraingo ekimen honetan ere eta eduki gehienak euskaraz izango dira. Webgune erabilgarri zein berritzaile hau sortzeko CodeSyntax enpresaren laguntza izan du Goienak.

### KALITATEA ETA KANTITATEA

Iker Barandiaran izango da *danbaka.com*-eko edukien arduraduna. Bere hitzetan, "Danbakaren lehen ekitaldia oso arrakastatsua izan zen eta sorpresa atsegina izan zen gure ibarrean kalitatezko horrenbeste talde zirela ikustea. Talde askori han eta hemen jotzeko aukera eman die, lehiaketak oihartzun handia izan zuelako eta orain irrikaz gaude zer nolako sorpresak izango ditugun bigarren ekitaldian".

Argibide gehiago izateko, honako helbidera jo dezakezue: *danbaka@gmail.com*.



ARABAN Armentia Ikastolan ari diren hiru debagoiendar: Edurne Labaka, Isidro Elortza eta Natalia Moya.

A. ASTIGARRAGA

EUSKARA > 26. ARABA EUSKARAZ

# Araba Euskaraz jaialdia ospatuko da domekan Armentian

Lau debagoiendar ari dira gaur egun irakasle lanetan Armentia Ikastolan: Isidro Elortza, Edurne Labaka, Natalia Moya eta Bego Barrutia

E.M./A. ARANBURUZABALA > ARRASATE *Barruan daramagu* lelopean, Araba Euskaraz ospatuko da domekan Armentian, Gasteizen. Arabako ikastolen aldeko jaialdiaren 26. ekitaldia izango da aurtengoa eta laugarren aldiz antolatuko du Armentia Ikastolak. Azken aldiz 2002an antolatu zuten jai. Ikastola 1992an sortu zuten eta 50 irakasleren artean lau debagoiendar dira gaur egun: Isidro Elortza aramaioarra, Edurne Labaka bergararra, Natalia Moya eskoriatzarra eta Bego Barrutia arrasatearra. Ikastetxeak 600 ikasle inguru ditu.

Isidro Elortza Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakaslea da, eta urte askoan Errioxako Assa ikas-

tolan ibilitakoa da. Eguaztenean Arrasate Irratian jardun zuen Elortzak: "Euskararen egoera dezente hobetu da Araban azken urteotan. Esate baterako, Ikastolatik irtendakoan 17-18 urteko gazteek badute unibertsitate karrera euskaraz egiteko gaitasuna. Baina arazo handiena erabilerarena izaten jarraitzen du. Oraindik ere euskaraz egiteko guneak sortzea beharrezkoa da". Domekako jaira begira zera dio Elortzak: "Jendea Armentiarra etortzea eta ospakizunekin gozatea oso garrantzitsua da guretzat. Zalantzarik ez, ondo pasatzeko aukera egongo da eta guztioi etortzeko gonbidapena luzatzen dizuegu". Antolaketa

lanetan 400 lagun arituko dira eta batutako dirua Ikastola berritzera bideratuko dute. Asier Astigarraga Ikastolako zuzendariak adierazi duenez, eraikina zaharkituta geratu da.

### LAU KILOMETROKO IBILBIDEA

Armentia herrian eta basoan lau kilometro inguruko ibilbidea gertatu dute eta Astigarragaren arabera gerizpeak ez dira falta izango. Egitarauari dagokionez, *Betizu* ikuskizuna, herri kirolak, Tapia eta Leturia, umeendako jolasak, dantza emanaldiak, rokodromoa, kontzertua Pin Pan Pun, Kokein, Berri Txarrak eta The Solanos taldeekin eta beste hainbat ekitaldi iragarri dituzte.

Domekan Armentiarra joateko autobusa aterako da Aramaioetik. Izenematea 945 44 53 74 telefonoan egin daiteke.

[www.araba-euskaraz.org](http://www.araba-euskaraz.org).



Sharon Stonerrek irabazi zuen Danbakako lehen ekitaldia.

GOIENKARIA

## Sharon Stoner, Bilbo Hirian saritua

Danbakako lehenbiziko lehiaketa irabazi zuen Sharon Stoner taldeak Bilbo Hiria musika lehiaketan saritu berri dute. Hain zuzen ere, Euskal Herriko rock talde onenaren saria jaso dute oñatiarrek. Horri esker, abuztuaren 31tik irailaren 2ra Gasteizen egingo duten Azkena Rock jaialdian joko dute. Bihar, zapatua, Bartzelonan izango dira, Show Business taldearekin batera. Bestalde, Danbako lehiaketa irabaztearren grabatutako diskoa aurki kaleratuko dute. Hamaika kantu batu dituzte. Danbakan parte hartu duten taldeetatik beste bi finalistek diskoa argitaratu dute honez gero: Potemkin (*Potemkin*) eta Muted-ek (*Sarean*). Azken biek Oihuka diskoetxearekin grabatu zuten.

# EUSKAL TONBOLA

Euro baten truke  
milaka sarill!!!



THINARako bidaiak  
EROSKI/bidaiak



asteburuko PIRINIOetan  
8 laguntzet  
EROSKI/bidaiak



GPSak



etxerako DVDak



Arzak  
2 laguntzet



euskarari



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA

Txartelak salgai Gipuzkoa osoko tabernetan

JAIALDIA > URBAN FESTA 06 ARRASATEN

# Skatea, zuzeneko musika eta grafitiak, Urban Festa jaialdian

Arraska elkarteak antolatu du, eta herriko hainbat elkartek lagundu dute

Goizetik iluntzera arte Zaldibarren kontzertuak, skate txapelketa eta grafitiak egingo dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Bihar, zapatua, Arrasateko Arraska elkarteak, Nothing Without taldearekin eta AED eta Txatxilipurdiren laguntzarekin Urban Festa 06 egingo du.

Orain dela bi eta hiru urte hurrenez hurren, Arraska Arrasateko skate-zaleek ere halako jaiak egin zituzten. Bi edizio horietan jaiaren izena Patxi Matxin izan zen. Jaialdi horiek oso harrera ona izan zuten, baina haiek antolatzeak lan handia eman zien, eta urte batez, iaz, atse-den hartzea erabaki zuten.

SKATEA EZAGUTZERA EMAN

Arraska elkarteko lagunek jakinarazi digute jaialdi horren helburuak honako hauek direla: batetik, skatea ezagutzera eman eta horri bultzada ematea; eta bestetik, Udalarari gogoratzea oraindik herrian skate-parkik ez dagoela. "Arraska elkarteak sortu genuen eskaera hori behar den moduan aldarrikatzeko. Aspalditik gabilta herrian patinatzeko ganorazko baliabideak eskatzen. Mojategin jarriko dutela agindu digute, baina hori eginda ikusi artean, guk hori eskatzen jarraituko dugu", azaldu ziguten.

ELKARTEEN LAGUNTZA

Aurreko urteetan Patxi Matxin jaialdia bakarrik egin zuten



ZIRKUITU IKUSGARRIA Txapelketetako zirkuitua jartzeaz gain, patinatzaileak ere ez dira edonolakoak izango.

FERTXU

arren, aurtan Txatxilipurdi eta AED elkarten laguntza jaso dute. Azkenekoen agiriak egin dizkiete, eta Txatxilipurdira esker ume eta gaztetxo gehiago gerturatuko dira jaialdira.

EGUN OSOKO JAI ZALDIBARREN

Jaialdia 11:00etan hasiko da. Orduan zabalduko dute patinatzeo propio egokituko duten gunea. Gune hori Zaldibarren egongo da eta horren inguruan egingo dituzte eguneko ekitaldi guztiak.

Open Zone txapelketako zirkuitua eramango dute Arrasatera, lehen Zurriolan (Donostia) erabiltzen zutena. "Oso zirkuitu

osatu da, eta modulu asko ditu: funbox-ak, grindbox-ak, barandak...", azaldu ziguten antolatzaileek. Hortaz, ziur aurtan ere ikuskizun handia egingo dutela. Izan ere, Arrasateko patinatzaileez gain, Gasteiz, Donostia, Gernika eta beste leku batzuetatik ere etorriko dira zirkuitura.

GRAFITI TAILERRA

Gaztetxoendako grafiti tailerra egingo dute 12:00etatik 14:00etara bitartean. Zeregin horretan herriko grafiti egile ezagunak arituko dira. Gura dutenek esku hartu ahal izango dute.

Bazkal orduan atsedena hartuko dute eta 16:00etatik 20:00eta-

ra bitartean Skate Expresion Txapelketa egingo dute. Epaimahai bat egongo da eta bi patinatzaile onenei sari bana emango dizkiete: 500 euro dirutan eta 500 euro materialean.

Grafiti egile batzuek erakusketa egingo dute 16:00etan, eta 18:00etan zuzeneko musika izango da. Hain zuzen ere, Aretxabaletako Scam eta Gasteizko Fumazi taldeek kontzertua egingo dute. Hortaz, aldi berean skate txapelketa, grafiti erakustaldia eta kontzertuak egingo dituzte.

Horren ostean, 21:30ean Ezinean taldeak kontzertua egingo du Zaldibarren, eta horrekin bukaera emango diote jaialdiari.

MUSIKA

## Anarik diskoa aurkeztuko du Oñatin

I.B. > OÑATI

Azkoitiko Anari musikariak hirugarren diskoa kaleratu zuen iaz Metak diskoetxearekin. Zebra izena dauka lan horrek eta aurrekoak baino soinu elektrikoagoa dauka.

Aurreko diskoan, *Habiak*, Anarik abestiak idatzi eta horren ostean taldearekin entseatu eta diskoa grabatu zuen. Oraingoan, berriz, talde lana egin dute, eta horretarako hasieratik Inoren Ero Ni taldekoez ezinbesteko laguntza izan du.

Inoren Ero Ni taldea Bap! taldean aritutako Mikelek eta Drakek eta Donostiako Borjak osatzen dute. Bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan izango dira, 22:30ean.

GRAFITIA

## Euskal Herriko III. Grafiti Lehiaketa

I.B. > ARRASATE

Topaguneak Euskal Herriko III. Grafiti Lehiaketa antolatu du. Abuztuaren 31ra arte bidali ahal izango dira grafitien zirriborroak. Epaimahaiak hamar talde aukeratu dituzte eta talde horiek irailaren 16an lehiatuko dira Tolosan, herriko hamar horma margotuta. Horien artean 1.200 euroko hiru sari eta *Kalitatea* izenpean sari berezi bat banatuko dituzte.

15 urte baino gehiago izan beharko dute parte-hartzaileek. Gehienez lau lagunekoak izan beharko dute taldeek.

Zirriborroak helbide honetara bidali beharko dira: Topagunea. Arlozabal 8 bis. 48220 Abadiño.

Has zaitez Konfort *testagatik*™\*\*



Erakuts ditzakegun gorespen eta argazki erakargarriek ezer gutxirako balioko lukete, inoiz ez baitzenuke ezagutuko Stressless® besaulki edo sofa baten benetako erosotasuna. Arrazoi simple bategatik: probatu egin behar dituzulako! Stressless® baten eseri bezain pronto, beste besaulki eta sofekin konparatuta, eskaintzen dizun aparteko bermea sentitu eta ulertuko duzu. Zuk zeuk frogatu! Gertuen duzun Stressless® dendara hurrera zaitez eta Konfort testa™ egin ezazu.

Besaulkiak eta sofak [www.stressless.es-en](http://www.stressless.es-en)



THE INNOVATORS OF COMFORT™

\* Konfortaren berritzaileak  
\*\* Konfort testa

Noche y Dia  
Morfeoren besoetan

Atsedon Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ  
Tel./Faxa: 945 21 42 24

**INMOBILIARIA**  
**IBARGARAI 3 • BERGARA**  
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
 www.inmokrasti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**Bergara:**  
 • Duplexa. Masterreka. 180 m<sup>2</sup>.  
 • Duplexa. Ortubar. Oso ondo.  
 • Sukia eraikuntza. Prezio oso ona.  
 • Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Espoioia 156 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • K. Eleizalde 90 m<sup>2</sup>. Teiatiu azpia.  
 • Ibargarai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zabalotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • T. Aranzadi 140 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ibargarai 109 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Bidekurutzeta 96 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Fraskozuri 104 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
 • Ortubar 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ibargarai 80 m<sup>2</sup>. Prezio oso ona.  
 • Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>. Ondo.  
**Antzuola:**  
 • Elkaren ondoan eraikitako 8 baitet salgai. Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garaiea, txokoa eta terraza. Aukera ona.  
 • Sagasti 90m<sup>2</sup>. Prezio ona.

**ENTORNOS**  
**INMOBILIARIA URBANISTAS**  
 T: 943 698404

**BERGARA:**  
 • 109 m<sup>2</sup>, 3 logela.  
 • 65 m<sup>2</sup>, 3 logela, 217.675 euro  
 • Duplexa, 105 m<sup>2</sup>, 3 logela, garaiea  
 • 82 m<sup>2</sup>, 3 logela, berrituta, 210.995 €  
 • 104 m<sup>2</sup>, 4 logela, egongela haundia, 366.617 euro  
 • Martoko. Bi urte dela berrituta.  
 • S. Anton Abad. Bi urte dela berrituta.  
 • Ibargarai 80 m<sup>2</sup>. Bi balkoi.  
**ARETXABAETA**  
 • 85 m<sup>2</sup>, 3 logela, jantzita  
**ANTZUOLA**  
 • 8 baitet berri  
 • 51 m<sup>2</sup>, berrituta, 167.000 euro  
 • 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza  
 • 77 m<sup>2</sup>, berrituta, 217.674 euro  
**ANGIOZAR**  
 Baseria  
**BERGARA**  
 Baseria, 600 m<sup>2</sup>, lur saila 300 m<sup>2</sup>.  
 370.000 euro.

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** 73 metro koadro. Hiru gela, sukaldea, bi komun eta 18 metroko garaiea ditu. 660 70 04 48.

**Antzuola.** Baseria salgai. 630 60 87 32.

**Antzuola.** Duplexa salgai. Eraikuntza berria. Garaie handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria. 90 m<sup>2</sup>. Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, halla, despentsa eta bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzita. Eguzkitsua. 655 70 97 14.

**Aretxabaleta.** Etxea salgai. 100 m<sup>2</sup>, garaiearekin. 620 17 05 32.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txikia salgai. 19:00etatik aurrera deitu. 677 78 37 72.

**Arrasate.** 82 metro koadro. Erdialdean. Eguzkitsua. Kanpora ematen du. 637 83 18 47.

**Arrasate.** Doneztebe Portuko kalean etxebizitza salgai. 658 77 87 71.

**Arrasate.** Doneztebe Portuko kalean. 69 m<sup>2</sup>. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bi soto. Arratsalde deitu. 652 77 87 71.

**Arrasate.** Etxea salgai San Joxepen. Berrituta eta altzariekin hornitua. 60 m<sup>2</sup>. Ganbarearekin. 610 43 24 23.

**Arrasate.** Otarora 2. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, hiru logela, bi komun. Bizitzatza sartzeko gertu. 675 71 37 27.

**Bergara.** Eraikitzen ari diren etxebizitza salgai. Bi logela. 678 32 91 62.

**Bergara.** Koldo Eleizalde kalean. 609 39 27 58.

**Bergara.** Ola auzoan etxebizitza salgai. 78 metro koadro ditu. Hiru logela, egongela eta sukaldea. Guztiz berrituta eta erdi jantzita. 162.000 bat euro. 616 15 61 97.

**Ezkara.** Bi logeladun etxebizitza errentan. Egonela, sukaldea, bi komun eta garaiea. Estreinatzeko. 943 03 87 70.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logela eta egongela dituen etxebizitza salgai. 639 56 39 04.

**DEBA**  
**GARAIA**  
 INMOBILIARIA  
 Telefonor Aranzadi 2  
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37  
 Zarugalde 1 Arrasate  
 T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

**BERGARA:**  
 • Ibargarai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Bidekurutzeta. 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Aranerreka 75 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Mabiategi 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Madura 51 m<sup>2</sup>. Berrituta.  
 • Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zubiaurre 71 m<sup>2</sup>. Erdi berrituta.  
 • Artekale 74 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Anglozari bi solairuko etxea. Berrituko.  
 • Masterreka 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ibargarai 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Fraskozuri 102. Ondo.  
 • Arriuri 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Zubiaurre 62 m<sup>2</sup>. Ondo.

**ANTZUOLA:**  
 • Duplex berria erdialdean.  
 • Sagasti 71 m<sup>2</sup>. Ondo.

**Arrasate.** Ikasleentzako etxebizitza ematen da errentan. Uribe auzoan dago. Deitu 21:30ean. 943 71 46 27.

**Benidorm.** Etxebizitza errentan ematen da. Abuztuko lehengo hamabostaldia. 945 29 33 80.

**Calpe (Alacant).** Etxebizitza alokatzen dut udan. 2 logela, terraza, garbigailua. 4 pertsonarendako. 655 74 57 97.

**Cambrils.** Apartamentua errentan ematen dut. 610 76 47 29.

**Chiclana (Cadiz).** Sancti Petri kostaldean. Apartamentua errentan ematen da. Ekainean eta irailaren bigarren hamabostaldian. Hondartzatik gertu. Igerilekua. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Elizondo.** Etxebizitza errentan ematen da. Leku lasaia, herrian bertan. Garaiea. Telefonoa: 630 08 33 85.

**Hendaia.** Uztailen eta abuztuan. 60 metro koadro. Hondartzatik 10 metrora. Eguzkitsua eta lasaia. 500 euro asteko. Colette. (0033 aurretik). Telefonoa: 559 20 87 23.

**Noja.** Duplex polita hondartzan. Itsasora begira. Hamabostaldia edo hilabete osoak. 944 61 43 78 edo 696 90 94 43.

**Peñíscola.** (Castello). Apartamentua errentan. San Juanetan eta udan. Jantzia. Hondartzatik 50 metrora. 610 87 83 57.

**Peñíscola.** Etxebizitza errentan ematen da. Logela bat, igerilekua, frontoia. Prezio ona. 607 76 09 30.

**Torreveja.** Bi logela eta igerilekua ditu. Hondartzatik aurrean. 657 79 47 95.

**Vera** (Almeria). Apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta urbanizazio naturistan. Jantzia. Igerilekua. Telefonoa: 657 73 94 25.

**Villanua** (Pirinioak). Igerilekua. Garaiea. Uztailko bigarren hamabostaldia eta abuztuko lehena. Deitu gaez. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 645 49 91 05.

## 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Bolun etxea osatzeko lagun bat behar da. Andoni. 605 76 98 97.

**Bergara.** Neska batek logela errentan hartuko luke. 650 73 13 39.

## 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Arexabaleta.** Garaie txikia saldu edo errentan ematen dut. Andramari auzunean dago. 943 77 12 81.

**Arexabaleta.** Garaie txikia salden edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

**Bergara.** Garaie txikia salgai Ibargarai kalean. Telefonoa: 645 72 06 47.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**  
 GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ANTZUOLA

**Cot ile apaindegian ile apaintzailea eta estetizista bat behar dira.**

**659 69 38 36**

## ANGIOZAR

**Ortzi erretegia alokatzen da.**

**943 78 22 80  
665 72 24 46**

## BERGARA

**Depor tabernan zerbitzaria behar da.**

**629 26 88 51**

## BERGARA

**Duplex berria eta garaie txikia salgai.**

**699 49 14 14**

## ARRASATE

**Ile apaindegian lan egiteko neska bat behar da.**

**676 22 33 18**

## BERGARA

**Batzokiko jatetxea errentan ematen da. Deitu goizez.**

**943 76 47 00**

## 202. EROSI

**Arrasate.** Garaie txikia erosi nuke Erguinen. Jesus Mari. 676 32 23 88.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Uarkapen bulego profesional bat errentan. 658 72 09 87.

**Santa Pola** (Alacant). Garaie plaza bat alokatzen da Gran Playa hondartzatik eta klub nautiko-rik 150 metrora, uztailen. Auto batentzako lekua du eta sarre-raz errazekoa da. Telefonoa: 605 02 05 22.

## 3/ LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 60 m<sup>2</sup>-ko lokal komertziala erdialdean, Irjala kalean. Zeharo egokitua. 943 79 90 43.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 616 26 18 84.

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume eskalduna gertu lanera-

## ANTZUOLA

**Arin Jatetxean zerbitzaria behar da.**

**943 78 62 45**

na gertu adinekoak edo umeak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume eskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 943 08 12 80.

**Arrasate.** Haurrak edota nagusiak zainduko nituzke. 669 58 23 24.

**Arrasate.** Haurrak edota nagusiak zainduko nituzke. Taberna edota jatetxe batean ere lan egiteko prest. Lana goizez egin nahiko nuke. Telefonoa: 629 91 71 42.

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Telefonoa: 943 08 29 55.

**Bergara.** Edo Arrasate. Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 645 49 91 05.

**Bergara.** Edo Arrasate. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak edo etxeko lanak egiteko edo tabernan jarduteko. Ordura edo etxe barruan bizitzeko. Telefonoa: 690 84 72 92.

**Bergara.** Mutila gertu lanera-

## ARRASATE

**Taberna batean zerbitzaria behar da.**

**667 53 08 16**

## ARAMAIO

**Zerbitzaria behar da jatetxe batean asteburuetan lan egiteko.**

**690 85 52 25**

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Alzheimer** duten gaixoei arreta espezializatua emateko ikastaroa antolatzen gabilta. Ikastaroa Elgoibarren izango da. (Maria). Telefonoa: 946 20 04 49.

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Telefonoa: 943 79 03 83.

**Debagoiena.** Ingeleseko eskolak ematen dira, maila guztiak,

**Karabana** salgai. Moncayo 480. 6-7 lagunendako. 665 72 62 83.

**Peugeot 205.** Diesela. 7 urte. 92.000 km. 2.300 euro. 658 70 58 55.

**Renault Laguna** autoa salgai. 1995eko. Aire-girogailua, ordengailua, bi aire-zaku eta bizikleta-eramatekoa ditu. 2.300 euro. 630 60 47 75.

**Seat Ibiza 1.4** autoa salgai. 100 ZP. 29.000 km. CDa eta aire-girogailua. 17:00etatik aurrera deitu. 656 74 53 90.

**Seat Toledo 1.9.** Turbodiesela. IAT pasatu berria. 2.800 euro. 639 96 29 51.

**Suzuki Samurai** luzea salgai. Bola eta goiko parrilla dauzka. Gurpil berriak, mistoak. 4.000 euro. 1997koa. 685 75 70 71.

**Suzuki Vitara** salgai. 1,6, karabanak-eta lotzeko gailuarekin. 699 85 49 58.

**BMW K75** motorra salgai. Gurpil berriak. Bateria berria. IAT 2008ra artekoa. Ondo zaindua. 64.000 km. 685 73 61 25.

**Fiat Ducato** autokarabana salgai. 35.000 kilometro ditu. 19.500 euro. 651 70 79 96.

**Ford Focus RS** salgai. Egoera oso onean. 22.000 euro. Telefonoa: 656 71 21 23.

**Ford Scord** familiarra. 16 v. 128.000 km. 2.200 euro. 649 69 33 02.

**Ford Escort Atlanta** Ghia autoa salgai. 1.8 turbodiesela. 55-BC. 667 23 37 54.

**Golf GTI** autoa salgai. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

**Harley-Davidson** Sportsters Custom 53c modelo. Estrak. More kolorekoa. 677 83 47 29.

**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)  
943 33 18 37 (HERNANI)**

**Arrain** arruntentzat eta tropikalentzat baliagarria. Ez da handiegia. 653 73 08 04.

**Bergara.** Ur bizietan ibiltzeko piragua salgai. Telefonoa: 649 01 12 28.

**Erremolkea** salgai. Aluminiozkoa. Txakurrak eramatekoa. 200 euro. 678 43 31 07.

**Ezkontza** soinekoa. Berria. 630 49 21 64.

**Furgonetarako toldoa** salgai. Fiamma F-35. 120 euro. 943 78 62 25.

**Hagunak (Ilantak)** salgai. 16 habete (pulgada). Ford, Citroen eta Peugeotendako. Pneumatikoak barne. 2.000 kilometro baino gutxiago dituzte. 658 95 18 64.

**Karabana.** Zaharra da, baina oso ondo zainduta dago. Aterpe berria du. 656 78 23 19.

**Nikon** kamerak salgai: F90 eta FM2. 629 37 35 35.

**Ordenagailua.** Inprimagailua eta eskanerra ere saltzen ditut. 660 98 37 05.

**803. EMAN**

**Belarra** emateko daukagu. Telefonoa: 943 76 33 78 edo 680 55 17 65.

**805. TRUKATU**

**Debagoiena.** Zazpi urteko pinudia truke egin nahi nuke base-ri lur sail batekin. Telefonoa: 678 72 75 72.

**Arrain-ontzia.** Estreinatuta barik.

## BERGARAKO UDALA



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskala aldatzea:

1. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituen.

Hori guztia, Udalbatza Osoak 2006ko maiatzaren 22ko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sortuko ditu ondorioak eta jarriko da indarrean.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorri, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jenduraren Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaztertuta eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arazuko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2006ko ekainak 12  
Alkatea

Txatxilipurdi Elkarteak  
Gazte Saileko arduraduna behar du:

**Lanaren ezaugarriak:**

- Gazte Zerbitzuen ardura
- Lantaldeen koordinazioa

**Baldintzak:**

- 8 orduko lan kontratua irailetik hasita

**Eskatzen da:**

- Gizarte Zientzietan lizentziaduna
- Gazte arloan jantzia
- Euskalgintzan edo elkartegintzan esperientzia
- Gidabaimena eta autoa

Interesatuok ekarri curriculuma Txatxilipurdira ekainaren 30a baino lehen.

Txatxilipurdi. Pablo Uranga 6, behea. 943 79 54 45.  
idazkaritza@txatxilipurdi.com



**Larraitz Kortabarria** eta **Asier Aranburuzabala** arrasatearrak, bihar, zapatua, Untzilako San Pedro elizan ezkonduko dira. Eztei bidaian New York eta Mexiko aldera joango dira. Zorionak eta ondo pasa, bikote! Etxekoen partetik.



**Joxe Gorrotxategi** oñatiarra eta **Esperantza Mendinueta** arbizuarra Oñatin ezkondu ziren duela 50 urte. Ekainaren 11n, domekan, ospatu zituzten urrezko ezteiak Arantzazun. Ondoren, bazkaria egingo dute Goiko Benta jatetxean. Zorionak, bikote! Etxekoen partetik.




**Igor Gartzia** bergarra eta **Ainara Bengoetxea** hernaniarra joan den zapatuan ezkondu ziren Hernaniko Juan Bataiatzailearen elizan. Eztei bidaian Costa Ricara joan dira. Zorionak, bikote, koadrilakoen partetik!

ESKER ONA

## Jose Antonio Arana Urrejola

Arrasaten hil zen 2006ko ekainaren 4an, 75 urte zituela

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko ekainaren 16an.



Bergarako **Susana Rodriguez** eta Elgoibarko **Mikel Gonzalez** ekainaren 17an ezkonduko dira Bergarako Udaletxean. Bazkaria Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egingo dute. Zorionak, bikote, familiakoen partetik.



**Bittor Lamariano** eta **Edurne Elortza** uberarrak ezkondu zirela 25 urte bete dira. Ospatzeko Bergarako Azpeitxi jatetxean bazkalduko dute, bihar, hilak 17 etxekoekin. Animo, bikote, eta zorionak etxeko guztien eta, bereziki, Aitorren partetik.

ESKER ONA

## Jose Ramon Lamarain Zornoza

Arrasaten hil zen 2006ko ekainaren 12an, 45 urte zituela

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko ekainaren 16an.

ESKER ONA

## Pakita Magunazelaia Amenabar

Pablo Garateren alarguna

Arrasaten hil zen 2006ko ekainaren 11n, 76 urte zituela

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko ekainaren 16an.

ESKER ONA

## Maria Afrika Juaristi Garitano Juan Idigoras Irala



Urteurreneko elizkizunetara etorritakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko ekainaren 16an.

URTEURRENA

## Esteban Garitano Eguren

Bigarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 18an, 11:00etan, Bergarako Labegarrietako elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Florenzia Pagaldai Elkoroberezibar

Rafael Unamunoren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 18an, 12:00etan, Arrasateko Gesalibar auzoko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Iker Uribetxebarria Azurmendi

Lehen urteurreneko meza egubakoitzean, ekainaren 23an, Arrasateko San Frantzisko elizan, 19:00etan, Eta domekan, ekainaren 25ean, Artazan (Nafarroa).



Aita-ama Julian eta Ignazia, andregaiia Irazu, arreba Leire eta Iñaki Yarzaren partetik aldeztatik eskerrak elizkizunetara joango zaretenoi.

URTEURRENA

## Ramona Aranguren Iribekanos

Jesus Agirrerren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 18an, 10:00etan, Antzuolako Uzarragako elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Luis Marzan Otxoa

*Joan zinen baina bazaude!  
Gure bihotzoko taupadetan zarella gorde!*



Zure sendia  
Bergaran, 2006ko ekainaren 16an.

URTEURRENA

## Julia Pardina Alzelai

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

**bila-bila 7**



**hitz gezidunak**

	Zeinu zodia-kala	Zekenak, ziz-trinak	Aukera
	Temak, setak	Santuren apokopea	Lehen bi bokalak
	Borrokarik eza		
	Laugarren hil		
Zaborra	IRUDIKO MENDIA		Sufrea
Lanpara	Neu, nihaur		Eratu
		Atomo kargatu	
		Sarrera	
Pepe .... kazetaria		Emakume zahar	
Latza		Erabat bete	
			5. eta 3. bokalak
Gaizki esaka aritu			
Zuberoako hiriburua			
		Akuri	



**umore giroan**

Kike Amonarriz

**FAR-MAFIAN**

Zezenaren adarrak gerrian sentitzen dituen entzierroetako korrikalaria baino larriago eta presatiago sartu da botikara gazte zarpail, txima luze eta zikin bat.

Patrikatik nola edo hala tolestutako errezeta atera eta farmazialariari erakutsi dio. Honek, medikamentua bilatu eta aurkitutakoan eman egin dio:

- Bost mila pezeta.

Gazteak medikamentua hartu eta billetea mostradorearen gainean utzita atera da kalera.

Farmazialaria orduan jabetu da:


- Nekaben! Milakoa utzita alde egin du gazte alu horrek. Tira, zer egingo diogu, bada! Oraingo honetan, 400 pezeta besterik ez ditut irabazik.

**sudokua**

			5	6			1	3
	2			8	4			
6			3		1			
1	3							2
		6		4		7		
4							5	6
			7		8			4
			2	1			9	
2	1			9	3			

**hieroglifoa**

Larramendiren sorteria




**hizki salda**

Alemaniko mundiala jokatzeko bost selekzio.

P	R	Z	E	N	U	T	A	O
M	A	I	D	I	B	F	G	H
L	I	G	E	R	A	J	P	U
M	E	K	U	A	D	O	R	R
A	D	O	N	N	A	D	O	K
T	S	A	D	H	K	O	X	I
L	H	L	I	Z	A	G	R	A
G	G	H	S	A	M	O	D	K
H	E	O	B	S	O	T	B	M

**soluzioak**



I	U	K	E	L	U	V	M
U	T	A	E	S	I	V	M
A	Z	A	R	A	R	A	G
O	S	A	T	A	I	R	E
I	O	I	O	V	A	N	L
S	O	N	A	R	A	Z	
A	E	B	A	K	E		
K	A	S	I	H			
O	Z	L					

**bono fotoa**



**Eskoriatzako Eraña auzotik egindako argazki honetan mendi tontor bat ageri da, gailurrean ermita txiki bat daukana. Zein da mendi horren izena?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

**Super BM** IFA

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**Albo atun argia**  
Hiruko packa X 100 gr

**2,55 €** 424 pta.  
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**  
Maria Isabel Pagaldairerendako izan da erosketa-txartela.  
Galderaren erantzun zuzena: Domingo Martinez de Irala.

8	7	6	3	9	4	5	1	2
5	9	3	6	2	1	6	4	7
4	2	4	8	1	5	7	3	6
6	5	8	9	3	1	2	7	4
1	3	1	7	2	4	8	6	5
2	4	2	5	9	6	7	8	1
9	8	1	4	2	3	7	5	6
7	6	7	4	5	8	1	2	3
3	1	2	1	5	6	7	4	8

**Jeroglifkoa:** Andoain.  
An do+a in

H	E	O	B	S	O	T	B	M
G	H	S	A	M	O	D	K	
L	H	L	I	Z	A	G	R	A
T	S	A	D	H	K	O	X	I
A	D	O	N	A	D	O	R	R
M	E	K	U	A	D	O	R	R
L	I	G	E	R	A	J	P	U
M	A	I	D	I	B	F	G	H
P	R	Z	E	N	U	T	A	O



# Bergara hizpide

## DEBARRI

Victoriano Gallastegi Bergarako  
alkatearekin berriketan

Eguaztenean, ekainaren 21ean, 21:45ean  
Zure galderak egiteko:  
[www.goiena.net/eztabaidak](http://www.goiena.net/eztabaidak)

SAIO BEREZIA:  
BABESLEA, ARKAUZ ALTZARIAK



**Ikustekoa!**



# eder tu



masterreka 9-11 Tel.: 943 76 58 79

barrenkale 23 Tel. /faxa: 943 76 29 65

BERGARA

**% 25** eko deskontua koltxoietan

Olatz Lazkano &gt; Biologoa

# "Atzerrian egon izan naizenetan ez dut lur gaineko turismorik egin gura izan"

Olatz Lazkano arrasatearrak oso gustuko ditu animaliak, txikitatik; hain da hori horrela, derrigorrez horiekin lotutako zerbait ikasi gura zuen. Bada, Biologia ikasi zuen, baina ordu-rako konturatu zen itsas faunak liluratu egiten zuela. Urpean igeri egiten ikasi zuen eta bere zale-tasun handienetako bat da atzerriko itsasoetan ibiltzea, bai urpean eta baita ontzian ere.

IKER BARANDIARAN &gt; ARRASATE

Olatz Lazkano saiatu da itsas faunaren gaineko lanbide bat aurkitzen. Anbar elkartarekin hainbat proiektu egin ditu eta zetazeoak ikusteko bisita gidatuak egin ditu, baina dagoeneko etsi du, eta zale-tasunean utziko du helburu hori.

**Zer izan gura zenuen nagusitan?**

Hasieran albatari izan gura nuen, baina gero konturatu nintzen gogorra izango zela txakur zaharrak sendatzea eta ebakuntzak egitea. Horren ostean, Itsas Zientziak edo Biologia egitea pentsatu nuen. Betiere, animaliekin lotutako ikasketak. Ez dakit nondik etorri zaidan animaliekiko zaletasuna. Baserririk izan ez arren animaliak gustuko ditut, eta anaia ere ehizan ibiltzen da...

**Ondo moldatzen zarete, bata ehiztaria eta beste biologoa?**

Uste baino hobeto. Mota askotako ehiztariak daude, baina anaia natura errespetatzen saiatzen da. Hala ere, egia da ehiza garaian izozkailua zabaltzeak batzuetan atzera egiten zidala.

**Begetarianoa zara?**

Ez dut lortu! Oso gogorra da. Asko baldintzatzen zaitu ez haragirik ez arrainik jateak. Horieta gutxi jaten dut, baina etxetik kanpo nabiltzean lekuan dagoena jaten dut.

**Betidanik gustatu zaizu igeri egitea?**

Bai, anaia eta biok Musakolako kiroldegitik gertu bizi izan gara eta igerilekuan sartuta egotea ginen beti.

**Noiz erabaki zenuen Biologia ikastea?**

Oso argi neukan aspalditik. Arrazoi horregatik zientzietako batxilergoa egin nuen. Horren ostean, Leioara joan nintzen.

**Gustura ibili zinen Biologia ikasten?**

Zelanbaiteko desengainua hartu nuen. Nik arrainen eta zetazeoen gainean ikasi gura nuen, baina ez zen hala izan.

**Horren aurretik, urpean igeri egiten ikasi zenuen?**

Bai, uda baten Menorcan ur azpian betaurrekoak jantzi nituen eta txundituta gelditu nintzen. Horren ostean, gurasoekin Gironara joan nintzen aldi baten, urpean ibiltzeko ikastaroa egin nuen eta sasoi baten gelditu barik ibi-



I.B.

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Biologia. **Zaletasunak:** Urpean igeri egitea, irakurtzea eta animaliak ikustea. **Gizateriaren aurrerapen handiena?** Internet. Horrek dakarren aurrerapena izugarria da. **Zelan ikusten duzu zure burua 30 urte barru?**

Seme-alaba batekin gutxienez, lanean eta bidaiak egiten. Horrez gain, gurako nuke ordurako ontzi baten jabe izan. **Biologo izango ez bazina, zer izango zinateke?** Albatari edo aberekin lotutako beste zerbait. Zaila egiten zait beste zerbait irudikatzea.

li nintzen zaletasun horrekin. Gogoan daukat Meda uharteko faunak liluratuta utzi ninduela.

Gerora, mutil-laguna ere zale-tu zen eta Leioako ikasketak bukatu ostean, ez ginen gelditu.

**Eta oportetan ere urpean ibiltzera joaten zarete?**

Orain ez horrenbeste, baina sasoi baten bai. Horretara joaten ginen espresuki. Itsaso Gorrian birritan izan gara. Kairora heldu eta handik jarraian ontzi batera joan ginen zazpi egunez ur azpian ibiltzera. Birritan egin dugu hori, eta arratsalde baten bakarrik egin genuen lur gaineko turismoa. Ez genuen besterik gura.

**Hain erakargarria da ur azpian ibiltzea?**

Bai. Itsaso Gorrian, esaterako, fauna handia dago. Horrez gain, urperatutako ontzi ugari ere ikusi ditugu. 40 metroko sakoneran ibili gara, eta marrazoak, mantak, izurdeak eta beste ikusi ditugu.

**Inoiz beldurrik pasatu duzu?**

Bai. Itsaso Gorria egin genuen bigarren bidaietan, arrezifeetatik urrundu ginen, eta korronte batek harrapatu eta sakonera handira eramantzen. Ahal izan genuen moduan irten ginen handik, eta egia esanda beldur handia pasa genuen.

**Ikasketetara bueltatuta, Biologia bukatu ostean, zer egin zenuen?**

Urtebetez Garagartzan ibili nintzen Fagorrendako labeak egiten. Orduan erabaki nuen Biologiarekin eta itsas faunarekin lotutako lanbide bat aurkitzen saiatu behar nuela.

**Zaila da, ezta?**

Bai, oso zaila. Ia 4 urte daramat ahalegin horretan, baina dagoeneko etsi dut. Nik aurkitu ditudan lan eta proiektuekin ezin da bizi, ez du diru nahikorik ematen. Horrez gain, zaletasuna lanbide bilakatzen denean, ez zaitu hainbeste motibatzen. Hortaz, orain erabaki dut lan egonkor bat aurkitzea, eta Biologia eta beste-lakoak zaletasun bihurtzea.

**Zer lan egin dituzu?**

Almenen irakasle ordezkape-nak egin ditut. Horrez gain, Anbar elkartetako hainbat proiektu egin ditut: itsas faunaren gaineko erakusketak, *Pride of Bilbao* ferryan zetazeoak ikusteko bisita gidatuak, gai horren gaineko erakusketak, eta beste lan batzuk.



EZAGUNAK Izen eta ospe handikoak diren profesionalak jardungo dute HUHEZIn. Argazkian, Bernardo Atxaga.

GOIENKARIA

UNIBERTSITATEA > BERRIKUNTZAK HUHEZI-N IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN

# Atxagak, Lertxundik eta Olasagastik eskolak emango dituzte HUHEZIn

HUHEZiko Ikus-Entzunezkoen Komunikazioa indartu egingo dute datorren ikasturterako. Atxagak, Andu Lertxundik eta Eneko Olasagastik eskolak emango dituzte

ENEKO AZKARATE > ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Eskoriatzan dagoena, indartzen ari da Ikus-entzunezko Komunikazioa.

Datorren ikasturtean, lau profesional ekarriko ditu fakultatera, goi mailakoak: Bernardo Atxaga idazleak zenbait irakurraldi egingo ditu, iruzkinez lagunduak.

Anjel Lertxundik, bestalde, Fikzio Gidoigintza ikasgaia emango du. Anjel Lertxundik bi film luze eginak ditu (*Hamaseigarrenean aidanez* eta *Kareletik*), eta lanean dihardu ETBko hainbat tele-sailetan (*Goenkale...*).

Eneko Olasagastik, bestalde, Ikus-entzunezko Ekoizpena eta Errealizazioa irakatsiko du. Enekok ere hainbat film zuzendu ditu (besteak beste *Sí, quiero* eta *Maité*) eta baita telebistako tele-sailak ere (*Bi eta bat*, *Jaun eta jabe* eta *Martin*).

Jone Larrañagak, azkenik, Irratigintza emango du. Jone *Euskaldunon Egunkaria*-n ibilia da, Euskadi Irratian eta ETBn, eta Rikardo Arregi Kazetaritza saria irabazia du.

**PRAKTIKAK HEDABIDEETAN**

Bestalde, HUHEZIk lan hitzarmenak sinatu ditu EITB taldearekin,

eta beste enpresa hauekin: Goiena Komunikazio Zerbitzuak (besteak beste GOIENKARIA argitaratzen duena), EKT (*Berrria* egunkaria eta *Hitza*-k argitaratzen ditu), Pausoka ekoizpen-etxea, eta Proyeccion enpresarekin. Horietaz gain, beste hitzarmen batzuk sinatu ditu beste hamabost enpresarekin, gehienak komunikazio arlokoak.

Hitzarmen horiei esker, Ikus-entzunezko ikasleek praktikak egingo dituzte enpresa horietan eta berauek bisitatuko dituzte. Enpresa horietako profesionalak, bestalde, HUHEZira etorriko dira beren esperientziak konpartitzera bertako ikasleekin.

HUHEZIk eskaintza zabala dauka hezkuntzaren eta giza zientzien alorrean. Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura da karrera berriena eta datorren ikasturterako indartu dutena.

## teknologia berriak

> POLTSIKOKO TELEFONOAK

### Eskuak erabili barik telefonoz berba egin eta musika entzuteko Motorola betaurrekoak

Poltsikoko telefonoak eta haiendako osagarriak egiten dituen Motorola etxeak atera berri ditu betaurreko bereziak, Oakley optika enpresarekin batera. Betaurrekoak darama beso bati itsatsita telefonoarendako haririk gabeko aurikular eta mikrofonoa, Bluetooth eta guzti, telefonoz berba egiteko, informazioa jasotzeko edo musika entzuteko, eskuak erabili barik.

Diseinu modernoak betaurrekoak eta aurikular estereofonikoak batean.



Razrwire izeneko betaurreko praktikoak, telefonoz berba egin eta musika entzuteko.

> MP3 APARAILUAK

### Apod: futboleko baloi formadun MP3 aparailua, mundialean gaudela-eta

Baloiarekin bueltaka gabiltzan honetan, futbol mundialean bete-betean, hara non kaleratu duten MP3 formatuan entzuteko aparailu berezia, borobila, esfera itxurakoa eta baloi txiki bat gogorarazten duena. Txinan eginga, MP3 eta Wma formatuak erabil ditzake, 16 gramo pisatzen du eta 34 milimetrotako diametroa dauka. Ez daukagu informazio handirik gailuaren gainean, baina txinatarrez ulertzen dutenendako, hemen helbidea: [www.apod.com.cn](http://www.apod.com.cn).



Baloi itxurako MP3 aparailua. Mundialari alternatiba?

> MP4 IRAKURGAILUA

### Bideoak ikusi eta entzun, argazkiak ikusi, irratia entzun, ahotsa grabatu...: denetik Pant Color-en

Beseder etxeak kaleratu du MP4 formatuak ikusi eta entzuteko aparailua. Giga bateko kapazitatea dauka eta MP3 formatuko artxiboak ere irakur ditzake.

Denetarako balio du: bideoak ikusi eta entzuteko, musika entzuteko, ahotsa grabatzeko, irratia entzuteko, argazkiak ikusteko, bideo-jokoetarako...

1,5eko pantaila dauka, USB konexioa, ordenagailu batera edo beste aparailu batera deskargatzeko...

Prezioa: 328 euro.



Beseder etxearen Pant Color izeneko MP4 irakurgailua. Diseinu txukuneko eta praktikoa poltsikoan erroteko.

Ekainaren 19a:  
091 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

## Sariak astero!

Astelehenean, Ekainak 19, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.  
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleatiko bat!


### 090 zozketako saridunak

Bi gonbidapen ELGETAKO ESPALOIAN izango den RAFA RUEDAren kontzerturako.  
• Igor Iñurrategi Irizar (Bergara)  
Sei gonbidapen EIBAR-FERROL futbol partidurako  
• Resu Abasolo (Aretxabaleta)

- Jesus Antonio Sasiain Etxabe (Oñati)
- Aitor Gutierrez Elkoro (Bergara)
- Carlos Martinez Altuna (Arrasate)
- Pablo Llorente Arrastia (Antzuola)
- Ixone Iregi Billar (Eskoriatza)

### 091 zozketako sariak

DONOSTIAKO AQUARIUMa bisitatzeko bi gonbidapen. (saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



### Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51  
09:00etatik 18:30era.

Goienkaria  
astelehenean, aste bukaera osoa

## berriak

&gt; 'BEHAZULO'

**Helduendako Txotxongiloen Mostra aztergai**

Atzo, eguena, hasiera eman zitzaion Bergaran Helduendako Txotxongiloen Nazioarte-ko Mostrari. Domekara bitartean ikuskizun ugari izango da Bergaran. Emanaldiak kalean, gaztetxean eta Pol-Pol tabernan egingo dituzte.

Aurtengoa Mostraren zortzigarren ekitaldia da eta jaialdiaren gainean jardungo du gaur *Behazulo* saioan, Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta.

&gt; GOITB

**Baztango suhiltzaileen istripu-itxura ikusgai**

Baztango suhiltzaileen istripu-itxura ikusteko aukera izango da asteburuan GOITBn. Ttipi-Ttapa telebistak ekoiztutako erreportajea da. Besteak beste, hondamendi baten aurrean suhiltzaileek eta beste zenbait taldek burutzen duten lana azalduko dute. Ordubeteko erreportajea da eta aste bukaeran eskainiko da: bihar, zapatua, 13:00etan eta domekan, berriz, 22:00etan.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Ikasliburuen mailegutaz 'Asteko Gainbegiratu'-n**

Ikasturte amaieran bagaude ere, datorrenari begira jarri gaitu Olatz Osak, Editoreen Elkarte idazkari nagusiak. Eusko Jaurilaritzak hurrengo ikasturtean ikasliburuen mailegua abiatuko duela ardatz hartuta, Elkar argitaletxean lan egiten duen Osarengana jo dugu argibide bila.

Asteburuan berreskuratu dugu, bada, aipatutako solasaldia beste batzuen artean, goizeko 10etan hasita.

&gt; 'IGO AUTOBUSERA!'

**Datorren astean 107.7ko autobusaren azken ibilbideak**

Arrasate Irratiko autobusari ere heldu zaio ikasturte amaiera; datorren astean zeharkatuko ditu azken ibilbideak uhinetan barrena.

Orain arte gurekin izandako lagunak batuko ditugu, bada, merezitako atseden eman eta urritik aurrera gurekin izateko gonbita egiteko asmotan. Horrela, bada, Arantzazura hurbilduko gara, Pello Zabalen bila, eta Irene Zenitagoiarengana Bergarako Gorosti loradendara.

'HARMAILATIK' &gt; ASTELEHENA, 21:15 ETA 22:15

# Oñatiko herri lasterketa 'Harmailatik' saioan

Zersenay Tadesse-k Gebreselassieren esku dagoen marka hautsi nahi du 10.000 metroko distantzian

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Julen Iriondoren eskutik, Oñatiko herri lasterketaren gaineko saio berezia izango da astelehenean *Harmailatik* saioan, 21:15ean eta 22:15ean. Lasterketaren gaineko ordu erdiko erreportajea eskainiko dute.

Zapatuko herri lasterketak ikusmin handia piztu du. Izan ere, Zersenay Tadesse korrikalari eritrearra Gebreselassieren esku dagoen 27:02 minutuko marka hausten ahaleginduko da 10.000 metroko proban. Iaz munduko krosetako txapeladunorde izan zen eta Atenasko Joko Olimpikoetan brontzea erdietsi zuen Tadessek.



MAILA HANDIA Zapatuan korrikalari handiak izango dira Oñatin. GOIENKARIA

'DEBARRI' &gt; EGUAZTENA, 21:45

# Bergarako alkatea izango da eguazteneko gonbidatua 'Debarri' saioan

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea, izango da *Debarri* saioko protagonista eguaztenean, ekainaren 21ean. Alberto Gorritibereak elkarriketatuko du, 21:45ean hasita. Udalak egingadako lanaren eta etorkizuneko

proiektuen berri jaso ahal izango dugu alkatearen eskutik. Igerilekuak, Zabalotegiko auzotarrerekin sortutako polemika eta udalbatzaren jarduna izango dituzte aztergai, besteak beste.

Victoriano Gallastegi bailarako alkaterik beteranoena da

Patxi Basauri elgetarraren ostean: 1991 ezker darama Bergarako alkatetzan.

Ohikoa denez, alkateari galderak egiteko aukera izango dute ikus-entzuleek eguazteneko saioan. Interesatuak *goiena.net*-eko eztabaida gunera jo dezakete hurrengo egunetan. Internet erabiltzeko aukerarik ez dutenek, 943 71 23 96 telefono zenbakira deitu dezakete kezka edo galderak planteatzeko.

Bergaratik kanpo bizi diren hainbat herritarren iritziak ere jasoko dituzte eguaztenean *Debarri* saioan.

## telebegi

Unai Moraza

## Mundialeko fitxaketa aparta

**F**utbolaren *talifan* ez garenontzat Mundialaren etorrera albiste kaxkarra da. Betekada ederra datorrigu. Eguneroko hiru partidak gutxi ez eta norgehiagoka hasi aurreko eta amaitu ondorengo tertulia amaigabeak ditugu. Aurten *la Siesta...* barkatu, *la Secta...* barkatu La Sexta telebista kateak erosi ditu eskubideak. Kate berriak ezer gutxi erakutsi digu orain arte. Albistegirik gabeko programazioa. Mundiala da beren apusturik indartsuena, eta jendeak kanal berria ezagutzeko baliatu nahi dute.

Baina jarraitzaile izan ez arren, aitzaki ona daukagu Mundiala ikusteko: Andres *Jugón* Montes esatari aparta fitxatu dute, orain arte Canal Plusen ibili dena NBaren partidak komentatzen. Futbola atsegin ez arren, bera narratzaile lanetan badago telebista aurrean geratzen naiz. Estilo paregabea dauka. Maitatu ala gorrotatuko duzu, baina ez zaitu hotz utziko inola ere. Abesten hasten da, jokalariei ezizen bitxiak jartzen dizkie, narrazioan esaldi xebeak tartekatzen ditu... *Julito, ¿cómo te lo pasas!* Ikusgarria.

## arrasate irrata

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratu. Ikasliburuen mailegutaz, Olatz Osarekin, Editoreen Elkarte idazkari nagusiarekin; Asier Etxagibel, infantil kategoriako Euskadiko xake irabazlea; lorategiaren geltokian, balkoiak txukuntzeko aholkuak; Araba Euskaraz 2006 berbagai, Isidro Elortzarekin, Armentia ikastolako irakaslearekin...

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratu.

**Astelehenean egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).  
Elkarriketak.  
Lorategiaren geltokia.  
Ibili Munduan geltokia.  
Sariak.  
Zorion agurrak.  
(parte hartzeko: 943 71 17 31).  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errepikapena)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tarte (errepikapena).

## GOITBko programazioa

**Egubakoitzera, 16**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrotza - Irak. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu - Deiane Arrieta. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa - limoi tarta. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean - Amuriza. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz. 19:45 Albistek - Julen Iriondo. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Behazulo. 21:45 Albistek - Julen Iriondo. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak - Deiane Arrieta. 23:15 Didjeridu - Deiane Arrieta. 23:45 Albistek. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 17**

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 10:50 Astekoak. Informazio saioa. 11:00 Jazz. 11:30 Klipak. 12:00 Didjeridu: Manex Agirre. 12:30 MKT. 13:00 Babes zibilaren erakustaldia. 13:30 Eltze beroa - Barazkiak foierekin. 14:00 Astekoak. 14:15 Ilunpean: Amuriza. 14:45 Harmailatik berezia. 15:15 Marrazkiak - Snorkeldarrak. 16:00 Popeye. 17:00 Debarri - Oñati. 18:00 Teknopolis. 18:30 Berbaire. 19:00 Sustraiak. 19:30 Beasaingo jaia. 20:00 Astekoak. 20:15 MKT. 20:30 Behazulo - Txontxongilo mostra. 21:00 Harmailatik berezia. 21:30 Ilunpean - Amuriza. 22:00 Berbaire. 22:30 Didjeridu - Manex Agirre. 23:00 Klipak. 23:30 Debarri - Oñati. 00:30 Emisio amaiera.

**Domeka, 18**

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo - Txontxongilo mostra. 11:30 Ilunpean - Amuriza. 12:00 Berbaire. 12:30 Harmailatik berezia. 13:00 Debarri - Oñati. 14:00 Beasaingo jaia. 14:30 Klipak. 14:45 Sustraiak. 15:15 Erreportaia - Ukenduak. 15:45 Marrazki - Card. 16:15 Marrazkiak. 17:15 Didjeridu - Manex Agirre. 17:45 Astekoak. 18:00 Iparrotza - Kenia. 18:30 Jazz. 19:00 Elkartasunaren bideak. 19:30 Harmailatik berezia. 20:00 Debarri - Oñati. 21:00 Berbaire. 21:30 Didjeridu - Manex Agirre. 22:00 Babes Zibilaren erakustaldia. 23:00 Behazulo - Txontxongilo mostra. 23:30 Ilunpean - Amuriza. 00:00 Astekoak.

**Astelehena, 19**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo - Txontxongilo mostra. 14:15 Eltze beroa - limoi tarta. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak - Yemen. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean - Amuriza. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu - Manex Agirre. 17:30 Zera dio TxaroA. / Olan. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Sustraiak. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Behazulo - Txontxongilo mostra. 19:45 Berriak - Goiatz Arana. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak - Goiatz Arana. 21:15 Harmailatik Arrasate - Oñati. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Jazz. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 20**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak - Card. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik Arrasate - Oñati. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 M2. Danbako - Ozen. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea - Yoga. 18:15 Munduari bueltak - Yemen. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Albistek - Julen Iriondo. 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak. 20:45 Berriak. 21:15 Ilunpean - Amuriza. 21:45 Albistek. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Albistek. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 21**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 M2 Danbako - Ozen. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio Txaro. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustraiak. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu - Manex Agirre. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Debarri - Bergara. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea - Yoga. 23:45 Albistek. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguena, 22**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea - Yoga. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustraiak. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Debarri - Bergara. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:45 Iparrotza - Irak. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazkiak. 20:45 Berriak. 21:15 Sustraiak. 21:45 Albistek. 22:15 Didjeridu - Deiane Arrieta. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Albistek. 00:15 Emisio amaiera.

# San Juan jaiak Arrasaten

## Egubakoitza, 23

> **15:00** Txosna batzordeak antolatuta, KOADRILEN ARTEKO BAZKARIA.

> **16:00** Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

### Umeendako



DOMEKA, 25

#### > Jolasparkea

Jolasparkea zabalduko da 11:00etan, Zaldibarrren. Ohi bezala, puzgarriak, karts-ak, jolasak... izango dituzte herriko ume eta gazte-txoek.

> **16:30** ETXAFUEGOAK eta BONBA JAPONIARRAK, Herriko Plazan.

> **16:30** Niko eta Periko PAILAZOEN EMANALDIA, Herriko Plazan.

> **18:00** MAKALA jasotzea, Herriko Plazan.

> **19:30** TXOSNAK irekiko dituzte.

> **19:30** SALBEA, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren.

> **21:30** ERREMENTARI DANTZA.

> **23:00** NAGUSIEN DANBORRADA, SUDCEK antolatuta, herriko kaleetan. Ondoren, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA, Herriko Plazan.

> **01:00** EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN omenezko agerraldia, Seber Altubetik.

> **03:00** MANSILLAROCK, 3.60 aretoan.

## Zapatua, 24

> **08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

> **09:00** ENTZIERROA. Gero, BIGANTXAK.

> **11:00** MEZA NAGUSIA, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren.

> **11:00** Arrasateko ERRALDOIEN eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

> **11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA.

> **11:15** Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa eta musika banda.

> **12:00** OHOREZKO AURREKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA, Herriko Plazan.

> **12:30** OMENALDIA 80 URTEK GORAKOEI, Abaroan. Luntxa eta opari banaketa izango dituzte.

> **13:00** McKensy's Clan Band-en KALEJIRA.

> **13:00** KONTZERTUA Arrasate Musikaleko BANDAREN eskutik, Monterron parkean.

> **16:00** XAKE NORGEHIAGOKA. Leintz bailarako selekzioa Donostiako selekzioaren aurka. Seber Altube plazan.

> **18:00** ARKU TIRO LEHIAKETA, Zaldibar pilotalekuan. Arku tiroa praktikatzeko aukera ere izango dute herritarrek.

> **19:00** BERTSO-TRIKI POTEOA, Txosna batzordeak antolatuta.

> **19:30** BIKE TRIAL erakustaldia, zezen-plazan, BENITO ROS munduko txapeldunaren eskutik.

> **20:00** McKensy's Clan Band-en KALEJIRA.

> **21:00** DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan, 12 eurotan. Antolatzaileak: AED eta AEK.

> **22:00** Gaztetxean KONTZERTUA.

> **23:00** SU ARTIFIZIALAK, Astondoa pirotekniaren eskutik. Santa Barbaratik.

> **23:30** ERROMERIA, JOSELU ANAIAK taldearekin, Herriko Plazan.

> **23:30** ROCK KONTZERTUA: Rafa Rueda abeslaria eta Doctor Deseo taldea, Monterron parkean.

> **03:30** FUNK MUSIKA, 3.60 aretoan.

### San Juan sua



EGUBAKOITZA, 23, 22:30

#### > Txar dena erretzeko aukera hobe zina San Juan suari esker

Urteko oroitzapen eta esperientzia txarrak San Juan suak eramango ditu egubakoitzean, 22:30ean, Herriko plazako ekitaldian. Aurretik, San Juanetako ekitaldi garrantzitsuetako

batzuk egingo dituzte: Salbea 19:30ean eta Errementari Dantza 21:30ean. Suaren ondoren, nagusien danborradak herriko kaleak musikaz eta danbor hotsez beteko ditu.

## Domeka, 25

> **08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

> **09:00** ENTZIERROA. Ferrieras kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da. Gero, BIGANTXAK.

> **09:30** Haurrak eta gaztetxoak esnatzeko DIANA.

> **10:45** EGUZKI LARURI ONGIETORRIA Seber Altuben.

> **14:30** HERRI BAZKARIA txosna gunean.

> **16:30** Eguzki Laruren JOLAS PARKEA, Zaldibarren. Merienda eta zurrupaki tropikala banatuko dituzte.

> **17:00** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Uarkapen. Sarrera 15 euro.

> **17:00** GINKANA, txosnagunetik abiatuta.

> **18:30** KANPANOLUE ikuskizuna, Zaldibarren. Ondoren, EGUZKI LARURI agurra.

> **19:30** Gente Colgada konpainiak TANGO VOLADO ikuskizuna eskainiko du Seber Altube plazan. (Lehen emanaldia).

> **19:30** ZEZENKETA. Errekortadoreak eta beste ikuskizun batzuk, zezen-plazan.

> **20:30** Gente Colgada konpainiaren TANGO VOLADO ikuskizuna. (Bigarren emanaldia).

> **22:30** DANTZALDIA, Nueva Alaska Orkestrarekin, Herriko Plazan.

> **22:30** ANTZERKIA Monterron parkean: *TODOS NACEMOS VASCOS*.

> **00:00** KONTZERTUA, txosna-gunean.

## Astelehena, 26

> **08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

> **09:00** ENTZIERROA. Ferrieras kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.

> **12:00** KALEJIRA trikitilariekin.

> **12:00** HEGALUZE eta ATUNGORRI jana Herriko Plazan.

> **13:00** KALEJIRA Los Angeles de Mexico mariachiarekin, alde zaharrean.

> **18:15** HAUR ANTZERKIA Seber Altuben: *NUMENAK*.

> **19:00** IKUSKIZUNA txosna gunean.

> **19:30** SOKA DANTZA Herriko Plazan.

> **20:00** MEXICO LINDO ikuskizuna Herriko Plazan: Los Angeles de Mexico mariachia eta Tenochtitlan de Puebla dantza taldea.

> **22:00** ORDU ALAIA, txosnetan. Edariak merkeago.

> **23:00** NESKEN KONTZERTUA, 3.60 aretoan.

### Kaleko giroa



EMANALDIK EGUNERO

#### > Txaranga, gaita-joleak... herriko kaleak alaitzeko

Incansables txaranga ez du aurten ere San Juanetan hutsik egingo, eta hainbat kalejira egingo ditu. Hor egongo dira ere Arrasateko gaita-joleak, erraldoi eta kilikien urteroko adiskideak.

# Ekainak 16-23

LEIRE KORTABARRIA  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## M-11, antzezlan baten abiapuntu




OÑATI

### > 'El tiempo herido' antzezlan, nazio-arte giro nahasiaren gainean

Nazioarteko gerran mendebaldearen erantzukizunaren gaineko antzezlan egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean. Lau medikuk arabiar gazte batekin duten istripua da abiapuntua. 2004ko martxoaren 11 da, Madrilan.

## Zortzi txotxongilo emanaldi



BERGARA

### > VIII. Txotxongilo Mostrako emanaldi gehienak izango dira asteburuan

Gaur, egubakoitza, *La divina comedia* (Pol-Polen, 22:30) eta *No toquen mis manos* (gaztetxean, 22:30) txotxongilo saioak izango dira. Bihar eta etzi, hiruna emanaldi egingo dituzte bi leku horietan, Munibe plazan eta kalean.

## Gorpuztiko prozesioa izango da



OÑATI

### > Oñatik bere jai bereziena ospatuko du etzi, domeka, prozesioarekin

Mikel Goiaingeruak eta apostoluek Eukaristiaren irudia eramango dute prozesioan, dantzariak, musika bandak, udal ordezkariak... lagunduta. Prozesioa 11:00etako Meza Nagusiaren ondoren irtengo da parrokiatik.

## Jaiak

ARETXABALETA

### > Sahararen aldeko jaialdia antolatu du Iesbaa elkarteak

Sahararen aldeko astea bukatzeko, jaialdia antolatu du Iesbaa elkartasun taldeak. Haima ipiniko dute, tea emango dute eta hennarekin margoak egiten egongo dira emakume batzuk.

Bihar, zapatua, Herriko plazan.

ESKORIATZA

### > Aste Zapatistako jai nagusia ospatuko dute

Poteoa egingo dute 13:00etan; bazkaria egingo dute menu mexikarrarekin; gero, mural margotzea eta antzerkia; segidan, kalejira, eta bukatzeko, Arantxa eta Pantxitoren kontzertua.

Bihar, zapatua, ospatuko dute jaia.

OÑATI

### > Elkar Hezi ikastetxearen eguna ospatuko dute

Ikastetxearen eguna ospatuko dute Elkar Heziko irakasle eta ikasleek. Tailerak, meendako ikuskizunak, afari-merienda, rock kontzertua... izango dituzte

Gaur, egubakoitza, ospatuko dute Ikastetxearen Eguna.

## Antzerkia

ELGETA

### > 'Tetrarip' kale antzerkia ikusteko aukera izango da

*Tetrarip* izeneko kale antzerki emanaldia egingo du Trapu Zaharra taldeak.

Bihar, zapatua, 21:30ean.

OÑATI

### > 'Zirko Iluna' umeendako ikuskizuna egingo dute

Hortzmuga taldeak *Zirko Iluna* ikuskizuna egingo du. Zirko zahar eta akabatu baten istorioa kontatzen du. Hango artistak azkeneko emanaldia egiteko prestatzen dira.

Bihar, zapatua, Etxaluzeko plazan, 17:30ean.

## Lehiaketak

ARETXABALETA

### > Andra Mari jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa

Andra Mari jaiak iragartzeko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udala Kultur Batzordeak. 50 x 70 cm-ko kartelak behar dituzte, estilo eta teknika librean, eta honako testua eraman behar dute: *Andramaixak 2006, Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta*.

Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira kultura etxean edo udaletxean. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

## Musika

ARRASATE

### > Astebururako kontzertuak antolatu ditu 3.60 aretoak

Honako emanaldiak antolatu dituzte: bi tributo talderen kontzertua –Fat Lizzy, Thin Lizzyren tributo taldea; eta The Hound Dogs, Elvis Presleyren abestiekin–; segidan, Mansilla rock. Horiek gaur, egubakoitza, izango dira. Bihar, zapatua, Dr Morris-en rock emanaldia izango da.

Egubakoitzeko kontzertua, 23:00etan; zapatukoa, 03:00etan.

BERGARA

### > Kubatar doinu alaiak La Burumba del Caribe taldearekin

La Burumba del Caribe taldeak salsa, bachata eta beste musika estilo batzuen emanaldia egingo du. Menu tropikala egongo da afaltzeko.

Bihar, zapatua, Tartufo jatetxean, 00:30ean.

ELGETA

### > Musika eskolako kontzertua eskainiko dute

Musika eskolako ikasleen emanaldia izango da Espaloia antzokian.

Bihar, zapatua, 18:00etan.

BERGARA

### > Hard Dance Music Futura jaialdia egingo dute Jamen

Honako disko jartzaileak arituko dira: Botch and Bryan; David Max; Bassdrum Project; Hardcore Knights; DJ Bixente and DK Skalp!; eta DJ Txema and David Sound.

Bihar, zapatua, 22:00etan. Sarrera eta edaria, 15 euro.

ARRASATE

### > Arrasate Musikaleko hainbat talderen kontzertua

Arrasate Musikaleko hainbat talde instrumentalek

kontzertua egingo dute Amaia antzokian.

Etzi, domeka, 18:00etan.

ARRASATE

### > Ultracuerpos eta Nuevo Catecismo Catolico taldeak

Ultracuerpos talde galiziarak eta Nuevo Catecismo Catolico talde donostiarrak kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE

### > Goikobaluko hiru taldek emanaldia egingo dute

Goikobaluko Izartxoak, Txiki eta Gazte taldeek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute.

Segidan, afari-merienda egingo dute Goizalde kafetegian. Gurasoak alabaren bila joan daitezke 21:45ean.

Hilaren 21ean, eguaztena, San Juan parrokiari, 20:00etan.

## Erakusketak

ARRASATE

### > 'Mirada poética' delako erakusketa Harresi aretoan

*Mirada poética* izenburuan, Maite del Reyren poesiak eta Maider Zubillagaren marrazkiak daude erakusketan hilaren 18ra arte.

Orduetgia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ESKORIATZA

### > 'Herri janzkerak' izeneko erakusketa antolatu dute

*Herri janzkerak* izenburuan, baserriarren jantzi tipikoen erakusketa dago Inkernu tabernan.

Uztailaren 1era arte zabalik.

ELGETA

### > Mari Carmen Laskurain bergararren erakusketa

Mari Carmen Laskurain bergararrak margolan erakusketa dauka Espaloia antzokian. 18 lan batu ditu, denetariko gaiekin: paisaiak, loreak, natura hilak...

Ekainaren 28ra arte zabalik.

ESKORIATZA

### > 'Escoitza' erakusketa bisitatzeko aukera dago

Iraia Artzamendi arrasatearrak Eskoriatzako hainbat parajeren marrazkiak aurkeztu ditu erakusketan. Ibarraundi museoan dago.

Zabalik dago hilaren 18ra arte.

ESKORIATZA

### > Aste Zapatistaren barnean, artisautza erakusketa

Aste Zapatista dela eta, artisautza erakusketa dago kultura etxean.

Etzi, domeka, da bisitatzeko azken eguna.

PROPOSAMENA

ELGETA

### > 'Saredun eskua' diskoa aurkeztuko du Rafa Ruedak

*Saredun eskua* da Rafa Ruedak bakarlarri moduan egin duen bigarren diskoa, berriena, eta berau aurkeztuko du gurean, lehenengo Elgetan; Arrasaten gero, San Juan jaietan; eta Bergaran, uztailean.

PiLT taldeko partaide izateagatik egin zen ezagun Rafa Rueda. Konposatzailea, gitarra-jolea eta abeslaria da eta, bakarka, 2003an egin zuen lehen diskoa. Orduz geroztik, pop doinuak egiten ditu, rock gogorretik urruti.

Gaur joko du Espaloia antzokian, 22:30ean.



## nire aukera



Jone Muxika  
Txirrindularia  
Elgeta

## "Goizean pasta jatea astuna da, baina ona da"

Quebrantahuesos proba korrituko dut asteburuan, aurten lehenengo aldiz. Ezohiko asteburua da, eta proba gogorra da, baina, niretako, oso plan gustukoa da. Egubakoitzean abiatuko gara 14 lagun furgonetan. Formigalen apartamentua hartu dugu, eta hanxe egongo gara.

Iaz Treparriscos proba egin nuen, eta janaria etxetik eraman genuen, baina kanpoan afaltzen bukatu genuen. Aurten, martxarako makarroiak eramango ditugu, baina janari gehiago ez.

### Oso gogorra ikusten duzu aurtengo lasterketa?

Bai; Treparriscos 40 km-koa da, eta irabazi egin nuen, baina hau 200 km-koa da, eta hori asko da. Ni bukatzera noa, ez lehiazera.

### Ohiko asteburu baten, zer egitea gustatzen zaizu?

Aspaldian, nire burua prestatzen eman ditut asteburuak, eta noizbehinka irteera *light* bat egin dut kalera. Uztailean, deskonektatu egingo dut.

### Pasta beharrezkoa duzue kirolariok. Gustuko duzu?

Esfortzua egiten ari zarenean, gorputzak eskatu egiten dizu eta gustura jaten duzu. Goizean goiz pasta platerkada bat jatea astun samarra da, baina beharrezkoa. Bestela, janariarekin ez naiz oso berezia. Dilistak gustatzen zaizkit, adibidez.

### Parrandarako astirik bai?

Azkenaldian ez dut bat ere egin. Oso tabernazalea ere ez naiz, egia esan. Hala ere, herriko jaietan bueltatxoren bat egingo dut.

# Zinema

## ANTZUOLA FRONTOI TXIKIA

Los dos lados de la cama  
Egubakoitza: 22:30.

## ARAMAIO KULTURA ETXEA

Orgullo y prejuicio  
Egubakoitza: 22:00.

## ARETXABALETA HERRIKO PLAZA

Aupa, Etxebeste!  
Egubakoitza: 22:30.

## ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Las invasiones bárbaras  
Eguaztena: 21:30.

## EIBAR UNZAGA

Vecinos invasores  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.  
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

## RIALTO

Camino a Guantánamo  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ GURIDI

X-Men: la decisión final  
17:30, 20:00, 22:30.

En la tiniebla  
17:30, 22:30.

El código Da Vinci  
Egubakoitza: 19:00, 22:00.  
Zapatua: 16:45, 19:40, 22:35.  
Domeka: 17:30, 20:30.

Hard candy  
20:00.

Vecinos invasores  
17:00, 16:45, 18:30, 22:30.

La profecía  
17:30, 22:30.

El color del crimen  
17:30, 20:00, 22:30.

Héroes imaginarios  
20:00.

Tiempo de valientes  
17:30, 20:00, 22:30.

## FLORIDA-GURIDI

La condesa rusa  
18:00, 20:30.

El juego de los idiotas  
18:00, 20:15, 22:30.

La joven de las especias  
18:00, 22:30.

Hacia el sur  
18:00, 20:15, 22:30.

No estoy hecho para ser amado  
18:00, 20:15, 22:30.

El asesinato de Richard Nixon  
18:00, 20:15, 22:30.

En la cumbre  
18:00, 20:15, 22:30.

¡Y tú qué sabes?  
20:15.

## ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Vecinos invasores  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Sin miedo  
16:00, 18:00, 20:15, 22:30, 00:30.

El caso Slevin  
22:00, 00:30.

Ice age 2  
16:00, 18:00, 20:00.

Misión imposible 3  
22:00, 00:30.

Cuando llama un extraño  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

X-Men: la decisión final  
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Plan oculto  
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Salvaje  
16:00, 18:00, 20:00.

X-men: la decisión final  
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

El código Da Vinci  
17:00, 20:00, 23:00.

Rosario Tijeras  
15:50, 20:15, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

En la tiniebla  
12:15, 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:00.

El asesinato de Richard Nixon  
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Vecinos invasores  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

X-Men: la decisión final  
12:15, 15:55, 18:05, 20:20, 22:30, 00:40.

## Ultravioleta

12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Caos  
19:45, 22:05, 00:25.

El código Da Vinci  
12:15, 16:15, 17:45, 19:15, 20:45, 22:15, 23:45.

Deuélveme mi suerte  
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Salvaje  
12:15, 16:05, 17:45.

Promedio rojo  
12:15, 15:50, 18:00, 20:10, 22:25, 00:35.

Diario de un ejecutivo agresivo  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Misión imposible 3  
19:30, 22:00, 00:30.

Salto a la fama  
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

La niñera mágica  
12:15, 15:30, 17:30.

La profecía  
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.  
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

## ÁBACO BOULEVARD

X-Men: la decisión final  
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

En la tiniebla  
12:10, 17:00, 19:45, 22:10, 00:45.

Misión imposible 3  
12:00, 17:00.

Diario de un ejecutivo agresivo  
12:00, 16:05, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.

Volver  
20:00, 22:30, 01:00.

Camino a la gloria  
12:15, 17:00, 19:30.

Ice age 2  
12:15, 16:15, 18:05.

El código Da Vinci  
12:00, 16:30, 19:30, 22:00, 22:20, 01:00.

El asesinato de Richard Nixon  
20:10, 22:10, 00:30.

Amor en defensa propia  
19:45, 22:00, 00:30.

La profecía  
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

Salvaje  
12:10, 16:20, 18:20.

Vecinos invasores  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Ultravioleta  
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Deuélveme mi suerte  
12:10, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.



## Hacia el sur \*\*\*\*

Zuzendaria: Laurent Cantet.  
Aktoreak: Charlotte Rampling, Karen Young, Louise Portal, Menothy Cesar.  
Frantzia, 2005.  
105 min. Drama.

Hacia el sur-ek irla xar-mangarrietara erosotasunaz eta mutil gazteen adeitasunez gozatzen doazen 50 urte baino gehiagoko emakumeak ditu protagonista nagusi. Filma pertsonaien erretatu sakona eta zehatza egiten arduratzen da. Istorioa baino pisu handiagoa du pertsonaien sentipen kontraesankor eta konplexuen islapenak. Hasiera baten eguneroko edo garrantzi txikiko diruditen eszenen bitartez emakume bakoitzaren erreakzionatzeko moduak ezagutuko ditugu: bere inguruan gertatzen ari dena begiratzeko era eta ikusten ari direnarenak dituzten jokarakerak. Emakume bakoitzak badu ikuslearen aurrean bihotza zabaltzen duen eszena. Horrela hobeto jakin ditzakegu euren pentsaerak, baina batez ere euren begirada, keinu, isilume eta gauzak esateko tonu adierazgarrien bitartez ohartzen gara nola itxuran bizitzeko modu eder eta lasai horren atzetik sentipen kontrajarriak azaltzen diren: edukitze irrika, norgehiagokak, sortzen diren segurtasun ezak pertsonaien egoera korapilatuko du.

Hacia el sur-ek, emakume horiek erretratatzeko gain, mutil gazte baten erretratu ere egiten du, eta honen bitartez 70eko hamarkadaren bukaeran Haitin jasaten zen giro zapaltzailea ikusiko dugu. Mandatarrien ustelkeriaren eraginez, hango biztanle askok mundu kapitalistari saltzen diote euren burua.

Hacia el sur-ek gure munduan paradisu ez dagoela esaten du eta gizakion bakar-tasun modu desberdinak erakusten dizkigu.

Antonio Zabala

Eskasa:\* Balekoa:\*\* Ona:\*\*\* Oso ona:\*\*\*\* Bikaina:\*\*\*\*\*

### La profecía \*\*\*

AEB, 2006. Zuzendaria: John Moore. Aktoreak: Julia Stiles, Liev Schreiber, Mia Farrow, David Thewlis.  
110 min. Beldurrezkoa

Kathryn Thorne-ren umea hil egiten da erditzean. Berari ezer esan gabe, senarrak beste ume bat onartzen du seme bezala. Baina, hazten denean, antikristo dela konturatuko dira.

### Memorias de una geisha \*\*

AEB, 2005. Zuzendaria: Rob Marshall. Aktoreak: Zhang Ziyi, Ken Watanabe, Michelle Yeoh.  
145 min. Drama.

II. Mundu Gerraren atarian, neskatxa japoniar bat, urteekin, *Sayuri* geisha famatua izango da. Gizon guztiak konkistatzen ditu, berak maite duen bakarra izan ezik...

### Promedio rojo

Txile-Espainia, 2004. Zuzendaria: Nicolás López. Aktoreak: Ariel Levy, Nicolás Martínez.  
104 min. Komedia.

*Roberto*-k 17 urte ditu eta *freak* bat da. Mundu errealetik ihes egiten du komikiak irakurtzen. Bat-batean, *Cristina* iri-

tsiko da eskolara, eta *Roberto* maite-minduko egingo da. Edozer gauza egingo du hura lortzeko... duintasuna galtzea baldin bada ere.

### Vecinos invasores

AEB, 2006. Zuzendaria: Tim Johnson eta Karey Kirkpatrick.  
83 min. Animaziozkoa.  
Udaberria hemen da eta, *Verne* eta adiskideak neguko lozorotik esnatzen direnean, euren ingurune naturala zeharkatzen duen heskaia ikusten dute.

### No estoy hecho para ser amado

Frantzia, 2005. Zuzendaria: Stéphané Brizé. Aktoreak: Patrick Chesnais, Anne Consigny, Georges Wilson.  
93 min. Komedia dramatiko.

*Jean-Claude*-k 50 urte ditu eta gatz bako bizitza du. Halako baten, tangoa ikastea erabakitzen du etxe parean duen akademiaren baten.

### Ultravioleta

AEB, 2006. Zuzendaria: Kurt Wimmer. Aktoreak: Milla Jovovich, Cameron Bright, Nick Chinlund.  
88 min. Zientzia-fikziozkoa.

XXI. mende amaieran, gene mutazio berria duten gizakiak areagotzen dira: bizkorrak, gogorrak eta adimentsuak. Gobernuak garbitu egin gura ditu, eta *Violet*-ek aurre egingo die.

### Amor en defensa propia

Espainia, 2005. Zuzendaria: Rafa Russo. Aktoreak: Ana Fernández, Gustavo Garzón, Manuel Morón.  
105 min. Komedia erromantikoa.  
*Rubén* 45 urteko argentinarra da, futbol-bola utzi behar izan zuena min hartzeagatik. Orain, bizimodua ateratzeko modu bitxia du: jendearen ahulezia emozionala aprobetxatuta, iruzur egiten dio.

### El juego de los idiotas

Frantzia, 2006. Zuzendaria: Francis Veber. Aktoreak: Daniel Auteuil, Kristin Scott Thomas.  
95 min. Komedia.

*Elena* modelo ederrarekin emazteari tranpatan harrapatu du argazkilaria batek *Pierre Levasseur* diruduna. Dibortzioa galarazi nahian, amaraitea argazkian agertu den ezezagun batekin zegoela esaten dio emazteari.

### El asesinato de Richard Nixon

AEB, 2004. Zuzendaria: Niels Mueller. Aktoreak: Sean Penn, Naomi Watts, Don Cheadle.  
95 min. Drama, thriller.  
Richard Nixon AEBetako 37. presidentea hiltzeko plana egin zuen hiritar anonimobatek. Horren kontakizunaren bidez, *amerikar ametsa*-ren alde iluna azaltzen du filmak.

### Héroes imaginarios

Alemania-Belgika-AEB, 2004. Zuzendaria: Dan Harris. Aktoreak: Sigourney Weaver, Emile Hirsch  
111 min. Drama.  
Krisaldian dagoen erdi-go mailako familia baten bizitza urte bat aztertzen du filmak, umore garrantzez.

### Tiempo de valientes

Argentina, 2005. Zuzendaria: Damian Szifron. Aktoreak: Diego Peretti, Luis Luque, Oscar Ferreyro.  
112 min. Komedia.

*Mariano Silverstein* da filmeko protagonista. Psikoanalista da lanbidez. Trafikoko istripu baten ondorioz, epaiketa penal baten sartuta dago.

# ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2006/06/30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN

# Sevillatik Santiagora oinez

**ZILARREZKO BIDEA** Apirilean erretiroa hartu zuen Kutxan eta aspalditik buruan zeukan bidaia egiteari ekin zion

**IBILTARI FINA** 35 egun behar izan ditu Galiziara, Santiagora iristeko, zazpi-bederatzi orduko etapatan

**JENDE UGARI** Harrituta geratu da Alberto Zilarrezko Bidean aurkitutako jendetzagatik, atzerritarrek bereziki

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Sevillatik Santiagora arteko ibilbidea oinez egin du Alberto Elgezabal arrasatearrak. Apirilean erretiroa hartu zuen Kutxan eta aspalditik buruan zeukan bidaia egiteari ekin zion maiatzaren 2an, Sevillan. *Via D La Plata. Guía del camino mozárabe de Santiago* gidaliburua oinarri hartuta, 35 egun behar izan ditu Santiagora iristeko: "Egunero 30 kilometro inguru egiten nituen, zazpi-bederatzi ordu ematen nituen bidean, arratsaldeko hirurak arte gutxi gorabehera, hortik aurrera beroa jasanezina zelako. Bidean atsedean hartzea eta oinak behar den moduan zaintzea funtsezkoa da, zenbait zatitan oinek izugarri sufritzen dutelako, erromatar galtzada dagoen tartetan batez ere". Zortzi kilo inguruko motxila bizkarrean, 30 gradu inguruko tenperaturak izan ditu. "Iparraldera hurbiltzean pasa nuen bero gehien, Ourense aldean. Zamora eta Ourense artean, Padornelo eta A Canda menda-teak egin nituen etapa bereziki


gogorra egin zitzaidan". Sei kilo galdu ditu Albertok eta, nola ez, Santiagon erromesei ematen zaien *La compostelana* agiria jaso zuen, bidean jasotako 42 zigiluak erakutsita.

**ERROMES UGARI**

Harrituta geratu da Zilarrezko Bidean aurkitutako jendetzagatik: "Izugarria da zenbat atzerritar dabilzan. Aleman mordoa zebilen, baina baita Europako beste herrialdeetakoak... Bakarrik joateak hausnarketarako eta zure buruarekin egoteko aukera ematen dizu, baina bidean jende pilo bat ezagutzen duzu. Esperientzia ederra izan da".

Jende atsegina eta leku ederak aurkitu ditu bidean: "Harresiarekin dagoen Galisteo herria, Caceresen, Mombuey eta La Puebla de Sanabria Zamoran, Allariz Ourensean...".

Urrian, Andaluziara joan nahi du Albertok, Ronda eta Tarifa arteko ibilbidea egiteko. Aurretik pare bat lagun konbentzitu nahi ditu horretarako.



IBILTARIA Mendiko federatua da Alberto Elgezabal eta Zilarrezko Bidea egin aurretik beste ibilbide asko egin ditu.

E.M.

## ahobero

"Gol aukera gehiago izateko, taldeko aurrelariak gehiago mugitu behar dute"

**Kaká** > Brasilgo jokalaria Hasi da Alemaniako Munduko Txapelketa eta faborito nagusi bezala zetorren Brasileko selekzioak debut nahiko kaskarra egin zuen, Kroaziaren aurka. Brasilek 1-0 irabazi arren, Kroaziak hobeto jokatu zuen. Izarrez beteta dago Brasilgo selekzioa; eta antza denez, hasi dira taldekideen arteko hika-mikak.

## iturri onetik

**UNEDeko patronatua, Espainiako Ministroen Kontseiluaren oniritziaren zain**

UNEDeko patronatua Espainiako Ministroen Kontseiluaren oniritziaren zain dago Errege Seminarioaren jabe-goa jasotzeko. Negoziazio luzeen ondorioz, tramite hori besterik ez da falta Espainiako Estatuak Seminarioa patronatuaren esku uzteko. Behin eraikina jasota, Seminarioaren erabileraren gaineko azalpenak emango dituzte. Bergarako Udalak auditorioa egingo du bertan.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Ilargipean gozamina

**A**urten ere, kalera aterako gaitu San Joan suak. Udaren etorrera ospatuko dugu suaren inguruan. Kale sasoi da uda. Baita aisiaren ordua ere. Eta, aisiaz gozatzeko, aire zabalean nahi gaitu udak.

Kulturak udan ilargia maite du. Eta hego haizea. Ilargipe epelean, kultura zuzenean iristen da bihotzera, bihotza sentibera egoten baita udako gau gozoetan.

Badatoz uda eta kultura; haize hegoa eta ilargia. Badator Musikaire Elorriora, badakar bere mazedonia; aurtien inoizko euskaldunena, jaialdien eskanerrak euskaldun asko aurkitu baititu sorkuntzan. Musika, dantza, antzerkia, kale animazioa... Tartean izen handiak: Cesc Gelabert, Benito Lertxundi, Lila Downs...

Gaur hasten da Musikaire Elorrion: guztientzat doan, bihotzaren gozagarri.

## ai, ene!



**Auto modelo bitxia istripuak saihesteko**

Asia aldean beste erritmo batekin bizi dira. Antza denez, han ez dituzte behar zaldi askoko auto *super-azkar*ak...

<http://tinyurl.com/q9daw>

**GRUPO ARKAUZ**  
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

**ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS**  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

**ETXE MOBIL**  
ALTZARIAN  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**ARKAUZ COCINA INTEGRAL**  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**ARKAUZ MUEBLES**  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

Betiko sukaldearekin asperasper eginda?  
Har ezazu errezeta!  
Arkauz etxean ideia berriak emango dizkizugu.

**Arkauz zure etxea da.**

FAGOR banatzaile ofiziala